beltza gorria urdina horia

Egunkaria
euskaldunon

• asteazkena • 2000ko otsailaren 23a -- XI. urtea -- 2.857. zenbakia -- Salneurria: 125 pta. 6 libera

UNI
BERTSITATEA
Errektore berria EHUn
erdiko orrialdeetan

Bonba-autoa Gasteizen

Fernando Buesa hil dute atentatuan

Arabako buruzagi sozialistarekin batera oinez zihoan eskoltako ertzaina ere zendu zen leherketan

■ FERNANDO BUESA Arabako PSE-EEko idazkari nagusia eta haren bizkartzain Jorge Diez Elorza ertzaina hil ziren atzo Gasteizen, buruzagi sozialistaren aurka egindako atentatuan. Egileek 20 kilo lehergaiz betetako bonba-auto bat erabili zuten atentatua burutzeko. Arratsaldeko lau eta erdiak inguruan gertatu zen hilketa, Buesa eta bizkartzaina lehenaren etxetik oinez abiatu eta berrehun metrora. Eztanda Gasteizko erdialdetik ere entzun zen; Lehendakaritzatik ere bai, atentatua gertatu zen lekutik nahiko hurbil baitago. Gaur egingo dira buruzagi sozialistaren aldeko hiletak. EAEko lehendakari Juan Jose Ibarretxek hiru eguneko dolua ezarri du Buesaren eta Jorge Diez Elorzaren omenez, gaurtik etzi arte.

DAVID AGUILAR / EFE

Ertzain eta suhiltzaile batzuk, bonba-autoa lehertu zen lekuan. Eskuinean, Fernando Buesaren gorpua ageri da, maindire batez estalia.

FERNANDO BUESA



Fernando Buesa Blanco PSE-EEko bozeramailea zen Gasteizko Legebiltzarrean eta Arabako Batzar Nagusietan. 1979-83 bitartean Arabako foru diputatua izan zen, eta 1987an ahaldun nagusi izendatu zuten. Zinegotzi ere izan zen Gasteizen 1983-87 artean. 1991an Jaurlaritzako lehendakariorde eta Hezkuntza sailburu izendatu zuten. 1995 arte iraun zuen kargu horietan.

Ibarretxek hautsi egin du EHrekiko legegintzaldi ituna

- *Alderdi eta eragile gehienek gaitzetsi dute Buesaren eta bizkartzainaren hilketa*
- *Enfrentamendu eskemak gainditzeko jokaleku demokratikoa eskatu du EHk*
- *Lehen mobilizazioak izan ziren atzo, eta gehiagotara deitu dute egunotarako*

6-13

politika

■ **Euskal presoak**
Daniel Dergiri zerbait gertatu bazaio argi dezatela eskatu du haren aitak • 14

gizartea

■ Expolangues azoka gaur zabalduko dute, Parisen • 19

■ Zerri mihiak sortu du listeria izurria, Frantziako osasun agintarien ustez • 21

europa

■ IRAk ukatu egin du armak uzten hasiko dela soldadu britainiarrak alde egiten hastearekin batera • 31

mundua

■ Gutxienez 35 lagun hil dira Nigeriako iparraldean musulmanen eta kristauen arteko borroketan • 34

kirola

■ **Futbola**
Jose Maria Arrate: «Epaileen lana kritikatzen hasiko gara gu ere» • 37

kultura

■ Arsuagak Neanderthalgo gizakiari buruzko aurkikuntza berriak aurkeztuko ditu etzi Donostian • 47

iritzia

gaurko...

...elkarrizketa

Alfonso Garcia la Torre

• ELEKTROAKUSTIKA VI. JARDUNALDIEN ANTOLATZAILEA •

«Modak agintzen duena da entzuten den musika bakarra»

Elektroakustika Musikaren VI. Jardunaldiak egiten ari dira aste honetan Jesus Guridi Kontserbatorioan eta *Casa del Cordon*-en

■ **Zer da musika elektroakustikoa?**

Elektroakustika musika garaikidearen barruan kokatzen da. Musika mota hau, oinarrian, teknologia berrien erabilpenaz baliatuz —informatika, elektronika...— kontzertuak eta musika produktuak egitea da. Nahiko berria dela iruditu arren, mende hasieratik datorren mugimendua da.

■ **Zergatik ez da ezagunegia musika mota hau?**

Irizpide komertzialek asko baldintzatzen dute musika, eta, batez ere, musika garaikidea. Modak agintzen duena da entzuten den bakarra; gaur egun inor ez da arriskatzen ezagunegiak ez diren musikak ezagutzera emateko, zabaltzeko, eta gizarteari gerturatzeko.

■ **Jardunaldi hauek elektroakustika indartzeko balio dezakete?**

Bai, noski. Jardunaldi hauetan Jesus Guridi Kontserbatorioaren ikasleak egindako ekoizpenak joko baitira, beste askoren artean. Hala ere, oraindik bide luzea gelditzen zaigu musika elektroakustikoa ezagutarazteko, eta jardunaldi hauek oso egokiak dira zeregin horretarako.

Jon Rejado
GASTEIZ

...esaera *«Haur jaio eta haur hil»*

...hizpideak

Lurrikara politikoa eragin du Buesaren hilketak

■ LURRIKARA politikoa eragin du Euskal Herrian Fernando Buesa hil duen atentatuak. PSE-EEko buruzagiaren hilketaren berri izan bezain agudo gogor erreakzionatu dute alderdi politiko eta gizarte eragile gehienek, eta ETAren jarduera armatua bertan behera uzteko galdegin dute. Gizartean sortu den zirrara ere ez da nolanahikoa izan, ordezkari politiko bat hil izanak, aurpegi publiko bat hil izanak, berezko hunkipena sortu baitu. Ondorioz, mobilizazio jendetsuak egin dira eta gaur kontzentrazio ugari deitu dituzte herrietan, erakundeetan eta ikastetxeetan. Baina zirraraz gain, berehalako ondorio politikoak izan dituen eta izango dituen ekintza izan da Gasteizkoa. Dagoeneko, Ibarretxek EHrekin indarrik gabe zuen ituna hautsi egin du, baina hori baino erabakiorra izan liteke martxoaren 12ko emaitzek utziko duten jokalekuan PSE-EEko buruzagi garrantzitsu baten kontrako ekintza honek alderdien arteko aliantzetan nola eragin dezakeen. Eta abertzaletasunaren kontrako egungo ofentsiban mugitzeko mugatuen geldi daitekeena EAJ izan daiteke. Hala ere, gerta dakigukeen guztia gertatuta ere, derrigorrezkoa da prozesu hau dagoen tokitik ateratzea eta irtenbide hitzartua ahalbidetzeko egin beharreko ahalegin guztiak egitea. ETAk egin beharko du berea, Espainiako eta Frantziako gobernuek beraiena eta alderdi politiko guztiek berenak eta bi. Arazo politikoak gordin-gordinean segitzen du eta gizarteak horren konponketa eskatzen du.

Aho batez

■ Pinochet Txileko diktadore ohiaren estradizioa eskatu zuten lau estatuak bat etorri dira Jack Straw ministro britainiarrari alegazioak aurkezterakoan: Londresko Gobernuaren iritziaren kontra, Pinocheten osasun egoera hura estraditatu eta epaitzeko modukoa dela uste dute. Estatuon iritzia ez da erabakigarria, eta azken ebazpena, Strawren esku dago berriro. Oraingoan, ordea, zailagoa izango zaio diktadore ohiaren aldeko erabakia hartzea.

Nor bereari eusten

■ IRAk eta Erresuma Batuko Gobernuak ukatu egin dute, nork bere aldetik, erakunde armatuak desarmeari ekitea eta soldadu britainiarren presentzia Ipar Irlandan murriztea elkarri lotzeko posibilitatea. IRAk gezurtatu egin du talde errepublikanoak desarmerako egutegia finkatu duela. Era berean, orain bi aste eta erdi egindako proposamenak Desarmerako Batzordeko mahaitik kanpo daudela adierazi du eta lehenengo astean agiri baten bidez azaldutako jarrera berretsi du. Londresek ere desarmearen eta soldadu britainiarren irteeraren arteko lotura gaitzetsi du. Blairren gobernuak agertu duenez, «ez da arma trukaketarik izango Ipar Irlandako talde paramilitarrekin». Defentsa idazkari Geoff Honn-ek esan duenez, «Gobernu britainiarrak ezin du ezer egin, eta egitea ere ez du pentsatu, segurtasun indarrak eta terroristak parekatzeko».

...pertsonaiak



LUIS MARI BENGOA • Eskuz Binakako Bigarren Mailako txapelketako finalean arituko diren lau pilotariak Besagain enpresakoak dira. Oionen jokatuko da finala ostiralean. Luis Mari Bengoa Besagaineko burua da.

JULIAN SANCRISTOBAL • Espainiako Estatu Segurtasunerako zuzendari ohiak *Lasa-Zabala kasuan* deklaratu du. Sancristobalek baieztatu du Iparraldean poliziak eta guardia zibilak ibiltzen zirela 1983. urtean.

PATRICK M. FITZGERALD • Azken hamar urteetan Bizkaian bizi den artista irlandarraren azken lanak ikusgai daude Bilboko Amaste galerian. Margoak eta marrazkiak dira nagusi, ohiko minimal ukituarekin.

...datua

35 lagun hil dira Nigeria iparraldean, musulmanen eta kristauen arteko borroketan. *Xaria* lege islamikoa ezartzeko asmoa agertu dute Kaduna estatuko agintariek.

...adierazpena

«Biolentzia ukatzea, elkarrizketari baiezkoa esatea era bada»

•

Txema Urquijo
Bakearen Aldeko Koordinadorako kidea

...s k urr

• XABIER OLEAGA •

Uxela

Atzo arratsaldetik egun batzu pasa arte behintzat burua hotz mantentzera gonbidatzea bera politikoki desegokitzat hartuko da iritzi publikatuaren giroan. Baina horixe da hain zuzen ere egin beharrekoa, adierazi beharrekoari doluminak adierazi ondoren. Bakoitzak egin beza bere ariketa animoak uzten dion bezain laister. Utz biezaio saminduari behazuna botatzeko behar duen denbora, eta itzul bedi bakoitza bere senera ahal bezain laister.

Motz biezaio bidea, ordea, *vendetta* politikoaren beso luzeari, urrunegi ere iritsita baitago jada egoera trajiko honi irtenbide errealista bat aurkitzeko proposamena lantzen ari direnen aurka. Ohituak gaudelako ez dugu erreparatzen paradoxa honen neurriaz. Baina horrela da, eta esan beharra dago, samin adierazpen legitimoetan ari direnak bezain ozen.

Babes dezagun duela urtebete t'erdi sueten egoera bat lortzeko urratsak garatu eta bultzatu zutenen ausardia. Orduotan ahoan mendekua baino besterik ez dutenen aurrean esan dezagun 1998.eko irailean hasi eta urtebete luzez bizi izan duguna posible dela berriro eta betirako ere. Ez igandean Donostian manifestatu zirenek proposatzen dutenen bidetik, ez Ermuako Foroak Brusselan utzi zuen mezuaren bidetik. Itxaropenak bere zirrikitua du, erremin itsuaren proposamenen gainetik.

Egoera hau inmobilismoa legitimatzeko erabili nahiez aho bete zaratatsuan ari direnen aurrean burua duinki altxa eta konponbide razionala ikusi eta berarekin konprometitzeko prest dagoenik ez da falta. Txalotu ditzagun horiek lintxamendu irrazionalean ito nahi izango dituzten ordu hauetan. Zeren eta aste batzu barru hauteskundeak izango dira, bai, baina Madrilgo Gobernua osatuko duenak osatuko duela, egoera hau konpondu beharreko erantzukizuna izango du hiritarron aurrean. Egoera hau luzatzen ez uzteko erantzukizuna izango du. Burua argi iritsi dadila Moncloara. Uxela.

• MATTIN •



Parekotasunaren bideak

• MARGARITA URIA •
[EAJko parlamentarioa Madrilgo Kongresuan]

Zalaparta handia sortu du Frantziako Asanblea Nazionalak hauteskunde-zerrendetan egon behar duten gizon zein emakumeen kopuruaz berriki onartutako lege-proiektuak. Izan ere, haien arteko parekotasuna ezarri du, baina komeni da zenbait zehaztapen egitea. Lehendabizikoa da onartutakoa oraindik ez dela lege, Asanbleatik Senatura eraman behar dutelako, eta hor gehiengo kontserbadorea dagoelako. Bigarrena da parekotasuna ez dela nahitaez bete beharrekoa; aitzitik, baldintza bat baino ez da diru laguntza publikoak lortzeko. Parekotasunak laguntzak jasotzea ahalbidetzen du, baina baliteke zerrenda batzuetan gizonak emakumeak baino gehiago izatea, eta alderantziz, eta zerrendak, hala ere, legezkoak izango dira. Are gehiago, guztiak gizon izan daitezke, edo emakume, eta, ondorioz, diru publikoak jasotzeko eskubidea murriztu egin daiteke, edo desagertu.

Emakumezko politikaria naizen aldetik, hasiera batean gustatu egiten zait. Goizean goiz irratian entzun nuenean, lehen erreakzioa, barrenbarrenekoa, benetakoa, «zer ondo!» izan zen. Baina gero, dauden arazoak entzun ostean, *arrazionalizatzen* hasten zara, eta neurria gizarte-esparruan zein zuzenbide alorrean kokatzen. Frantzia, hainbat gauzatan iraultzaile eta askatasun, berdintasun eta anaitasun printzipio errepublikanoen sorleku izanagatik, ez da eredugarria bigarren balio hori lortzeaz den bezainbatean. Asanblean %11 soilik dira emakume, eta, beraz, desberdintasuna —organo legegileetan— Europako beste edozein herritan baino handiagoa da, Grezian izan ezik, eta munduko batez bestekotik behera dago. Agian, historian beste batzuetan gertatu legez, mota bereko beste iraultza bat beharko litzateke.

Arlo juridikoan, Espainiako sistemari dagokionez, jende asko agertu da neurriaren aurka, eta haien lehendabiziko argudioa neurriaren inkonstituzionaltasuna izan da. Are gehiago, batzuk oraindik ausartagoak dira, eta Frantziako Konstituzioaren aurkakoa dela diote, Arenas jaunak esate baterako. Ez dakit zein diren gizon horren bertuteak jurista bikaina izateko, baina esan duena beste *boutade* bat iruditu zait, Frantziako Konstituzioa berriki aldatu baitute.

Konstituzioko 23.2 artikuluak kargu eta funtzio publikoak bete ahal izateko berdintasuna ezartzen du, betiere legeetan adierazitako baldintzekin, eta artikulu horren gaineko erreferentzia 14. artikuluarekin bateratu behar da, Legearen aurreko berdintasuna eta maila edo gorabehera pertsonalengatik ez diskriminatzea ezartzen baititu —Amsterdamgo Ituna esplizituagoa da sexuari dagokionez—, hala nola 9.2. artikuluarekin, honako hau baitio: «... botere publikoei dagokie gizabanakoaren askatasuna eta berdintasuna... egiazkoak eta eraginkorrak izateko baldintzak sustatzea». Horretatik uste dut ondoriozta daitekeela badagoela nahiko oinarri esateko posible dela konstituzionaltasuna, zantzuen arabera bada ere.

Neurriaren egokitasuna da beste alderdi interesgarri bat. Lehenago inork ez zion horrela heldu parekotasunari. Alderdi batzuetan kuotak izan dituzte, eta beste batzuetan *zuzentasun politikoa* hartu dute irizpidetzat, emakumeek prestakuntza eta gaitasun bera dutelako ustezko konbentzimenduan oinarrituta; baina, orain arte, parekotasuna lortzeko nahia lege-eskakizunetatik kanpo gelditu da. Europako iparraldeko herrietan ikusten diren emaitza onak berak ere alderdietan kuotak nahita ezartzearen ondorio dira. Orain arte, parekotasuna ez da inongo legeditan exijitu, baina gomendioak izan dira, Parlamentuen arteko Batasunarenak adibidez. Erakunde hori 1889an sortu zen, munduko parlamentu guztiak biltzen ditu, eta 1997an honako adierazpen unibertsal hau onartu zuen: «Ez da demokraziarik izango ez badago benetako lankidetzarik arazo publikoetan gizon eta emakumeen artean, eta gizonek eta emakumeek, berdintasunean eta elkarren osagarritasunean oinarrituta, ez badute elkar aberasten beren desberdintasunekin». Bide batez esanda, Parlamentuen arteko Batasunak, lehendabiziko aldiz, emakumezko bat aukeratu berri du lehendakari, eta horretarako 110 urte soilik behar izan ditu!

Asmo bera izan dute duela gutxi EAJren Estatutu Nazionalak aldatu dituztenean. Aldaketa xumea izan da, baina sinbolikoa. Izan ere, 109.2. artikuluan, alderdi barneko zein kanpoko karguez honako hau esaten da: «... gizonen eta emakumeen ordezkaritza egokia ziurtatuko da, aukera berdintasunean oinarrituta»; honako hau ere bai: «... batzarrek erabaki ahal izango dute zein proportziotan esku hartuko duten emakumeek, edo mekanismoak jarri ahal izango dituzte haien esku-hartzea sustatu eta bermatzeko». Esango didate beste alderdi batzuk *aurreratuagoak* direla, baina nire alderdiarentzat berritasun garrantzitsua da.

Ikusitakoak ikusita, hasieran bezala orain ere honako hau esaten dut: «Bai urrats ona, Frantzian egindakoa!».

***Erredakzioan itzulia**

MARIBI UNAMUNO

Erbestean

Iraganean gertatu zen kontatuko dizuedan ipuin ez fantastiko hau.

Igande goiz baten, Bremengo ipuinetako musikari famatuei dedikaturiko estatuaren inguruan, zeregin handi barik, euri ziri miriaren barnean, bakar antzean zebilen bisitariak, katedralaren dorretik zetorren kanpai hotsa entzun zuen eta, hain hots ederrez deitzen zuten bada ezen, deiari erantzutea bururatu zitzaion.

Pentsatu bezala egin zuen eta han aurkitu zuen katedral handia, argiz beterik, jendez ganezka. Solemnitate handiz altararatu ziren euren jantzi bereziekin hainbat gizon eta hasi zen meza. Bisitaria azken aurreko mankelaren ertzean geratu zen, besteekiko mimetismoz, haiek jagiten zirenean jagi eta jesarten zirenean jesarriz, unearen magiaz gozatzen. Halako baten altarako nagusiak, adiskidetasunaren seinale edo, elkarri eskua emateko agindu zuen eta denek bete zuten agindu hori; denek bisitariaren ondoan zegoen mutil buru gorri, azal argi, begi urdin, altuak izan ezik; honek bere eskumako kideari eman zion eskua baina ez bere ezkerrean zegoen bisitariari. Lehenengo unean, bisitariak harrituta aurpegira begiratu zion zuzen-zuzen mutilari eta baieztatu ahal izan zuen honek ezikusi egiten ziola, orduan bisitariak bere esku biak batu zituen, bere buruari bakea emateko.

Han gertatutakoaz pentsatu eta pentsatu egin ondoren, konturatu zen berari eskua ukatzearen arrazoia buruko ilearen kolorea izan zitekeela; ile iluna zen erbestekotasunaren seinale. Amorrua biztu zitzaion bisitariari, bizitzan estreinekoz aurretik inoiz sentitu bakoa sentitu baitzuen, hau da, norbaitek beste norbait gehiagoko barik mesprezatzea zer zen. Amorrurik handiena, hala ere, gazte haren uzkurkeriak unearen magia zeharo apurtu beharrak eman zion.

Ipuin hau hainbeste urtean gordeta egon arren, ez da ahaztuta egon, zerne El Ejido herrian baldintza txarretan lanean diharduten erbestearren gertakarien berri izatean, berbiztu egin da memorian grabatuta egon dena. Norbere etxe ondotik harat, denok izan gaitezke erbestear.

...kornerra

MIKEL ELORZA

Sentiduak

■ Kornerra idatzita neukan, goizetik lasai ibilita, gai faltarik ez neukalako. Gasteizko bonbak, ordea, lasaitasun oro astindu dit. Idatzita neukana ez du ezabatu, neuk ezabatu dudalako. Sentidua bazeukan, badu, baina garrantzia erabat galdu du. Zailagoa zait Gasteizko atentatuari sentidurik aurkitzea, eta ez naiz ari inongo heriotzak sentidurik ez daukan alfer-eztabaidaz. Fernando Buesa ordezkari politikoa hil izanak eite berezia ematen dio atentatuari: ene irudiko, zuzenago hedatzen du leherketa-uhina negoziazio (edo dena delako) prozesurantz. Hilketak berarekin daroan min eta tragediaz gain, hori ikusten dut; sentidua hor lanbrotzen zait. Pique ministroaren mehatxuez zen ezabatutako kornerra. Daniel Dergi ere aipu nuen. Errespetatzen ez den euskal herritarron borondateaz niharduen. Atentatua ere sartzen da.

Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain
zuzendariari@egunkaria.com
943 300 228

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.

zuzendariari

Jauntxoa eta mailegua

– Zer iritziko genioke herri bateko lur gehienak familia batenak direla eta beste herrikideek belaunaldiz belaunaldi jauntxoaren lurrak lantzea beste irtenbiderik izan ez dutela bageneki?

– Eta lurjabeak txirotasunetik irten zitezen interes txikian mailegu bat eskainiko balie?

– Eta handik puska batetara interesak bikoiztu eta soldata laurden batean jaitsiko balie?

– Eta baldintza berri horietan zorra itzuli ezinak bultzatuta nekazariak jauntxoarengana joandakoan, honek lan gehiago egitera eta zorra hasieran erabakitako epeetan ordaintzen jarrai zezaten lehengoak baino interes altuagoan mailegu berriak onartzera behartuko balitu?

– Eta lehen mailegua eta 50 urte beranduago nekazariak sekula baina txiroago sekula baino soldata txikiagoen trukean jauntxoaren lurrak lantzea beste aukerarik gabe jarraitzeaz gain, etengabe handituko zen zor baten menpe baleude?

Hauxe da ba 2000. urte honetan 1.000.000.000 gizaki baino gehiagoren historia.

Iparraldeko herri aberatsak izan ginen 80. hamarkadaren hasieran geure interesei jarraituz mailegu haien baldintzak aldatu genituenak (maileguen interesak laukoiztera heldu ziren eta mineral eta nekazal produktuen prezioek oraindik gelditu ez den beherako bideari ekin zioten) eta *gu* beraz kanpo zorraren krisia sortu genuenak. Baldintzen aldaketak herrialde txiro gehienak maileguak itzultzeko ezintasunera eraman zituen eta gaur, 20 urte gero, horrela darraite.

Horregatik dagokigu *guri* kanpo zorra ezabatzea, neurri handi batean gu izan baikara arazoaren sortzaileak. **Beñat Arzadun Olaizola** • *(Harreman GGKEko kidea)*

Pikeren biraoak

Irabazi ezkero, bulegari bila etorriko zaigu ahoa bete fusil. Lasai Pike, ohituak gauzkazu, zure aurrekoek bezalaxe, Bueren/Atutxak zuzendutako polizi indigenaren razziak ahaztu gabe. Patu petrala zinez, euskal herritarrak bakarrik sentitzen diren %30etik gorakoena. (%-a zentzu politikoan, ez lanbidez araberakoa). Baina eskertzen da zure ahalegina. Benetan larrugorritan utzi dituzu milaka milioi ordaindutako ikerketa estratejiko ultra sekretuak, euskotarrak menderatzeko bideratutakoak hain zuzen.

Iragarri duzun pertsekuzio politikoa, oso-oso eskuin muturrean kokatzen da, nazismo aurreratuan. Helduko diren epaiketetan ere, zure adierazpenak agertu beharko dira. Eta Europan, zilegi da adierazpen askatasuna, onartuta dago giza eskubide moduan, hala uste behintzat.

Ez dakit Lizarra-Garazik, Gorostiagak, Jaurlaritzak edo nork, baina norbaitek eraman beharko zituzkeen Pikeren biraoak Europara, La Fontaine-renganaino gutxienez, eta, bide batez, beste hainbeste Europar Batasuneko instituzioetara. Eta ikusiko genuke zer nolako demokrazi maila dagoen Europan, zeren denak asaldatzen dira Austriako afera dela eta, Turkia halako estatu bat sartzekotan dagoelarik.

La Fontaine, PP Europarrekoa izanik, estualdian gertatuko litzateke. Bere alderdikide den bat kritikatu? **Joxe M. Aspiunza** • MUNDAKA (BIZKAIA)

Goierri Lanbide Eskolan demokrazia ikasleontzat!

Gatazkaren mamia greba araudiaren barne, abstentzioarekiko azaltzen den indeterminazioa erabiliz, zuzendaritzak ikasleekin kontsentsu batera iritsi gabe zuzenean kontseilu eskolarrera eramatea erabaki zuenean datza. Zuzendaritzak, kontuan hartuta, bertan irakaskuntzarekin zuzenean harremanik ez duten (3 udaletako ordezkari politikoak) ordezkariak daudela. Ordezkari hauek ikasleoi bakarrik dagozkigun gaietan (greba prozesua, e.a.) ikasleok haina erabaki ahalmen dute. Kontseilu eskolarreko ikasleen ordezkarion ustez ikasleoi dagozkigun gaietan ikasleok eduki behar dugu hitza eta erabakia.

Zuzendaritzak indarrean ezarritako arauak anonimotasuna gordetzen badu ere, ez du bermatzen alde batetik greba prozesuan parte hartu duten ikasleek prozesuko emaitza errespetatuko dutenik, eta bestalde ez du bermatzen klasean geratzeko aukera egin duten ikasleen asistentzia; jakinik Goierri Lanbide Eskolan klase asistentzia ezinbestekotzat arauturik dagoela.

Ikasleok aurkeztutako proposamenak berriz anonimatoaz gain klase asistentzia ere bermatzen du.

Hau honela izanik astelehena, otsailak 14, ikasleok eginiko batzarrak klaseak etetea erabaki zuen, zuzendaritzak ikasleon proposamena aintzakotzat hartu arte. 3 eguneko borrokaren ostean zuzendaritzak ikasleon ordezkari guztiekin eta irakasleen ordezkariekin eginiko bileran ikasleon proposamena aurrera atera zen. **Joseba Hernandez, Mikel Luloaga, Mitxel Zurutuza** • *(Goierri Lanbide Eskolako kontseilu eskolarreko ikasleen ordezkariak)*

galdeiozu...

Alfonso Alonso
GASTEIZKO ALKATEA

Santa Maria ikastetxearen arazoan ez al zarete «integrazio nahia» aitzakiatzat erabiltzen ari A eredua defendatzeko? D ereduan ez al da etorkinen integraziorik ematen?

Urko Aierbe [Gasteiz]

■ **SANTA MARIA** mantentzea defendatzen dugu integrazio bidea delako: bertako ikasleen %70 etorkinak dira, eta A eredua aukeratu dute. Ikastetxe hau ixteak eta Ramon Bajora joateak —hau urrunago dago eta instalazio kaskarragoak ditu— ikasleak beste eskola batzuetan sakabanatzea ekar dezake, eta irakaskuntza eredua gurasoek aukeratutakoa ez izatea. Ez dugu inola ere planteatzen D ereduak etorkinen integrazioa bermatzen ez duenik. Gurasoek semealabentzat nahi duten eredua aukera dezaten babesten dugu, eta eredu hori edukazio aldetik kalitatezkoa eta instalazio egokiak dituena izatea nahi dugu.

Otsailaren 29tik aurrera
Arantxa Urretabizkaia
• IDAZLEA
izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua.
Bidali zure galderak ordurako.

• MONTXO •



Nazio bat garelako nik neuk bozkatuko dut

• ANDOLIN EGUZKITZA •

[IDAZLEA]

Lehenengo argudioa gure ama zenari hainbestetan entzundako argudioa da: «abertzaleok ematen ez dugun boz bakoitza inperialismoaren alde emandako boza da», berak apur bat modu zakarrago batez formulatu arren. Izan ere, horregatik martxoaren 12an aurkezten diren alderdi abertzaleetariko batek, EA-k edo EAJ-k, neure boza jasoko du, gauden egoeran guztiz garrantzitsua baita abertzaleen aldeko bozak inondik ere ez jaistea. Eta horrek, jakina, ez dauka zerikusirik norberaren izaerarekin, norbera berez naturaz zein borondatez denarekin, alegia, batzuk oraindik ere erabiltzeko prest dauden eskolastika zakar eta amotzarekin, zeren Erdi Aroko fraiderik arlote eta baldresena bera ere ez baitzatekeen horrelako segada argian jausi, horretarako aukera eduki izan balu.

Edozelan ere, lotsagarri deritzot honelako pitokerietan ostera ere ibili beharrari, hots, duela hogei urteko eztabaida antzuak behin eta berriro pizteari. Zertako balio du esperientzia historikoak? Noizdanik norberaren oinarrizko izaera inguruko zirkunstantziek baldintzatzen eta moldatzen dute hain era baldar, toleskabe eta zuzenean? Batzuek, antza, Politzer-en irakurgaiak darabiltzate oraindik orain oheburu eta beren ekintzen artatzaile. Edo eta espainiarrak edo frantsesak ote gara karnet bat izen horiekin daroagulako? Edo askok eta askok Espainiako eta Frantziako armadekin soldadutza egin behar izan duelako? Edo beste hamaikak hain urrun ez dauden garaietan eskolaren bateko bailan hegoaldeko erresuma horren himnoa behin baino gehiagotan kantatu behar izan dukeelako. Arazoa, argi eta garbi, Lizarra-Garaziko *izpirituari* eutsita, abertzaleen arteko indarpilaketa da alde batetik, eta bestetik egiten direnak egiten direla eraginkorrak izatea.

Bada, nire ustez, ez bata ez bestea ez da modu horretan lortzen. Indar-pilaketa, beste alderdi abertzaleek ontzat jo ez dutelako abstentzioaren aldeko deia, eta bigarrenez, erabakia hartzeko erabili diren perspektibak, oker ez banago behintzat, Bizkai-Gipuzkoakoak direlako, ez Hego Euskal Herri osokoak. Eraginkortasuna halandaze hutsaren hurrengokoa izanen da, azkenengo greba-egunak ezertarako ere balio izan ez zuen bezala, ez batarako, indarpilaketarako, ez eta besterako, mugimenduaren aldeko eraginkortasunerako.

Osterantzean, egin dagigun argi berba: azkenengo gerran, Molaren armadak eragindako mugimenduen ondorioz, lehen defentsalerro benetakoa Elgetako inguruan finkatu zen, Bizkaiak bakarrik —edo eta mendebaldeko euskara egiten duen lurraldeak bakarrik gurago bada— burrukatu zuen independentziaren alde, gure gurasoek zioskuten bezala, edota zelanbaiteko askatasuna gauza zitekeen espainiar errepublikaren alde. Oraingoan lurralde horri Gipuzkoa osoa gehitzen zaio. Eta Araba eta Nafarroa? Ez dut esan gura, Euskal Herriaren askatasunaren aldeko mugimenduak azkenengo herrialde horien abiaduran ibili behar duenik, baina ez gero gugana istorioak kondatzen etor, gauzak behar diren legez ateratzen ez badira.

2. Hauteskundeez entzun ditudanek beste arazo bik bezainbeste asaldatzen naute: diputazioetako gobernuak eta presoen egoera. Lehenengoa orain gutxirarteko dogma bat izan da: orain erabiltzen den argudio zentzuzkoaren kontra, h.d., diputazioak udaletatik, eta herritarrengandik beraz, sorturiko gobernuak zirelako egiaren kontra, ez zen diputazioetako gobernuetan parte hartu behar. Debaldean zen orain esaten dena hamaikak hamaiketan errepikatu izana, hots, diputazioak udalen gainean eraikitako egiturak direla, eta beraz ez daukatela zerikusirik Espainiar Estatuko egiturekin. Jakintsu batzuk erabakita zeukaten hori sistemarekin kolaboratzea zela eta kitto, ez zegoen zer eztabaida.

> *Lehenengo argudioa gure ama zenari entzundakoa da: «abertzaleok ematen ez dugun boz bakoitza inperialismoaren alde emandako boza da»*

Presoen gaian ere antzeko bat gertatzen da. Esanak esan arren, eta gaia zoritxarrez nahikoa gertutik dazagudala daukat eritzi, oraindik ez naiz gauza izan ulertzeko, zergatik presoek bete behar duten agindu moralik zorrotzena ez duten betetzen: edozein modutan espetxeetatik ihes egitea, esate baterako, *Francoren Mugimendu Nazionalaren Hatsarreei* muin eginez, edota guztiz damututa daudela mila bider segurtatuz eta izenpetuz. Ezin dut burutik zentzazioa kendu, legepertsona zorrotz bezain zoli batzuk osterantzekoa erabakita daukatelako dela, eta presoen sufrimenduak eta sakrifizioak zalantzarik gabe errenta askotxo ekarriko diola Euskal Herriaren askatasunaren aldeko burrukari, baina zenbat ordainduta? Badaukagu eskubiderik hemen hain eroso eta trankil bizi garenok horrelako gutxi batzuengadik hainbeste eskatzeko? Adibidez, hogeita bat urte ez dakit zein duintasunaren izenean presondegian egon daitezen eskatzeko, edo egunotan bezala Daniel Dergik bezala bere bizitzari uko egiteko?

> *Lotsagarria deritzot honelako pitokerietan ostera ibili beharrari, hots duela hogei urteko eztabaida antzuak behin eta berriro pizteari*

3. Eta inork zalantzarik bazeukan ikusi duke egunotan alderdi politiko espainiarrek eta enparauek zer egiteko gauza diren; ahaztu gabe horregatio frantsesen jokabide superdemokrata eta bakezalea, hala nola, Levert andre epaile ultrajustuaren eta frantses Hezkuntzaren jokabide ezinago zuzenaren jokamolde euskaltzalearekin.

Oraindik ba bide dago jende abertzalea kexa eta lanturuka ibiltzen dena nahasten dituztelako, beraiek ez baitira euskaldun txar eta basati horiek bezalakoak, beraiek demokratak direlako eta bortxarik erabiltzeko prest ez daudelako. Ez dio ardura. Espainiar eta frantses demokratak prest baitaude daukaten estatu demokratikoaren bortxa erabiltzeko, guk nonbait ontzat jo behar dugun bortxa eta indarkeria, *Gesto por la paz*-ekoek egiten duten falazia bera eginez, alegia, erabat ezlegezkoa den estatu baten bortxa ontzat joz. Ala Espainiar eta Frantses Estatuak demokratikoki ezarri dira Euskal Herrian? Zertara dator, adibidez, EA eta EAJko batzuen ok egiterainoko etengabe beren burua zuzeneste hori, demokrazia dela eta ez dela, eta *El País*-ko antiabertzale famatu batek (Praderatarren geneak, antza, indartsuak dira oso) asmaturiko banaketa faltsuari eusteko gogoa, hots, alderdi demokrata eta ezdemokraten artekoari? Noizdanik dira demokratago bortxaren ezarleak, 1936ko gerraren garaileak, bortxa horren erauzleak baino?

Horregatik deritzet hain argigarri aspaldi honetan Jose Azurmendik idatzitako lanei: indarra eta garaipenaren morala oroz lehen erabiltzen duten estatuen aurrean, absurdua da geure ekintza politiko-sozialak gizabanakoen arteko moral eta etika kristauaz zuzendu gura izatea. Moral eta etika hori ez dira ezelan ere alde batera uztekoak, baina ez da nork bere burua defendatzeko daukan betebehar natural eta funtsezkoena ere. Hemen erabil daitezkeen argudioak politikoak eta taktiko-estrategikoak dira, eta aspaldi honetan López Adanek, *Beltza*-k, edo Xabier Kintanak formulatu dutenari jarraiki, bada ordua Irlandan eta Palestinan egin dutenez, militarren logika militarrekin bakarrik erabiltzeko, eta hain modu traketsean arerioaren segadetan ez jausteko. Zelan eman dakioke halako erregalurik Espainiako barneministroari?

Ba ote dauka inork zalantzarik egunotakoa ikusita, bestalde, absurdua dela kaleburrukarekin segitzea? Edo bostehun urtez jaun eta jabe izan eta gero, galdu duten apurraren aurrean Euskal Herriko espainiar nazionalistak guztiz asaldatuta daudela, eta haien kontrako jokabiderik egokiena abertzaleen batasuna dela? Euskal Herria izan baden herria delarik, Imanol Lartzabalek zioen bezala, jakin gurako nuke zertan eta zelan dauden espainiarrak eta espainiarzaleak Euskal Herrian zapalduta eta baztertuta.

hirusta...

XABIER ALDAY

Aro Modernoak

PPk Espainiako Gobernua egin zuenean, guztiguztia berritu behar zuelako, etxebizitzei buruzko Plan Orokorra hitzeman zuen, non besteak beste, ataletako bat Babes Ofizialeko etxebizitzei buruzkoa izango zen. Gai honetan, gobernu sozialistak interestasa baxuagoak eskaini zuen babes ofizialeko etxebizitza bat erosi nahi zuten errenta-baxuko populuari. Hipoteka-kreditoak %12an bazeuden adibidez, diru-sarrerei zegokionez hainbat baldintza betetzen zituztenek, %6,5ean erdiesten zituzten. Gero ordea, sozialisten araudia luzatu zuten. Bitartean, gastu-sozialak murriztuz, Europan erakusteko emaitza ekonomiko erakargarriak lortzeari ekin zioten. Interes-tipoak behera jo zuten, 91-95 legealdiko %14tik %2,5eraino. Eta hona hemen, non gobernuaren ezinbesteko laguntzaz, diru gutxien zutenek bilakatu ziren etxe bat erosteko krediturik garestienak ordaintzen zituztenak.

1996-1998ra bitartean estatuko gobernuari ez zion denborarik eman hiru urte lehenago ia-ia amaitzear zuen erreforma bukatzeko, eta iazko urte guztia aurrekanpainan eman dutenez, ezin da landu gero agian etekinik aterako ez dioten zerbait; horra zergatik ez duten ezer egin. Ni ere ados nago horrek ez duela Jaurlaritza zuritzen, etxebizitzen kostuaren %50 lurzorua dela zioen, materialak eta langileak %10-%15 inguruan dabiltzalarik. Bigarren albisteak, lehenak eragindako galdera gehienak azaltzen zituen. Lan-istripuen laurdena baino gehiago, eraikuntzan gertatzen omen dira. Aurten dagoeneko 14 hildako izan dira.

Geratu gabe ari dira etxeak eraikitzen nonahi. Gutxi geratuko dira hutsik antza.

Atentatua Gasteizen

PSE-EE-KO BURUZAGIA OINEZ ATERA ZEN ETXETIK BAZKALOSTEAN, ETA HANDIK BERREHUN METRORA HIL ZUTEN

Buesa eta haren bizkartzaina hil ditu ETAk Gasteizen, bonba-auto bat jarrita

- Arratsaldeko laurak eta berrogei minututan egin zuen eztanda bonba-autoak, Agirre Miramon kalean
- Jorge Diez Elorza gasteiztarra XIII. promozioko ertzaina zen, eta bizkartzaina pasa den urriaz geroztik.
- Buesak arratsaldero oinez egiten zuen etxetik egoitzarainoko bidea eta ez zuen segurtasun neurri berezirik hartzen.

Erredakzioa / **Gasteiz**

ARRATSALDEKO laurak eta berrogei minututan hil zituzten Fernando Buesa PSE-EEko Arabako idazkari nagusia eta Jorge Diez Elorza, haren bizkarzaina.

Etxetik alderdiko egoitzaraino oinez egiten zuen ibilaldia, egunero, eta ez zuen segurtasun neurri berezirik hartzeko ohiturarik, Buesa ezagutzen zutenek jakinarazi zutenez.

Ustez ETAk bonba-autoa jarri zuen Nieves Cano eta Agire Miramon kaleko bidegurutzean, eta Buesa ondotik pasa zenean eztandarazi zuen. Ertzaintzako iturriek adierazi dutenez, berrehun bat metrora izango ziren autoa eztandarazi zutenak.

Zartakoa Gasteizko erdigunean ere entzun zen. Lehendakaritzatik ere bai. Handik gertu dago, eta Josu Jon Imaz bozeramailea astearteroko prentsaurrekoa ematen ari zen. Bertan behera geratu zen Imazen hitzaldia, eta kazetariak atentatuaren lekura abiatu ziren.

Iritsi zirenean autoak erretzen ikusi zuten. Buesaren gorpua errepidearen erdian zegoen, eta bizkartzainarena- 27 urteko gasteiztarra, XIII. promozioko ertzaina eta Erne sindikatuan afiliatuta- handik berrogeita hamar bat metrora. Ertzaintzak berehala moztu zuen errepidea.



MIREN SAEZ

Fernando Buesaren gorpua, atentatua gertatu zen lekuan.





DAVID AGUILAR / EFE

Ertzainak atentatua gertatu lekua arakatzen.

Duela urtebete lapurtu zuten autoa

Unibertsitateak dauden lekuan izan zen atentatua. Auto-bonba jarri zuten lekutik gertu -berrogei metrorabi institutu daude. Klasea ematen ari ziren zartakoa izen zenan. Federico Baraibar eta Ramiro de Maeztu institutuetako kristalak hautsi ziren. Ikasleek gelak utzi zituzten berehala.

Injeneritza eskolati k gertu dago, halaber, atentatuaren lekua. Goizean biolentziaren aurkako mobilizazioa egin zuten, Unibertsitateko zuzendariak mehatxuak izan dituelako. Parean presoen aldeko ohiuak eginez ehun bat ikasle izan bildu ziren.

Atentatua egiteko autoa duela urtebete inguru lapurtu zuten, Ertzaintzako iturriek jakinarazi dutenez. Ikerketako iturriek adierazi dutenez, ETA-ren su-etena indarrean zegoela lapurtu zuten Renault Express autoa,. Aipatu iturriek jakinarazi dute kolore zuriko autoa zela.

Autoaren barruan 20 kilo lehergai jarri zuten atentatuaren egileek. Radiomandoarekin baliatu ziren atentatua egiteko. Herrizaingo Sailak jakinarazi du ETAk Madrilen egin zuen azken atentatuarekin parekotasun handia duela atzo Gasteizen

Atentatua Gasteizen

Auto-bonba

Hogei kilo lehergai zituen bonba-autoak, eta autoa duela urtebete inguru lapurtu zuten, suetena indarrean zela

egindakoak. ETAk Pedro Antonio Blanco teniente koronela hil zuen pasa den urtarrilaren 21ean, eta hogei kilo lehergai erabili zituen auto baten ezkutatuta.

Javier Rojo, lehena agertzen

PPko hainbat politikari izan ziren lehenak atentatuaren lekura iristen. Carmelo Barrio eta Carlos Urjiko lehenak. Oraindik ez zegoen garbi zeintzuk ziren hildakoak, nahiz eta lehen zurrumurruek zioten Buesa eta bizkarzaina izango zirela.

Arratsaldeko bostak eta hamar minututan Javier Rojo Araban PSE-EEko idazkariorde nagusia iritsi zen. Alabarekin batera etorri zen, eta ez zuen ezer aurreratu nahi izan. Oraindik ez zekien Buesa zela lurrean etzanda zegoena.

Atentatuaren lekura iritsi bezain pronto jakin zuen. Lehen malkoak isuri zituen, eta beste guztiok jakin genuen Buesa zela hildako bat.

Kazetariekin hitz egiteko ausardia atera zuen Rojok. Bere etsipena azaldu zuen, eta handik aurrera politikarien elkartasuna jaso zuen. PPkoena lehendabizi, Iñaki Gerenabarrena Jaurlaritzako Nakazaritza sailburuarena gero -bertan zegoen EAJko kidea-, eta alderdiko beste zenbait kideena gero. Rojo Buesarekin elkarlanean aritu izan da orpoz orpo urte askotan.

Ertzaintzako artezilariek atentatuaren aztarnak aztertu zituzten arratsalde osoan. Hurbildutakei alde egiteko eskatu zieten, eta laster hurbildu ziren Buesaren lankideak eta lagunak, UGT eta CC.OO sindikatukoak, IUko kideak eta Jaurlaritzakoak.

soslaia

FERNANDO BUESA • *PSE-EEko Arabako idazkari nagusia*

Sozialisten betiko ikurra

Fernando Buesarekin EAEko politikari distiratsuenetariko bat desagertu da. Alderdiko bozeramailea zen Gasteizko Legebiltzarrean eta Arabako Batzar Nagusietan, eta mintzatokia abertzaleen politika kritikatzeko erabiltzen zuen gehienbat. Azken aldian batez ere, abertzaleen ekinbide bataratuaren aurkako militante sutsua baitzen.

Azken hitzaldia pasa den ostiralean egin zuen Legebiltzarrean. Bozketak galtzera ohituta zegoen Buesa, eta, behingoz, abertzaleei irabaztea lortu zuen. Txaloekin hartu zuten bozketaren emaitza. Lehen aldiz legealdi honetan, Jaurlaritzako alderdiek ez zuten lortu oposizioko alderdi baten proposamena atzera botatzea. Buesaren azken garaipena izan zen.

Buesa gogorra izan zen abertzaleekin. Esan zuen EAJk eta EAk ez dutela ezer egiten kale biolentziarekin amaitzeko, eta Xabier Balza Herrizaingo sailburuari egotzi zion borondaterik ez izatea kale istiluekin bukatzeko.

Bilbon jaio zen 1946ko maiatzaren 29an, baina Araban bete du behar politikoa. Arabako foru diputatua izan zen 1979-83 bitartean, eta 1987an Ahaldun Nagusi izendatu zuten EAJrekin egindako aliantzari esker. Gasteizko Udaleko zinegotzia ere izan zen 1983tik 1897 bitartean.

Alderdi jeltzalearekin egindako koalizioari esker lehendakariorde izan zen. 1991. urtean Jose Antonio Ardanza lehendakariak eman zion kargu hori, eta, gainera, Hezkuntza sailburua izan zen.

Hezkuntza sailburu gisa ez zuen predikamentu onik izan euskalzaleon artean. Kritika ugari egin zizkioten leku guztietatik euskarari baino garrantzi gehiago eman ei zielako beste hizkuntzei. Sozialisten ustetan, haatik, norbaitek egin badu euskararen eta integrazioaren alde, hori Buesa izan da.

Hiru seme-alaba eta alarguna utzi ditu Buesak. Zuzenbidean lizentziatua zen, baina politikagintzari eskaini dizkio bere ezaguerak. Erakundeetako karguez gain, alderdiaren barruan pisu handiko militantea zen Buesa. Arabako sozialisten idazkari nagusia zen eta PSE-EEko batzorde eragileko kidea eta PSOEko Batzorde Federalekoa.

Araban ez dio inork bere zuzendaritza zalantzan jarri. Alderdiak igaro zituen une zailenetan ere, Buesak ez zuen oztoporik izan alderdia zuzentzeko. Javier Rojo idazkariorde nagusiarekin batera, urteak joan urteak etorri, alderdiaren goi-goian izan da, nahiz eta batzuetan PSE-EEko korronte nagusia beste bat zela ematen zuen.

PSE-EEk egin zuen azkenengo Batzar Nagusia da horren lekuko. Nicolas Redondok gipuzkoarrekin egin zuen aliantza kargua lortzeko. PSE-EE-ren barruan zegoen korronte euskaldunagoarekin bat egin zuen Redondok, eta Buesaren eta Rosa Diezen laguntza baztertu zuen. Une batez batzorde eragiletik at geratzeko arriskuan izan zen, baina Arabako militanteei esker batzorde eragileko kargua ez galtzea erdietsi zuen.

Buesaren lidergoa kritikatu zutenez, bestalde, ez zuten emaitzik lortu; izan ere, Arabako Batzarretan ez zuten inoiz kargurik hartzea lortu.

Ezagutzen dutenen arabera, politikagintzan sozial-demokraziaren esparruan egin zituen lehen urratsak. Trantzizioan, hala ere, alderdi sozialista aukeratu zuen karrera politikoa egiteko.

Ezkerraren eta eskuinaren arteko bereizketa bere hitzaldien bigarren ezaugarria izan da, lehena abertzaleetik bereiztea izan den bezala.

Sozialisten eta popularren arteko ezberdintasunak lausotu diren Araba honetan, ezberdintasuna non zegoen azpimarratzea gustatzen zitzaion. Izan ere, berak asmatu zuen Araban PPrekin egin beharreko politika. Bi ezaugarri zituen politika horrek: boterea PPri eman EAJ zigortzeko; eta erakundeen lidergoa PPri emanda, ezinezkoa egin haien gaitasuna erakundeak gobernatzeko.

Ekaineko hauteskundeen ondoren praktikara eraman zuen politika hori. Horregatik gobernatzen dute Alfonso Alonsok Udalean eta Ramon Rabanerak Diputazioan. Baina biei ukatu egin die laguntza aurrekontuak eta arau garrantzitsuak aurrera ateratzeko. Politika horrekin agerian utzi nahi zuen PPk ez dakiela gobernatzen. Martxoko hauteskunde kanpaina abian jarri zuen Buesak pasa den ekainean. Ezingo du ikusi, ordea, asmatu zuen kanpaina horren emaitza.

Felix Iriarte



JOSEBA OLALDE

Buesa azken plenoan. Joan den ostiralean izan zen Eusko Legebiltzarrean azken plenoa eta bertan parte hartu zuen Buesak.

JOSEBA OLALDE

Araban akordioa PPrekin. Arabako PSE-EEk Ramon Rabanera ahaldun Nagusia izatea ahalbidetu zuen bien artean lortu akordioa zela medio. Argazkian Fernando Buesa Ramon Rabanerarekin batera.



MIREN SAEZ

Eusko Legebiltzarrean bozeramaile lanetan. Fernando Buesak aspalditik Eusko Legebiltzarreko PSE-EEko taldearen bozeramaile lana egin izan du.

Atentatua Gasteizen PSOEren erreakzioak

Joaquin Almunia: «Atentatuen aurrean konpromiso tinkoagoak hartu behar dira»

«Atentatuek, beldurra eragin ordez, borroka indartu behar dute», haren ustez

Agentziak / **Tenerife**

Joaquin Almunia PSOEko idazkari nagusia deialdia egin zien Espainiako herritarrei, ETAren atentatuen aurrean, «borroka tinkotzeko eta ez beldurtzeko». Atentatu honek justifikaziorik ez duela gaineratu zuen Almuniak, eta une gogorretan «konpromiso tinkoagoak» hartu beharra aldarrikatu zuen, «doluminak alde batera utzita. Manuel Chavesek «Lizarra-Garazin egotea merezi duenetz» gogoeta egiteko eskatu zion EAJri.

DAVID AGUILAR / EFE

Javier Rojo eta Jose Maria Benegas PSOEko kideak, atzo, Gasteizen emandako prentsaurrekoan.

TENERIFEtik egin zituen adierazpenak Joaquin Almunia PSOEko idazkari nagusiak, Fernando Buesaren heriotza ezagutu eta berehala. Mezu bat igorri zien Espainiako herritarrei: «ETAren erailketek ez gaituzte beldurtu behar; terroristen aurkako borroka indartzea ekarri behar dute, legearen eta demokraziaren armak erabiliz». Almuniaren aburuz, «konpromiso tinkoagoak hartu behar dira une gogorretan, doluminak alde batera utzita». Une gogorrak izan arren, «ideia demokratikoen eta bakearen» aldeko lana indartzeko ordua dela gaineratu zuen.

Atentatu guztiak «alferrikakoak» direla adierazi zuen, baina are gehiago «lagun batena bada, maila politiko handiko pertsona batena, askatasunaren alde lan egin duen pertsona batena». Horrela, askatasuna eta demokraziaren defentsan borroka egitera deitu zuen Joaquin Almuniak, «justifikaziorik ez duen indarkeria hiltzaile honekin amaitzeko».

Beste hainbat politikari sozialistak ere adierazpenak egin zituzten Buesaren heriotzaren aurrean. Ramon Jauregik «balio handiko pertsona eta sozialista eredugarria» zela esan zuen, eta «minak jota» zegoela gaineratu. Juan Manuel Egiagarai PSOEko ekonomia gaietarako bozeramaileak atentatua «amorruz eta haserrez» hartu zuela esan zuen. Teresa Fernandez de la Vegak, Kongresuko PSOEko idazkariak, «basakeria terrorista» salatu zuen, eta «hainbat basati» bakea eta askatasuna eragozten saiatzen ari direla gaineratu zuen.

Manuel Chaves Andaluziako presidenteak «Lizarra-Garazin jarraitzea merezi duenetz» gogoeta egiteko eskatu zion EAJ alderdiari. Eta, «behingoz», EHrekin puskatzeko unea dela esan zien nazionalistei. Bestalde, alderdi politikoei Ajuria-Eneko Mahaia berriro biltzeko eskatu zien. Enrique Baron Crespoeuroparlamentario sozialistak Buesa beti indarkeriaren aurkako borrokan «lehen mailan» egoten zela azpimarratu zuen.

erreakzioak

- **Joaquin Almunia** (PSOEko idazkaria nagusia): «Ideia demokratikoen eta bakearen aldeko lana indartzeko ordua da».
- **Ramon Jauregi** (PSOEko Arabako hautagaia): «Balio handiko pertsona zen, sozialista eredugarria».
- **Manuel Chaves** (Andaluziako presidentea): «Lizarra-Garazin egotea merezi duenetz gogoeta egin beharko du EAJk»
- **Teresa Fernandez de la Vega**(Kongresuan PSOEko idazkaria): «Hainbat basati bakea eta askatasuna eragozten saiatzen ari dira».

Kanpaina ekitaldi asko, bertan behera

Erredakzioa / **Donostia**

Espainiako hauteskunde orokorretarako ekitaldi ugari bertan behera uztea erabaki dute alderdi politikoek. PSOEk atzo eta gaurko aurreikusita zituen ekitaldi guztiak bertan behera utzi zituen, eta hala egin zuen IUk ere. Jose Maria Aznar PPko buruzagiak ere ez zuen egin atzo Lugon (Galizia) egitekoa zuen mitina.

EAJk eta EAk bertan behera utzi dituzte hauteskunde kanpainaren hasiera dela-eta aurreikusita zituzten ekitaldi nagusiak. Besteak beste, kanpainaren hasierarako osteguneko antolatua zituzten afariak alde batera uztea erabaki dute.

Javier Rojo • PSE-EEko Arabako idazkari nagusiordea

«Deseginda gaude»

Javier Rojo PSE-EEko Arabako idazkari nagusiordea izan zen atentatua gertatu zen lekura hurbildu zen lehen alderdikidea. Fernando Buesa hiletako bat zela baieztatu zenean, Rojok, oso hunkiturik, «deseginda» zeudela adierazi zuen. Eskuak burura eraman zituen, eta negarrez hasi zen. Ondoren, hauxe gehitu zuen: «Zer esango dut? Deseginda gaude. Ezin dut hitz egin».

Euskadiko Gazteria Sozialistak •

«Min hitzak besterik ez daude»

Euskadiko Gazteria Sozialistek gogor gaitzetsi zuten Fernango Buesa eta bere bizkartzain Jorge Diez hil zituen atentatua. Prentsa ohar batean salatu zuten «mafia» batek hil dituela Buesa eta Diez, eta gaineratu: «Ez dakigu zer eskubidetan oinarrituta, gizakien bizitza kentzeko ahalmena hartzen du bere gain». Gazteek azaldu zuten «oroitzapen gogoangarriak» gordeko dituztela «beti lagun eta adiskide izan dugun Fernandorentzat».

Manuel Huertas • PSE-EEko Gipuzkoako idazkari nagusia

«Izugarrizko galera da alderdiarentzat»

Manuel Huertasek oso hitz gogorrak izan zituen atentatua egin dutenen kontra. «Gorrotoak eta basakeriak ez du mugarik jende horrengan». Huertasek gaineratu zuenez, «hori da, itxura denez, bide politiko eta demokratikoen alde egiten duten apustua». Huertasek adierazi zuenez, Buesarena «galera izugarria» izango da PSOErentzat.

Juan Jose Lizarbe • PSNko idazkari nagusia

«Demokratok irabaziko dugu»

Juan Jose Lizarbe PSNko idazkari nagusiak esan zuenez, «mundu guztiak jakin behar du demokraziaren eta askatasunaren aldeko guda demokratok irabaziko dugula». Atentatuaren egileei «kabroi eta lotsagabe» deitu zien.

Atentatua Gasteizen ◆ EAEko lehendakariaren adierazpena

Jaurlaritzak hautsi egin du EHrekiko lankidetza ituna

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak atentatuaren ostean adierazpen instituzionala kaleratu zuen eta bertan EHrekin legegintzaldi akordioa apurtutzat eman zuen. Hona hemen adierazpena hitzez hitz:

MIREN SAEZ

Ibarretxe lehendakaria sailburuek lagunduta egon zen atzoko agerraldian.

1- Eusko Jaurlaritzaren izenean gogor gaitsetzi nahi dut ETAk gaur egin duen atentatua. Bertan bi errugabe hil dituelako. Bata, Fernando Buesa Blanco jauna, euskal herritarren ordezkaria, eta bestea Jorge Diez Elorza ertzaina.

Berriz ere, ETAk giza-eskubiderik oinarrizkoena urratu du: bizitzeko eskubidea, alegia. Berriz ere, Eusko Jaurlaritzak, euskal gizartearen ordezkari gisa, elkartasun osoa adierazi nahi die bi hildakoen senideei, alderdi sozialistari eta Ertzaintzari. Une latz hauetan sentitzen duten mina, sufrimendua eta etsipena bere egiten ditu Gobernuak. Bihotz-bihotzez, gure dolumina eta euskal herritar guztien adorea eta maitasuna helarazi nahi dizkiegu.

2- Une honetan egindako erailketarengatik ETA gaitzesteko hitzek sendotasun eta egokitasun guztia dute, askotan errepikatuak izan diren arren. Herri hau ez baita inoiz indarkeriarekin bizitzen ohituko. Ez ditu inoiz eta batere murriztuko bere historia osoan defendatu dituen baldintza etiko eta moralak. Berriz esango dut: ez dugu inoiz onartuko gure semealaben etorkizuna indarkeria, beldurra edo sentsibilitate faltaren gainean eraikitzea, pertsona guztien giza-eskubideak urratzen direnean. Bakea eta bizikidetza eraikitzeko oinarriak indarkeri ezaren kultura, demokrazia eta justizia dira.

3- Euskal gizarteak biziki nahi du bakea lortzea, eta hala adierazi du askotan. Ez gaude prest eta ez dugu onartuko, beraz, ezer egin gabe indarkeriaren erabileraren alde daudenek gu berriro sartzea iraganean sufritu ditugun hilketa, min eta sufrimenduaren gurpil ikaragarrian.

4- Jaurlaritzaren ustez, Euskal Herritarrok koalizioarekin izenpetu zuen lankidetza hitzarmena aktibo bat izan zen normalizazio politiko eta sozialerako prozesuan. Orduan lehenbiziko aldiz, euskal alderdi politiko guztiek bakarrik bide politiko eta demokratikoen aldeko konpromisoa zutelako.

5- Akordio horren oinarriek izenpetu zutenei zera exijitzen zien: ETAren atentatuak gaitzestea eta gizarteak sufritzen dituen indarkeria ekintzak gaitzesteko jarrera argi bat izatea. Hori da Eusko Jaurlaritzak Euskal Herritarrok taldeari publikoki eskatu ziona, eta, bakeari beste aukera bat emateko asmoz, lankidetza akordioa indarrik gabe utzi zuen. Zoritxarrez, euskal gizarteak ezin izan du egiaztatu ETAren estrategia argi eta garbi gaitzesteko adierazpen hori. Ondorioz, Eusko Jaurlaritzak Euskal Herritarrok taldearekin izenpetu zuen lankidetza akordioa formalki eten du gaur, ondorio guztietarako.

6- Lehendakariak egunero lanean jarraituko du bakea lortzeko elkarrizketa eta hitza defendatzen dutenekin batera. Zailtasunak egon arren, euskal gizartearen bihotzean piztu den itxaropenaren garra bizirik eutsi behar dugu. Inork ez digu kenduko, bakea lortuko dugula uste dugunok bakarrik izango baikara hura aurkitzeko gauza.

7- Eusko Jaurlaritzak hiru eguneko dolu ofiziala ezarri du, eta keinu horren bidez, euskal gizartearen izenean, gure dolumina adierazi nahi diegu Fernando Buesa Blanco jauna eta Jorge Diez Elorza jaunaren senide eta adiskideei; giza, etika eta moralaren ikuspuntutik inolako justifikaziorik ez duen bidegabekeria honen aurrean, hilketaren bidez haien pertsona maiteak ondotik eroan dituztelako.

8- Orain inoiz baino gehiago, ETAri argi eta garbi esan behar zaio hori ez dela bidea, ez duela lekurik gure gizartean, Euskal Herriaren borondatea behin betiko errespeta dezala eta armak utz ditzala.

9- Euskal herritarrei dei egiten diegu datorren larunbatean, otsailaren 26a, Gasteizen arratsaldeko 17:00etatik aurrera egingo den manifestaldian parte hartzera, *Bakea behar dugu. Bizitzari begirunea. ETA gelditu* lelopean.

10- Lehendakari gisa eta Euskal Herriaren izenean, atentatu hau gaitzetsi eta hiltzen uztea exijitzen diot ETAri, sendotasun osoz. Gaur, inoiz baino gehiago, lasaitasun mezu bat helarazi behar diogu euskal gizarteari, itxaropena gal ez dezan. Bakean bizitzeko konfiantza badugu, lortuko dugu.

Mobilizazio deialdia

Eusko Jaurlaritzak manifestaziora deitu du, larunbat arratsaldeko 17:00etan Gasteizen, *Bakea behar dugu. Bizitzari begirunea. ETA gelditu* lelopean

erreakzioak

Jose Maria Setien-Juan Maria Uriarte • Donostiako gotzainak

«Hilketa honek bizitza demokratikoari sekulako kolpea ematen dio eta gizarteari morala kendu»

Jose Maria Setienek eta Juan Maria Uriartek —Donostiako gotzain ohiak eta egun gotzain denak— bat egin zuten euren adierazpenetan Fernando Buesaren hilketa salatzeko. Hilketa honek «bizitza demokratikoari sekulako kolpea» ematen diola adierazi zuten biek, «gizarte osoari morala kentzen dioten bitartean, hainbeste desiatutako bakea eragozten duelako». Gasteizen izandako atentatua gaitzetsi zuten bi gotzainek, «ez hiltzeko printzipioa errotik bortxatzen duelako». Jose Maria Setienen eta Juan Maria Uriarteren aburuz, atentatuak «herriko instituzioei eraso egiten die, haren ordezkariak hiltzen dituelako». Hala ere, «atentatuok gaitzesten dituzten eta demokraziaren defentsa egiten duten» herritarrengan oraindik «itxaropena» geratzen dela gaineratu zuten.

Jon Buesa • Fernando Buesaren anaia

«Bere ideiak defendatzeagatik hil dute nire anaia»

Jon Buesak, Fernando Buesaren anaia eta EAJko ABBko kideak, adierazi zuen Fernando Buesak ez zuela batere beldurrik sentitzen. Hala, Jon Buesaren ustez, «bere ideiak defendatzeagatik hil dute». Gainera, deialda egin zion ETAri Euskal Herrian zabaldu den prozesua «ez babesteko» eta borroka armatua alde batera uzteko. «Mesede egin nahi badiote Euskal Herriari, bakean utz gaitzatela, utz diezaiotela hiltzeari, eta borroka egin dezatela hitzarekin soilik». Ausardia eskatu zion ETAri Jon Buesak, behingoz borroka armatua alde batera uzteko. Bestalde, «frustrazioa» sentitzen duela adierazi zuen Buesak, «ideiekin borrokatu behar delako, ez borroka armatuarekin».

Atentatua Gasteizen Erreakzioak

Alderdien samintasuna eta gaitzespenak

Buesaren eta ertzainaren familiekin bat egin dute buruzagi politikoek

Erredakzioa / **Donostia**

Atentatua gertatu orduko hasi ziren alderdien erreakzioak. Euskal Herrian ordezkaritza duten alderdiek gaitzespena eta samina kaleratu zituzten Buesaren eta haren bizkarzainaren hilketagatik. Herritarrek aukeratutako ordezkaria zela nabarmendu zuten buruzagi politikoek eta hildakoen familiei euren dolumina azaldu zieten.

EAJ-KO EBBak Fernando Buesa eta Jorge Diez ertzainaren hilketaz hitz egitean «horrorea aipatzen du». Buegun legebiltzarkidea zela oroitarazteaz gain, EAEko lehendakariordea, Hezkuntza sailburua eta Arabako ahaldun nagusia ere izan zela azaldu zuen. «Horregatik basakeria bikoitza da: bere kontra eginikoa batetik, eta botoaren bitartez bere ordezkari gisa hautatu zuten arabarren kontrakoa bestetik».

Napar Buru Batzarrak ere gaitzetsi zuen atentatua. Giza eskubideekiko eta instituzioekiko errespetu eza dela nabarmendu zuen Jose Antonio Urbiolak. Araba Buru Batzarra ere beretsu mintzatu zen.

Eusko Alkartasunak lehenik eta behin gizakien eskubideei errespeturik ez izatea aipatu zuen, eta baita herritarren borondatearen errespetu eza. Euskal Herrian bakea eta normalizazioaren alde egiten ari diren esfortzurako kolpe handia izan dela dio. Jaurlaritzak norabide politikoaren oinarriak argi jarriko dituen itxaropena azaldu zuen EAk. «Gizarteak eskatzen duena da indarkeria behin betiko baztertzea, eta baita haren inguruko jarrera tolerante eta anbiguoak». Rafa Larreina idazkariordе nagusiak esan zuen: «Lanean jarraitu beharra berresten du gertatutakoak, hau guztia amaitu eta indarkeria iraganeko zati bat izan dadin».

Carlos Iturgaitz EAEko PPko presidenteak hitz gogorrak egin zituen atentatuaren ostean: «ETAko lotsagabeek bizi izan dugun horrorera itzularazi gaituzte». Bat egiteko deia egin zuen Iturgaitzek eta HBri babesa eman diotenak bidea ez dela hori konturatu eta atzera egingo duteneko itxaropena azaldu zuen. Buesa laguna zuela adierazi ostean minduta agertu zen. Carmelo Barriok «demokraziarako egun ikaragarria» izan zela azaldu zuen.

Nafarroako IUren iritziz, ETAk sistema demokratikoari ematen dion erantzuna da atzoko atentatua. Mobilizaziorako deia egiteaz gain datozen hauteskundeetan lan egiteko deia egin zuen. «Egin dakiokeen oparirik hoberena datozen hauteskundeetan parte hartzea da, Buesa asko poztuko litzateke» azaldu zuen Felix Taberna koordinatzaileak.

Jaiver Madrazo EB-IUko koordinatzaileak herriaren borondatearen eta demokraziaren kontrako erasotzat jo zuen atentatua. «ETAk herritarren ahotsa entzun behar du eta denborarik galdu gabe eskenatoki politikotik desagertu». Inpotentzia handia sentitzen zuela azaldu zuen EB-IUko kideak.

CDN oinazea eta sumindura azaldu zuen. «Euren herriarekin konpromisoa zuten bi pertsonaren heriotza injustua da» zioen CDNren

erreakzioak

- **EBB** (EAJ):«Basakeria bikoitza da: batetik bere kontrakoa, eta bestetik botoaren bitartez ordezkari gisa hautatu zuten arabarren kontrakoa»
- **Rafa Larreina** (EA):«Lanean jarraitu beharra berresten du gertatutakoak, hau guztia amaitu eta indarkeria iraganeko gauza izan dadin»
- **Carlos Iturgaitz** (PP):«Bat eginik egon behar dugu, indarra izan, eta HBri eta ETAri babesa eman diotenak konturatu daitezela hori ez dela bidea»
- **Felix Taberna** (IU):«Egin dakiokeen oparirik hoberena datozen hauteskundeetan parte hartzea da, Buesa asko poztuko litzateke parte hartza handia balitz»
- **Juan Cruz Alli** (CDN):«Krimen guztiak dira berdinak, baina herritarren ordezkari baten hilketa izateak dimentsioa aldatzen du, sistema demokratikoaren kontrako atentatua baita gertatutakoa»
- **Pablo Mosquera** (UA):«Honek ezin du horrela jarraitu. Norbaitek gelditu behar du, eta autoritateek gelditzen ez badute herriak gelditukо du»

Confebask •

«Erakundeek eta politikoek batasuna izan behar dute»

«Indarkeriazko arrazoigabekeriaren xede bakarra gure gizarte asaldatuari samin eta heriotz gehiago eragitea da, eta horren azken agerpide hau sakonki deitoratu nahi dugu. Fernando Buesa sozialistak eta haren bizkarzainak jasandako atentatuaren aurrean, batasuna eskatu nahi diegu erakundeei eta politikoei».

ELA •

«Arduradun politiko baten hilketa, are larriagoa da»

«ELA sindikatuak bere gaitzespena, nahigabea eta amorrua eman nahi du ezagutzera Fernando Buesaren eta Jorge Diezen erailketaren aurrean. Arabarrek urteetan zehar haiek ordezkatzeko aukeratutako arduradun politiko baten erailketak ETAren krimenetik haruntzago doan larritasun eta dimentsio bat hartzen du».

UGT •

«Alderdi politikoek hausnartu beharra daukate»

«Gure kide Fernando Buesa eta Jorge Diez ertzainaren erailketa sakonki gaitzesteaz gain, alderdi politikoei hausnarketarako deia egin gura diegu, nahikoa baita gu engainatzeaz. Hiltzen ari den etsai komun bat daukagu guztiok eta horrek argi uzten du egungo zatiketa politikoak ez duela inolako zentzurik».

CCOO •

«Erakundeek mobilizazioen buru izan behar dute»

«Atentatua sakonki gaitzesteaz gain, indarkeriaren aurrean demokraton batasunaren ordua eta ETAri sobera dagoela esatekoa dela deritzogu, eta ez demokratak banatzen gaituzten fronteena. Erakundeek, eta Lehendakariak, egoera honek eskatzen duen neurriko erantzuna ematen jakin behar dute eta mobilizazioen buru izan».

STEE-EILAS •

«Atentatu honekin ETAk frustrazioa eragin du eta oztopo bihurtu da»

«Atentatua deitoratu eta gaitzesten dugu eta Eusko Legebiltzarreko kide baten aurkakoa izateak larritasun bikoitza ematen diola deritzogu. ETAk frustrazioa eragin du gizartean eta oztopo bihurtu da baketzerako eta euskal gatazkari irtenbidea emateko, Madril eta Parisko gobernuen joko itxi eta zekenari jarraituz».

Atentatua Gasteizen

Atentatua gaitzesteko eta ETAren kontra ehunka lagun kontzentratu ziren Gasteizen

Ibarretxeren dimisioa eskatu eta Arzalluzen eta HBren kontrako oihuak egin zituzten

Agentziak / **Gasteiz**

Fernando Buesaren eta Jorge Diez ertzainaren hilketak gaitzesteko lehenengo mobilizazioa atzo iluntzean egin zen Gasteizen. Ehunka lagun kontzentratu ziren Korreo plazan, buruan PSE-EEko buruzagiak zeudela. Ibarretxeren dimisioa eskatzen zuten oihuak egin zituzten, eta baita Arzalluzen eta HBren kontrakoak ere.

MIREN SAEZ

PSE-EEko Javier Rojo, Rosa Diez eta Jose Maria Benegas, atzo Gasteizko kontzentrazioan.

KONTZENTRAZIORA PSE-EEk deitu zuen, baina beste hainbat alderdi politikotako ordezkari eta Madrilgo zenbait agintari ere han izan ziren. Buruan PSE-EEko Nicolas Redondo Terreros, Rosa Diez, Javier Rojo, Luis Alberto Agiriano eta Ramon Jauregi zeuden, bakea zioten pankartatxoak zeramatzatela. Haien ondoan jarri ziren Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroa, Federico Trillo Kongresuko presidentea, eta Santiago Lopez Valdivielso Guardia Zibileko zuzendaria. EAJko Araba Buru Batzarreko presidente Jose Maria Gerenabarrena izan zen; UAko Pablo Mosquera; Confebaskeko Roman Knörr; Pello Salaburu EHUko jarduneko errektorea; eta Xabier Markiegi arartekoa.

Haiekin batera ehunka lagun bildu ziren, eta ETAren kontrako oihuak ez ezik ondorengoak ere egin zituzten: Non dira HBko fasistak?, Arzalluz non zaude?, Ibarretxe dimititu...

Kontzentrazioaren ondoren, 300 lagun inguru bildu ziren Lehendakaritzako atarian Ibarretxe lehendakariaren dimisioa eskatzeko.

Manifestaldia eta bilkura Iruñean

Nafarroako Bozeramaileen Mahaiak EHren abstentziarekin, atzo egin premiazko bilkuran bost puntuko gaitzespen idatzia onartu zuen, non «gogor» salatu zituen bi hilketak. Bestalde, gaur egitekoa den Parlamentuko plenoko gai bakarra «atentatuaren salaketa» izanen da, eta gero bertan behera geratuko da bilkura, 12:00etan kontzentrazioa egiteko Foru Erkidegoko Parlamenturaren egoitzaren aurrean. Larunbatean, berriz, arratsaldeko 17:00etan manifestazioa antolatu du Parlamentuak hilketak «deitoretu eta irmoki gaitzesteko».

Bestalde, herrialdeko Kontzeju eta Udalerrien Federazioak elagarretaratzeak deitu ditu gaurko Nafarroako herrietako plazetan.

Gasteizen ere Bozeramaileen Batzordea bildu zen atentatuaren kontrako idatzi bat prestatzeko, gaurko osoko bilkuran onartuko dena. Gainera, Fernando Buesaren hilkapera Legebiltzarreko egoitzan jartzea erabaki zuten atzoko bileran.

Aznar: «Adostasun politikoak ez dira bateragarriak hilketarekin edo haren justifikazioarekin»

Agentziak / **Madril**

«ERANTZUN garbiak eta zehatzak» eskatu zituen Jose Maria Aznarrek, Espainiako Gobernuko presidenteak atentatuaren ondoren eginiko adierazpen instituzionalean. «Hiltzen dutenekin daudenen eta hildakoekin daudenen artean bereizi behar dugu, eta bide horretan erantzuteko eskatzen dute herritarrek», esan zuen.

EAJri aipamen zuzenagoa eginez, zera adierazi zuen Aznarrek: «Ez dago erdizka ibiltzerik. Adostasun politikoak ez dira bateragarriak hilketarekin edo haren justifikazioarekin, eta denok bakearen aldeko konpromisoa hartzea da biktimei egin ahal diegun omenaldi onena».

Fernando Buesaren eta Jorge Diezen senideei elkartasuna azaldu zien, eta biek komunean «askatasunen defentsa eta bake nahia» zutela esan zuen. PSOEri gainera, Gobernuaren elkartasuna azaldu zion.

Gobernuko bozeramaile Josep Piquek, bestalde, atentatua gaitzetsi eta elkartasuna agertu zien Fernando Buesaren eta Jorge Diezen senideei, eta baita PSE-EEri eta Ertzaintzari ere. Gainera, Piquek adierazi zuen ETAk ez dituela «inoiz bere helburuak indarkeriaren bidez lortuko».

Jaime Mayor Oreja, Barne ministroa, Gasteiza etorri zen Benidormetik (Alacant) atentatuaren berri izan zuenean. Abiatu aurretik esan zuenez, «krudelkeria izugarriaz jokatzen du ETAk, eta batzuei eta besteei min egiteko aukeratzen ditu bere biktimak».

Haserrea agertu zuen atentatua dela eta, «bereziki Buesaren familiarekiko dudan hurbiltasunagatik, Eusko Legebiltzarrean lan ordu asko izan nituelako». Mayor Orejak esan zuenez, inoiz baino beharrezkoagoa da «espainiar guztiengan eta instituzio guztietan konfidantza izatea».

EHUk dolu eguna izango du gaur eta bertan behera utzi du errektore berria aukeratzeko klaustroa

Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) dolu eguna izendatu du gaurkoa Fernando Buesa eta Jorge Diezen hilketa salatzeko eta ondorioz, bertan behera utzi du errektore berria aukeratzeko gaur Leioan egitekoa zen klaustroa. Era berean, aktibitate akademiko guztiak bertan behera uztea erabaki du EHUk eta bertako partaideei atentatua gaitzesteko egingo diren bilkuretara joateko deia egin die. Gogoratu behar denez, Fernando Buesa sozialista Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu izan zen.

Bakearen Aldeko Koordinakundeak bilkuretara deitu du gaur Hego Euskal Herrian

Bakearen Aldeko Koordinakundeak «gaitzespenik gogorrena» azaldu zuen atzo Fernando Buesa buruzugi sozialistaren eta Jorge Diez ertzainaren hilketengatik. Dei egin zien herritarrei gaur antolatu dituen gaitzespen bilkuretan esku hartzeko. Alde batetik, hamabost minutuko bilkurak egingo dira Nafarroako bi unibertsitateetan eguerdiko hamabietan. Bestetik, arratsaldeko zortzietatik aurrera ere bilkurak egingo dira Hego Euskal Herriko ohiko lekuetan.

Denon Artean-ek, Intolentziaren Aurkako Mugimenduak eta Terrorismoaren Biktimen Elkarteak biltzera deitu dute gaur Donostian

Denon Artean-ek, Intolerantziaren Aurkako Mugimenduak eta Euskal Herriko Terrorismoaren Biktimen Elkarteak (AVT) kontzentrazioa egingo dute gaur arratsaldeko zortzietan Donostiako Gipuzkoa enparantzan, Fernando Buesa eta Jorge Diezen hilketengatik protestatzeko. Atzo kaleratutako komunikatu batean, hilketak gogor gaitzesteaz gain, terrorismoaren aurkako «apustu garbi eta tinkoa» eskatu zieten euskal instituzioei.

Atentatua Gasteizen ◆ Eusko Legebiltzarreko lehendakariaren adierazpena

Atutxa: «Bake itxaropena lehertu nahi izan dute»

Buesak «herritarren askatasunaren alde» jardun zuela adierazi zuen

Ivan Santamaria / **Gasteiz**

EAEko Legebiltzarreko presidente Juan Mari Atutxak atzoko ekintza gaitzesteko deklarazioa irakurri zuen. Fernando Buesa legebiltzarkidea eta Jorge Diez ertzaina «haien herrikideek agindutakoa betetzeagatik» erailak izan zirela esan zuen Atutxak.

JUAN MARIA ATUTXA Legebiltzarreko presidentaren lehen oroitzapena bi hildakoen senideentzat izan zen, atentatuaren ondotik eginiko adierazpenean. «Herritar gehienen dolumin sentimendua» bere egin, eta Buesa eta Diezen ahaideei eskaini zien Legebiltzarreko presidenteak. «Beste ezer aurretik, bortxakeriaz eta gizatasunik gabe, bi pertsonen bizitzak eten dituzte, eta hori dugu gaur sufritzen dugun tragediaren lehen dimentsioa», azaldu zuen.

Jarraian, erailketak gaitzetsi zituen Juan Maria Atutxak, «herritarren gehiengoaren sentimenduari erantzunez». Ildo horretan, Fernando Buesa eta Jorge Diezen erailketak «haien herrikideek agindutakoa betetzeagatik» gertatu direla nabarmendu zuen. «Buesa legebiltzarkidea haren botuemaileen ideien ordezkari zen, bere iritzien defentsan kementsu aritu zen beti, hitzak eta bakearen bideak erabiliz bet iere. Pluralitatearen eta herritar guztien askatasunaren alde jardun zuen». Jorge Diez ertzainak, berriz, «besteen bizitza defendatzeagatik berea arriskatu eta galdu» zuela adierazi zuen Legebiltzarreko presidenteak.

Ekintzaren egileentzako hitz gogorrak izan zituen. «Euskal hiritar guztiak tirokatu dituzte», esan zuen Atutxak. «Guztien bake itxaropena lehertu nahi izan dute, elkarbizitzako desioak eta gure gizartearen etorkizuna». Haren aburuz, «guztion lana da bihozgabe horiek helburu hori ez erdiestea».



David Aguilar / Efe

Juan Maria Atutxa etsita, agerraldiaren ondoren.

Hil kapera Eusko Legebiltzarrean

Erredakzioa / **Gasteiz**

Fernando Buesaren hil kapera Eusko Legebiltzarrean kokaturik dago. Urte askoz legebiltzarkide izan zen Buesa, eta orain PSE-EEren bozeramailea zen Legebiltzarreko mahaian.

Bestalde, Eusko Legebiltzarreko egoitzatik bertatik abiatuko da gaur goizean, PSE-EEk Fernando Buesaren erailketa gaitzesteko deitu duen manifestazioa. Legebiltzarretik abiatu, eta hileta elizkizunak egingo diren elizan amaituko da alderdi sozialistak antolatutako ekitaldia.

Euskal presoak ◆ Gose greba mugagabea

Daniel Dergiri zerbait gertatu bazaio erran dezatela exigitu du haren aitak

Bisitak debekatu dizkietenez, larunbatetik ez dago inolako berririk haren egoeraz eta 59. eguna du gaurkoa

Hur Gorostiaga / **Baiona**

Daniel Dergik gose grebaren 59. eguna du gaur. Larunbatetik, ez dago inolako berri zuzenik eta kezka nagusitu da. Aitak, «zerbait gertatu bazaio erran dezatela» exigitu zuen atzo. OIPk osasun inspekzioak eskuhar dezala galdegin du. Administrazio ezberdinek ez dute deus erran nahi.

LARUNBATEAN abokatak ikusi zuenetik, ez da berri gehiagorik. Senideei bisita ukatu zieten atzo ere, astelehenean bezala. «Zerbait gordetzeko badute erran dezatela» exigitu zuen atzo Beñat Dergi haren aitak, emazte eta senide guztiak «lur jota» daudela argudiaturik. Gaur senideei bisitatzen utziko omen dietela entzun zen azken orduan baina ez zegoen deus segurrik.

EGUNKARIAK hainbat saiakera egin zituen haren berri ukaiteko, baina behin eta berriz pareta mutuen aitzinean aurkitu zen.»Ez da Justizia Ministerioaren ardura» azaldu ziguten Frantziako Justizia Ministerioan. «Deitu Presondegietako Zuzendaritzara». «Ez da Presondegietako Zuzendaritzaren afera, ospitalean baitago, deitu Osasun Ministeriora» zioten Presondegietako Zuzendaritzan. Osasun Ministerioan «ez da gure ardurapean, presondegiko ospitalean baitago, deitu Fresnesera». Eta Fresneseko ospitalean «ezin dizugu deus erran, zuzendaria kanpoan da zenbait egunetarako».

Inori ez zitzaion esplikatu behar izan nor den Daniel Dergi, denek ezagutzen zuten 'Dergi afera'. Aitzitik inork ez omen zezakeen deus erran.

Egoera desblokatu nahirik OIP Presondegietako Nazionarteko Behatokiak presondegietako osasun inspekzioaren (IGGAS) eskuhartzea galdegin zuen EGUNKARIAri azaldu zioenez. IGGASek presoek jasotzen duten osasun asistentzia zaintzen du. «Preso batek presondegi batean behar adina laguntza ez badu, presondegiz aldatzeko erabakia har dezake; eta gauza bera presondegiko ospitalean baldin badago» esplikatu ziguten bart Pariseko OIPren bulegoetatik.

Berriz ere Justizia Ministeriora zuzendu eta azkenean emakumezko batek onartu zuen galderei erantzuten saiatzea, OIPrekin mintzatu ginela erran ondoren. «Daniel Dergi Fresneseko ospitalean atxikitzen dute, baina medikuak oso kezkaturik daude, ez baitu inolako arreta medikurik nahi. 58. gose greba egunean, ez daiteke erran osasun egoera onean dagoenik» adierazi zigun. Bezperan senide eta abokatuei bisita ukatzean Daniel Dergiren osasun egoerari buruzko agiri bat erakutsi zieten medikuek senideei ongi zegoela erranik. Ministerioko ordezkariak «halako agiririk ez» dagoela adierazi zigun. «Daniel Dergi jaunak medikuen asistentzia ukaturik, ez dute inolako txosten medikurik egin. Ez dut horren berririk eta egin balute horren berri ukanen nukeen» adierazi zigun. Ospitale zibilera eramateari buruz galdegitean, aldiz, Osasun Ministeriora bidali gintuen berriz ere.

Baina administrazioko egiturez gain, 'Dergi aferak' bertze estamentuak ere trabatzen ditu nonbait. Hainbesteraino non Frantziako Giza Eskubideen Ligak ere erabateko isiltasuna atxikitzen duen Dergiren inguruan. Atzo goizean «Dergiren aferaz arduratzeko denborarik ez» zutela azaldu ziguten lehenik, eta «gaiari buruz aski informaziorik ez» zutela, «Dergirena berantagorako utzi» dutela gehiturik.



BOB EDME

Hautetsiak berri eske. Mugaz bi aldeko 30 bat hautetsi bildu ziren atzo Baionako Suprefetura aitzinean, Hiriburu, Miarritze, Heleta, Hendaia, Uztaritze, Lehuntze, Urruña, Beskoitze, Lezo, Leaburu, Usurbil, Oiartzun, Pasaia, Hernani, Arrasate, Donostia, Orereta eta Hondarribikoak, besteak beste. Marie-Andree Alberbide, Alain Iriart eta Jean-Baptiste Etxeberri suprefetarekin bildu ziren eta «familia Daniel Dergiren berririk gabe» dagoela salatu zuten.

Pierre Pradier: «Fresneseko ospitalea ez da egokia»

«FRESNESEKO presondegiko ospitalea egoera larrian dauden eriak zaintzeko egokia ez» dela adierazi zuen atzo Pierre Pradier eurodiputatu ohi eta *Medecins sans Frontieres* elkarteko kide miarritzarrak . «Paris inguruan badaude ospitale egokiagoak, hala nola Hotel Dieu eta Saint Petriere bezalakoak» adierazi zuen, Kosovotik *RFPB* irratiari egindako elkarrizketan. Pradierrek presondegi eta ospitaleen bisita egin zuen inkesta parlamentario baten baitan eta ongi ezagutzenditu egiturak. Aipatutako bi eritetxeek «segurtasun baldintzak betetzen dituzten gela bereziak» badituztela azpimarratu zuen, «Fresneseko ospitaleko ziegetan eri batek beharrezkoakdituen zainketak egiteko leku eskasa eta materiale egokiaren falta» argudiaturik.

Enbeitak gose greba utzi

Jon Enbeita presoak gose greba bertan behera utzi zuen atzo, 41. egunean. Valencia III presondegian zegoen preso bilbotarrak 17 kilo galduak zituen eta biziki ahul zegoen.

Serafin Blancok gose greba hasi du Espainiaratu ez dezaten, abuztutik hirugarrena

Erredakzioa / **Donostia**

SOPELAKO Serafin blanco presoak gose greba abiatu du Fresneseko espetxean. Martxoaren 1ean haren aurkako estradizio auzia aztertuko du, baina agintariek jada adierazi dute estradizioa onartzen ez bada kanporatua izango dela. Hala, hau salatzeko Serafin Blancok gose greba hasi du.

Abuztutik hona Blancok egiten duen hirugarren gose greba da. Izan ere, aurrekoetan kanporatua izan zitekeela salatzeko gose greba hasi zuen, baina Frantziako epaileek Espainiako agintariei estradizio auzian informazio gehigarria galdegin zioten, eta hala auzia atzeratu zen. Ondorioz, Blancok gose greba luzeak egin ditu, baina auzia atzeratu egin denez, hauek bertan behera utzi zituen.

Beste bi preso Euskal Herriko espetxeetatik Espainiara eraman dituzte

Erredakzioa / **Donostia**

ANGEL FIGEROA eta Julen Uriarte presoak azken egunetan Euskal Herriko espetxeetatik Espainiakoetara eraman dituzte. Figeroa iazko ekainean ekarri zuten Langraizko espetxera eta orain Palenciako Dueñas espetxera eraman dute. Julen Uriarte, berriz, otsailaren 10ean ekarri zuten Basaurira eta jada eraman dute Madrilgo Soto del Real espetxera.

Azken hilabeteetan Euskal Herritik Espainiako espetxeetara zortzi preso bidali dituzte Espainiako Espetxe Erakundeek, nahiz eta kasu askotan udalek presoak Euskal Herrian uztea eskatu.

'Lasa-Zabala auzia' ◆ Lekukoen deklarazioa

Sancristobalek baieztatu du Iparraldean poliziak eta guardia zibilak ibiltzen zirela

Ez zela errefuxiatuen kontrako legez kanpoko ekintzarik egitea erabaki dio, hala ere

Eider Goenaga / **Madril**
Berriemaile berezia

1983an Espainiako Polizia, Guardia Zibila eta CESIDeko kideak Iparraldean zebiltzan, Julian Sancristobalek atzo deklaratu zuenez. Garai hartan Bizkaiko gobernadore zibil izandakoak esan zuenez, gainera, Gobernu sozialistako kideak jakinaren gainean zeuden. Sancristobalen arabera, baina, «informazioa biltzea zen Segurtasun Indarren helburua eta ez legez kanpoko ekintzarik egitea».

TVE / EFE
Julian Sancristobal, Estatuko Segurtasunerako zuzendari izana, atzo, epaiketan deklaratzen.

SANCRISTOBALEK azaldu zuenez, «kalean zegoen» Iparraldean ETAren kontra egiteko bide berriei buruzko eztabaida, «Frantziak ez baitzuen laguntzen». Akusazio partikularreko abokatuak ZEN planaren helburua hori al zen galdetzean, baina, honela erantzun zion: «ZEN planean bazegoen puntu bat Iparraldean ekiteari buruz, baina ez zen garrantzitsua poliziak aurretik baitzeuden han».

Adierazpen horrekin Sancristobalek zuzenean gezurtatu zuen Rafael Verak esandakoa; Verak Iparraldera pasatzeko debekua zutela adierazi baitzuen bere deklarazioan. Ildo horretan, Verak horren berri ba ote zuen galdetu zioten, eta baietz erantzun zuen: «Verari ez genion egunero ematen Iparraldeko lanari buruzko informazioa, baina emaitzaren bat zegoenean berehala ematen zitzaion horren berri».

Sancristobalek, hala ere, ezagutza hori gehiagok ere bazutela dio. «1983ko udaberrian bilera bat izan genuen Guadarraman Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako gobernadore zibilek, Jose Barrionuevo Barne ministroak, Rafael Vera Segurtasunerako Estatu idazkariak eta hainbat euskal buruzagi sozialistek; hala nola, Jauregik, Benegasek eta Danboreneak. Ez zen legez kanpoko ekintzarik egitea pentsatu, baina bai aurretik zeuden polizia horiek hobeto funtzionatzeko era pentsatu», adierazi zuen.

Ondoren esandakoek zalantzan utzi zuten ezezko borobil hori. Izan ere, Sancristobalek onartu egin zuen 1983an Larretxea bahitzeko saioan eta Segundo Mareyren bahiketan parte hartu zuela. Gainera, Sancristobalek esan zuen bi saio horiek Veraren babesarekin egin zirela. Iruinek Larretxea bahitzeko saioan GEOkoek eta Bartzelonako hainbat poliziak izandako parte hartzeari buruz galdetzean, honela esan zuen Sancristobalek: «Ezinezkoa litzateke haien laguntza dagokion baimena gabe, eta baimena Verak baino ezin zuen eman».

Sancristobal 1984an Verarekin eskuz esku aritu zen lanean Barne Ministerioan, Segurtasunerako Estatu zuzendari gisa. Hain zuzen ere, kargu horretan zegoela joan zitzaion Francisco Alvarez GALeko atentatuak erreibindikatzeko zigiluak erakustera. Sancristobalek onartu zuen GALen siglak berak asmatu zituela Segundo Marey bahitu zutenean, baina ez zuen jakin azaltzen zergatik erabili ziren handik hilabetera Lasa eta Zabalaren hilketak erreibindikatzeko. Iñigo Iruinek gogorarazi zion, gainera, beste 27 atentatu erreibindikatu zirela GAL siglekin, baina Sancristobalek ez zion erantzun.

De Federicok dio Miguelizek ez zuela deklaratzeko dirurik jaso

LASA-REN eta Zabalaren hilketak ikertzeko osatutako batzordeko buru Enrique de Federicok deklaratu zuen atzo Entzutegi Nazionalean. Defentsa hainbat aldiz saiatu da haren lana deskalifikatzen, baina atzo, hiru ordu inguruko galdeketaren ostean, ez zuen helburua lortu. De Federicok bereari eutsi zion, eta argi utzi zuen lau urtetan egindako ikerketa judizialean ez dela neglijentziarik edo manipulaziorik egon.

Defentsak erabili argudioetako bat hau zen: De Federicok diru berezietatik zazpi milioi pezeta ordaindu zizkiola Pedro Luis Migueliz *Txofo*-ri kasu honetan deklaratzeko. Herenegun, baina, Margarita Roblesek ezezko borobila eman zuen hori galdetu ziotenean, eta diru berezien kontuak aurkezteko prest zegoela gaineratu zuen. Horrek zalantza gutxi utzi zuen horren inguruan, baina atzo De Federicok zera gaineratu zuen: «Miguelizek dirua eskatu zuen, baina ez zitzaion eman. Eta Entzutegiak lekuko babestuaren estatusa eman zioneandeklaratzea erabaki zuen».

TVE / EFE
Enrique de Federico.

Frantziako Estatuari oldartzeko deia egin du Gazteriak taldeak

Ortzi Idoatek eta Yves Machicotek Armadari uko eginez abiatu dute kanpaina

Hur Gorostiaga / **Baiona**

GAZTERIAK Ipar Euskal Herriko gazte erakundeak Frantziar Estatuari oldartzeko deia egin zuen atzo. Gizarteko arlo guztietan «Estatuaren inposaketari aitzin» egiteko kanpainaren hastapena iragarri zuten. Hala nola, Ortzi Idoate eta Yves Machicote gazteek Armadarekiko intsumiso egitea izanen da lehen ekimena.

Ondotik, euskara eta ikasketa mailan, kiroletan edo presoen aldeko borrokan hainbat ekimen egingo dituzte. «Udalbiltza izan da, lurraldetasun eta demokrazia printzipioak kontuan hartuz, desobedientzia ekimen inportante baten hastapena. Estatuenganik apurrik itxoin gabe, gure tresnak eraikiko ditugu, berenei uko eginez», esan zuten. Gazteriak eta Jarraiko ordezkariak Suprefetura aitzinean bilduko dira gaur arratsaldeko hiruretan, Daniel Dergiren egoera salatzeko.

Lizarra-Garaziko foroa Italiako Parlamentuan izan da ordezkaritza batekin

Erredakzioa / **Donostia**

LIZARRA-GARAZI-KO Adierazpena nazioartean ezagutarazteko helburuarekin, foro horretako ordezkaritza bat Italian da atzodanik. EAJko Pello Caballero, EAko Begoña Lasagabaster, EHko Pernando Barrena eta ABko Jerôme Prieto Italiako Legebiltzarreko Kanpo Harremanetarako batzordeko kideekin bildu ziren, eta baita Francesco Cossiga lehendakari ohiarekin ere.

Legebiltzarrean komunikabideekin hitz egin zuten foroko kideek. Lasagabasterrek esan zuenez, Euskal Herrian bakea lortzeko prozesu politikoa luzea eta zaila izango da, baina Lizarra-Garazik konponbide, elkarrizketa eta negoziazioaren bidetik jotzeko apustua egin du.

Martxoaren 12ko hauteskundeak

«Proiektu soberanistan abstentzioak balio politiko handia du», LABen ustez

Euskal herritar guztiak kabituko diren proiektu baten alde agertu da Rafa Diez

Axun Erzibengoa / **Donostia**

LAB sindikatuak martxoaren 12ko hauteskundeetan abstentzioaren aldeko jarrera har dezan eskatu dio langileriari. Proiektu soberanistan abstentzioa garrantzitsua dela adierazi du Rafa Diezek. Euskal Herrian abiatutako prozesuan ezin dira errepikatu 1977ko akatsak Diezen ustez; beharrezkoa da euskal herritar guztiak kabitzeko moduko proiektua izatea.

EDURNE KOCH

Jose Luis Rezabal, Itziar Lopategi, Rafa Diez eta Santos Indakoetxea LABeko kideak, atzoko agerraldian.

ESPAINIAKO hauteskundeetarako abstentzioaren aldeko jarrera hartzea Biltzar Nazionalean erabaki zuen LAB sindikatuak, atzo jakinarazi zutenez. Bozketan 113 boto izan ziren abstentzioaren alde, bat kontra eta 15 abstentzio.

Euskal Herrian bizi den momentuan euskal langileriak zeresan handia duela uste du LABek. Ildo horretan, proiektu soberanistan eta eraikuntza nazionalean abstentzioaren aldeko jarrera garrantzitsutzat jo zuten.

Rafa Diez idazkari nagusiak Euskal Herriak bizi duen unearen garrantzia nabarmendu zuen. Une honetan abiapuntu berri bat behar dela esan zuen, eta abstentzioak «balio politiko eta pedagogiko handia» duela. Abstentzioa herri honentzako «errebeldia ekintza» bat dela azaldu zuen,

Orain artekoak ez duela balio adierazi zuen Diezek: «Autonomien Estatuak porrot egin du. Esparru hori ez da bat egite puntua normalkuntza politikorako», adierazi zuen, eta *statu quo*-a mantentzeak «aurkaritza» ekarriko duela azaldu zuen. Prozesu autonomikoak, zatiketa instituzionala ekartzeaz gain, bilakaera ekonomikoan ere okerreko eragina izan duela azaldu zuen. Hala, erabaki ekonomikoetan langileek parte izan behar dutela azaldu zuen, eta erabaki horiek euskal instituzioetan hartu behar direla.

Akats berak egin gabe

Egungo esparrua agortua dagoela azpimarratu ostean, prozesu berri baten beharraz hitz egin zuen. «Baina ezin ditugu 1977ko akatsak berriz egin. Funtsezko baldintza bat izan behar du: euskal herritar guztiok kabitzea proiektuan. Horretarako, beharrekoa da euskal herritarren borondatea errespetatzea». Alderdi abertzale eta aurrerakoiek, hori kontuan izanik, prozesu eratzailea hasi behar dutela azaldu zuen. «Euskal subiranotasunaren errespetutik edozein ideia defenda daiteke, kanpotik ez» azaldu zuen.

Madrilen Euskal Herriak herri gisa egon behar duela dio, eta bide horretan abertzaleek indarrak batu behar dituztela. Hala, alderdi guztiak bat egin eta Madrilera herri moduan joatea erabakiko balute LABek gustura hartuko lukeela esan zuen.

Hauteskunde Batzorde Zentralak doako publizitate tarteak erabiltzea galarazi dio EHri

Agentziak / **Madril**

HAUTESKUNDE Batzorde Zentralak atzo jakinarazi zuenez Euskal Herritarrok taldeak ez du doako publizitate tarteak erabitzeko eskubiderik izango, martxoaren 12ko hauteskundeei begira. Hauteskunde batzordeak dioenez, eskubide hori soilik dagokio hautetsi izatea helburu duten alderdiei. Halaber, doako tarteak botoak lortzeko baliatu behar direla dio batzordeak.

Hauteskunde kanpainako leloari buruz eta datorren larunbatean Donostian abstentzioaren alde egingo duten manifestazioari buruz batzordeak ez du eragozpenik ikusten. Ildo horretan, abstentzioa bultzatzea zilegi dela azaldu zuen batzorde elektoralak.

Gipuzkoako Hauteskunde Batzordeak galdetu zion gaiari buruz Batzorde Zentralari, PPk EHren hautagaitzak errekurritu ondoren. Errekurtso hori atzera bota zuen, baina doako tarteei buruzko iritzirik ez zuen eman Gipuzkoako batzordeak.

EHk atzo arratsaldean egin zuen bilera, gaia aztertzeko. Bestalde Iñaki Anasagasti EAJko kideak EHk doako tarteak erabiltzeko eskubidea duela azaldu zuen hauteskunde batzordea kritikatuz.

EAJk abertzaleen «boto baliagarria» gura du

Joseba Arruti / **Bilbo**

EUZKO ALDERDI JELTZALEAK abertzaleen «boto baliagarria» eskuratu nahi du «inoiz baino gehiago» martxoaren 12ko Espainiako hauteskunde orokorretan. «Abstentzioaren eta parlamentuan eraginik izango ez duen botoaren aurrean, EAJri emandakoa da benetan gure interesak defendatzeko balioko duena», esan zuen atzo Iñaki Anasagastik EAJren kanpainaren aurkezpenean.

EAJk kanpainarako baliatuko duen dirutza 185 milioi pezetakoa izango da, eta «kanpaina ezberdina» iragarri zuen, «gizartean nahasmena baitago ona denaren eta txarra denaren artean eta hadabide asko abertzaletasuna deabrutzen ari baitira».

Jeltzaleak *Zuk erabaki* lelopean egingo dute kanpaina; eta atzo aurkeztu zuten kartelean euskal hiritarrek martxoaren 12an egin behar dituzten aukerak azaltzen dira; horien artean erabakitzeko eskaera eginez. EAJk 1996ko hauteskunde orokorretan lortu zituen emaitzak hobetzea espero du.

XOUSE SIMAL

Paco Allendek, Josune Ariztondok eta Iñaki Anasagastik aurkeztu zuten EAJren hauteskundeetako kartela.

Martxoaren 12ko hauteskundeak

Redondo: «EAJ eta PP dira euskal gatazkak irtenbidea aurkitu ez izanaren errudunak»

Beraiek su-etena «era ezberdin batean gestionatuko luketela» dio PSE-EEko buruak

Asier Errasti / **Donostia**

Nicolas Redondo Terreros PSE-EEko idazkari orokorrak atzo adierazi zuenez, «EAJ, Lizarrako estrategiarekin, eta PP, bere bakartze bokazioarekin, dira euskal gatazkak irtenbidea aurkitu ez izanaren erredunak». Ildo horretan, sozialistek ETAren su-etena «era ezberdin batean gestionatuko luketela» nabarmendu zuen PSE-EEko buruak.

ESPAINIAKO hauteskunde orokorretara begira PSE-EEk kaleratutako «Elkarrizketa eta bakeagatik» manifestua aurkeztu zuen atzo goizean Donostiako Miramar Jauregian Nicolas Redondo Terreros buruzagi sozialistak. Bere alderdiko hautagai ezberdinak eta buruzagi ugari bertan zeudela —tartean atzo Gasteizen izandako atentatuan eraildako Fernando Buesa—, PP eta EAJren arteko ika-mikek eragindako «polarizazio negatiboa» eta ETAren su-etenak iraundako denboran bi alderdiek izandako desadostasunak kritikatu zituen. Ildo horretan, zera azpimarratu zuen: «EAJ eta PPk, Arzalluz eta Mayor Oreja jaunek, ardura berdina daukate gatazkak irtenbiderik aurkitu ez izanagatik, muturreko joeretatik elkar elikatzen baitute».

Hori bai, «polemika gordin horren azpitik», PPk EAJri hauteskunde osterako «kontzertu ekonomikoaren onurazko negoziazioa» eskaini diola adierazi zuen Redondok. Aldiz, sozialistek «lege mailako ziurgabetasunarekin eta etengabeko arazoekin amaituko duen kontzertoaren negoziazio gardena» egingo dutela nabarmendu zuen.

Bestetik, sozialistek «elkarrizketa, adostasuna eta alderdien arteko elkar ulertzearen» aldeko jarrera dutela nabarmendu zuen Redondo Terrerosek. Ildo horretan, 1982an Felipe Gonzalezek lehen aldiz erabilitako «Anoetako espiritua» berreskuratu zuen buruzagi sozialistak hurrengoa adierazteko: «Estatuko botere publikoek errespetatu egin behar dituzte egun indarrean dagoen legalitate politiko eta instituzionaletik abiatutako inposiziorik gabeko elkarrizketa batetan euskal alderdiek lortzen ditugun adostasunak».

EDURNE KOCH

Nicolas Redondo eta PSE-EEk EAEn aurkeztutako hautagaiak Donostian atzo egindako ekitaldian.

Agiriaren ardatzak

«Elkarrizketa eta bakeagatik»

PSE-EEk atzo kaleratutako «Elkarrizketa eta bakeagatik» manifestuak —gazteleraz bakarrik idatzia dago— hainbat gai jorratzen ditu. Hona hemen horietako batzuk:

ETAko su-etenaren gestioa • «Bai EAJ bai PP ez dira gai izan ETAren su etena ausardiaz eta erantzunkizunaz kudeatzeko, bere muga guztiekin, guztiz ireki beharreko itxaropenezko lehio txikia zenean. PP eta EAJren politika alderdikoiak ETAri su etena apurtzea eragotziko lioken elkarrizketa politikoa bultzatzea eragotzi die».

Elkarrizketa • «Indarrean dagoen legalitate politiko eta instituzionaletik abiatuta, euskal alderdien elkarrizketa politikoa bultzatzearen alde gaude eta borondate irmoa dugu adostasunarekin eta inposiziorik gabe hitzartzen duguna errespeta dezala eskatzeko Estatuko botere publikoei».

Politika soziala • «Konpromiso argia hartzen dugu lana sortzearen alde, lan prekarietarearen aurka, 35 orduko lan astearen alde, ABLEem arauak berrikuzteko eta gutxieneko langabezi laguntza eta soldatak handitzeko».

Miguel Sanzek «Nafarroa isolatu» nahi duela salatu du EAJk

Irene Arrizurieta / **Iruñea**

NAFARROAKO EAJren arabera, Miguel Sanz Foru Erkidegoko presidenteak «Nafarroa isolatu nahi du». Horren adibide argia da herenegun Sanzek adierazi zuen Loyola de Palacio PPko Europako Parlamentuko diputatuak herrialdera egin bisitan Iruñea Baionarekin lotuko duen errepidearen alde eginen duela Madrilek. Horren harira, Jose Antonio Urbiola Nafarroako Senaturako zerrendaburuak «Pirinioak zeharkatuko dituen bidearen helburua Kataluinako eta Euskal Autonomi Elkarteko lurralde komantxeak ekiditea da» salatu zuen.

EAJren aburuz, proiektuak ez du «logikarik», eta Madrilek «Kataluinatik eta EAEtik ez iragaiteko egin nahi du» erantsi zuen. Hori aintzat hartuz, Urbiolak uste du Sanzen jokaera «Gobernu separatista batena» dela, eta «Nafarroa inguruko herrialdeetatik isolatu» nahi duela».

Era berean, EAJren helburu nagusia «bakea lortzea» dela azpimarratu zuen Jose Manuel Goikoetxea, Kongresurako zerrendaburuak. «Pakea lorturik, Nafarroa indartu behar da, ez bere izakeran, baizik eta bere iharduera ahalmenean eta herrialdea errespetarazten», azpimarratu zuen. Ildo honetan, beharrezkoa da Nafarroa Euskal Herrian «uztartzea eta Bartzelonako adierazpenaren baitan». «Nafarroa hemendik at gelditzen bada, berriz komunitate historiko izateko aukera galduko du» gaineratu zuen.

EUSKO JAURLARITZAK ETA NAFARROAKO GOBERNUAK ELKARREKIN EZARRIKO DUTE EUSKARAREN ERAKUSMAHAIA

Gaur irekiko da Expolangues azoka

- Ingelesa ikasteko estatu gisa, Australiaren ekarpena ohoratuko dute hizkuntzen eta kulturen Parisko azokan
- Eremu urriko hizkuntzen erakusmahaiek toki handia beteko dute Expolangues saloian, aurreko aldietan bezala
- REED-OIP erakundeak hemezortzigarren aldikotz antolatu du munduko hizkuntzen erakustazoka

Eneko Bidegain / **Baiona**

EXPOLANGUES saloiak gaur goizean irekiko ditu ateak Parisen. 300 erakundetik gora eta ia 30.000 bisitari espero dituzte antolatzaileek. Aurten Australia ohoratuko dute, ingelesaren ikasteko estatu gisa. Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuko hizkuntza politikarako sailek erakusmahai bakar bat aurkeztuko dute, ohi bezala. Hizkuntza gutxituek toki handia beteko dute aurten ere.

REED-OIP elkarteak Expolangues Hizkuntzen eta Kulturen saloia antolatuko du Parisen, hemezortzigarren aldikotz. Ehundaka erakundek erakusmahaiak aurkeztuko dituzte gaurtik igandera bitartean. Orotara 300 erakunde baino gehiago espero dituzte antolatzaileek. Iazko 27.589 bisitarien gainditzea ere aurrikusten dute.

Euskaldunek ere presentzia ohargarria izango dute, Expolangues-ko prentsa arduradunek EGUNKARIAri segurtatu diotenez. Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak elgarrekin antolatuko dute aurten ere erakusmahaia, Jaurlaritzako iturriek baieztatu dutenez.

Kultura saileko hizkuntza politikarako sailordetzak atera berria duen materiala erakutsiko du: Bidegileak, Euskara biziberritzeko plan nagusia, *Euskara arlo sozioekonomikoan* argitalpena eta abar. CD-ROMak, hiztegiak, euskaratik bertze hizkuntzetara itzuli literatura lanak eta bertze material ugarirekin agertuko dira Parisera. Euskarazko webguneak ere erabili ahalko dira.

Josune Ariztondo hizkuntza politikarako sailburuordea eta Xabier Aizpurua koordinazio eta euskara sustapenerako zuzendaria bertan egonen dira.

Australia ohoratuko dute aurtengo edizioan. «Australia herri modernoa da eta ospe handiko instituzioz eta maila handiko eskola profesionalez hornitua. Ikasleek ingeles ikasketak bertze aktibitate anitzekin konbina ditzakete, hala nola urpekaritza, astrofisika eta hegazkin gidatzearekin» azaldu dute Saloiaren antolatzaileek.

Ingelesa ikasi nahi duten ikasle europar (frantsesek batez ere) gero eta gehiagok hautatzen dute Australiara joatea. Bi hilabeteko egonaldiak Ingalaterran edo Estatu Batuetan baino merkeago kostatzen dira maiz, Reed-OIPren arabera.

JULEN ARRIOLA

Expolangues azokaren hamabosgarren aldiaren irudi bat, 1997. urtean Parisen.

Australia izango da protagonista

Australiak eta Frantziak bi estatuen arteko unibertsitate kooperazio akordioa izenpetu zuten joan zen urriaren 11n Parisen. Akordio hori ohoratuko dute aurtengo edizioan. Australiako erakusmahaiak unibertsitateak, goi mailako eskolak, hizkuntza kolegio eta lizeoak, argitaletxeak eta multimedia zentroak errezebituko ditu. Bertze hizkuntzetako ordezkariek ere material andana ekarriko dute.

egitaraua

Hizkuntzekin dantzan

Eztabaida eta animazio ugari antolatu dute hizkuntzen inguruan. Hizkuntza klaseek eta Internet guneek toki berezia beteko dute. "Bidaia karneta" da aurtengo berrikuntza.

Enpresak eta hizkuntzak • Bi hizkuntza edo gehiagoren jakiteak lanaren munduan sartzeko ekartzen dituen abantailak esplikatuko dituzte osteguneko solasaldian. Aldi berean, enpresek gutxi inbertitzen dute hizkuntzen garapenari buruz.

Hizkuntza testak • Bakoitzak ingeles, aleman, italiar, espainol edo frantses hizkuntzetan zer maila duen ezagutu ahal izango du, doako test batzuen bitartez.

Ikastaldiak .• Bretoia, suediera, arabiera, hungariera, esperantoa eta bertze hainbat eta hainbat hizkuntza gutxi hedatuei buruzko lehen ikastaldiak dohainik emanen dituzte.

Hizkuntza gutxituak • Bretainiako erakusmahaian «eskualde hizkuntzei» buruzko eztabaida bat antolatu dute. Greziako erakusmahaian «gutxiengoen hizkuntzak» jorratuko dituzte.

Bidaia karneta • Bakoitzak bere herriari buruzko hainbat gauza erakutsiko du: argazkiak, egoitza tradizionalak, olerkia, dantza, musika eta abar. Hizkuntza bat ezin dela herriaren kultura ezagutu gabe ikasi azpimarratu nahi du «Bidaia karneta» sailak.

Internet guneak • Hizkuntzen ikasteko teknologia berrien ezagutzeko cybergune bat antolatuko dute, Interneti lotuak diren zortzi ordenagailurekin. Hizkuntzei lotuak diren webgune guztiak aurkitzen ahalko dira.

'Viidu' itsasontziko kapitainari bost milioi pezetako isuna jarri diote

Tenerifera iristean ez zuela polizoien berri eman salatu du Pasaiako Itsas Kapitaintzak

Erredakzioa / **Donostia**

Pasaiako Itsas Kapitaintzak 5 milioi pezetako isuna ezarri dio *Viidu* itsasontziko kapitainari (200.000 libera), Kanariar Uharteetara iritsi zenean ez zuelako polizoien berri eman eta behar baino salbamendutxalupa bat gutxiago eramateagatik. Gauerdian zen Holandara joatekoa *Viidu*, baina isuna ordaindu arte atzeratuko da irteera.

TENERIFEN (Kanariar Uharteak) erregaia kargatzeko porturatu zen *Viidu*, eta Galiziako bi kaitan izan zen ondoren. Galizian nahiz Gipuzkoan jakinarazi zuen kapitainak polizoiak zeramatzala, baina hala ere isuna jartzea erabaki du Pasaiako Itsas Kapitaintzak, Espainiara —Kanariar Uharteetara— iristean ez zuelako egin. Gainera, Ferroletik (Galizia) Gipuzkoara bidean behar baino salbamendu-ontzi bat gutxiago eramatea ere leporatzen dio.

«Itsasontzia ez dakit noiz aterako den, administrazioa akatsak bilatzen ari delako», esan zuen atzo Iñaki Almandoz polizoien abokatu eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Atzerritarren Bulegoko buruak. *Viidu* ezingo da itsasoratu bost milioiko isuna ordaindu edo armadorea kaudimendua dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu arte.



JUAN HERRERO-EFE

***Viidu*-n iritsi zen polizoietako bat, herenegun, ontzitik jaisten.**

Asiloari aurre

Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeak (CEAR) ohar baten bidez adierazi zuenez, «deitoratu eta gaitzetsi» egiten du kapitaintzak hartutako neurria. «Itsasontziko polizoiek Espainian asiloa jasotzeko eskubideari erantzuten dio ekintzak», CEAR-en arabera.

> «Itsasontziko polizoiek Espainian asiloa jasotzeko eskubideari erantzuten dio ekintzak», CEARen arabera

Bitartean, itsasontzian jarraitzen du Isaac Joes Sierra Leonako polizoiak, oraingoz ez baitiote asilo eskaera tramitera onartu. Abokatuaren arabera, Pontevedrako Gobernu ordezkaritzan galdegin zuen asiloa polizoiak eta horren kopia du, baina Espainiako Barne Ministerioak esan du ez duela jaso. Horregatik, berriro egin zuen eskaera atzo Almandozek.

Gipuzkoako Gobernuaren Ordezkaritzak esan zuenez, polizoiak ontzian segituko du asilo eskaera tramitera onartzen duten edo ez jakin arte. Gaineratu zuen, bakarrik jaitsiko dutela ontzia Pasaiatik ateratzen bada.

Lau polizoi Marokotik Nafarroara

NOAINERA 19 eta 23 urte bitarteko hiru marokoar eta argeliar bat —N.L., K.A., K.B. eta S.H.— iritsi ziren herenegun, gabarra batean hiru eguneko bidaia egin ondoren. Casablancan (Maroko) sartu ziren, eta Cadizen zeudelarik Nafarroako Trans-Siguer enpresako kamioira akoplatu zuten gabarra. Alemaniara bidean zihoala, Noaingo zerbitzugune batean atseden hartu zuen gidariak eta beste lagun batek ikusi zituen polizoiak irteten. Kamioilariek egurra edo lanerako tresnak gordetzeko erabiltzen duten zuloan egon ziren, ordura arte.

Gidariak lantegiko buruari telefonoz deitu eta SOS-Nafarroari eman zion polizoien berri. Foruzaingoa bertaratu zen polizoien eta gidariaren artean hitzarmenik ez zegoela egiaztatzeko, eta komisariara eraman zituen identifikatzeko. Ondoren, aske utzi zituzten, atzerritarren lege berriak galarazten dielako haiek atxilotu edo jatorrizko herrira bidaltzea.

Foruzaingoaren arabera, batere jan gabe igaro zituzten hiru egunak, eta ura nahiz edari isotonikoak izan ziren elikagai bakarrak. Ogitartekoak, jantziak eta kafea eman zieten foruzainek.

laburrean

Urruñako alkateak Herritarrak elkarteari eta bertako hainbat kideri 80.000 libera ordaindu beharko dizkie

DANIEL POULOU Urruñako auzapezak Herritarrak elkarteari eta elkarteko zazpi kideri orotara 80.000 libera (bi milioi pezeta) ordaindu beharko dizkie. Daniel Poulou alkateak Herritarrak eta elkarteko zazpi kide auzitan ezarri zituen bere jokabidearen kontra «auzibidea gehiegi erabiltzeagatik». 800.000 libera (20 milioi pezeta) eskatzen zien hasiera batean. Baionako auzitegiak, ordea, Daniel Poulouren salaketa ez du onartu. Herritarrak elkarteak udala auzitan ezar dezakeela azpimarratu zuen epaileak. «Elkarteko kideak auzitan ezarriz udalak kalte morala ekarri die», esplikatu du atzo kaleratutako epaiak.

Administrazioa ere Ezterenzubiko gertakariaren erantzule da, Eusko Alkartasunaren ustez

EUSKO ALKARTASUNAK administrazioaren balioa dudan ezarri du Ezterenzubiko (Nafarroa Behea) sutea aipatzean. «Botere publikoak ez dira horietan hainbat efikazitatekin agertzen holako ekintzarik ez dadin izan. Zer balio du administrazio batek ez badaki gauzen aitzinerat ikusten administratzeko bezenbat ? Dakielarik arras ongi hor dagoela beti mendiei su emaiteko *ohidura okitu sakratua* ?», salatu du Iparraldeko Eusko Alkartasunak. Ezterenzubiko gaia tratatzeko inguruko herrietako auzapezak Donibane Garazin bilduko dira gaur. Astelehenean bildu ziren lehen aldiz eta gaur berriz ere bat egingo dute gaiaren inguruan eztabaidatzeko.

Armada ez laguntzeagatik epaituko dute gaur Mendigorriako alkatea

JOSE ANTONIO ARIZALA Mendigorriako alkatea (EH) epaituko dute gaur Nafarroako Entzutegi Probintzialean. Espainiako Armada ez laguntzeagatik. Ez da gisa honetako auzi bati aurre egiten dion lehen aldia, antzeko arrazoiengatik epaitu eta libre utzi baitzuten Arizala joan den urtarrilaren 21ean. EHk Mendigorriako alkatearen aurkako epaiketa salatu du hedabideetara igorritako ohar baten bidez, eta «Espainiako Armadak inposatu nahi duen eredu juridiko-politikoari euskal gazteriak desobedientzia eta intsumisioarekin erantzun» diola nabarmendu du. «Gizartearen erantzun hori izan da Espainiako Gobernua Derrigorrezko Saldaduzka bertan behera utziarazi duena», gaineratu dute abertzaleek. EHk, bestalde, Euskal Herriko desmilitarizazioa lortzeko lanean jarraitu beharra azpimarratu du, eta lan hori euren gain hartzeko deialdia luzatu die Euskal Herriko herritarrei: «Segurtasun indarrek eta militarrek euren eredua inposatzen jarraitu nahi dute, eta horren aurka egin behar dugu. Hemen ez ditugu behar, ezta nahi ere», nabarmendu du EHk igorritako oharrean.

Pertsona bat hil da Zaldibarren A-8 autobidean izandako auto istripuan

ERMUKO J.G.S. auto istripuan hil zen atzo A-8 autobidean. Ezbeharra arratsaldeko 7:00etan gertatu zen Bilbo eta Behobia lotzen dituen autobidean, Zaldibar (Bizkaia) parean Donostiako norabidean. Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailak emandako lehen informazioaren arabera J.G.S.-k gidatzen zuen kotxea errepidetik irten zen eta pareta baten kontra jo zuen. Ezbeharra gertatu zen lekura Osakidetzako anbulantzia bat gerturatu zen; medikuak heldu ziren unean 35 urteko J.G.S. larriki zaurituta zegoen, baina sendagileek ezin izan zuten ezer egin haren alde eta istripua gertatu zen leku beran hil zen.

Gizakia humanizatzearen aldeko apustua egin du Jose Maria Setienek

JOSE MARIA SETIEN Donostiako gotzain ohiak gizakia humanizatzearen aldeko apostua egin zuen atzo goizean Gasteizen eman zuen hitzaldian. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Filologia, Geografia eta Historia fakultatean *Fede kristauaren eta Euskal Herriko elizaren erronkak etorkizunean* izenburuko hitzaldia eman zuen Setienek. Onartu zuen elizak ez dituela dauden arazoan konponduko, «baina bai pertsonaren baloreak zaindu».

Listeriosia zerri mihiak hedatu duela diote azken ikerketek

Urde mihia ez kontsumitzeko aholkatu dute Frantziako osasun agintariek

Agentziak / **Baiona**

Frantziako osagarri zaintzako institutuaren emaitzek gelatinatan saltzen den zerri mihiari leporatuko dio Frantziako listeriosi izurritea. Estatuko osagarri idazkaritzak ondorio horiek atera zituen atzo. Jean Glavany Laborantza ministroak, aldiz, uste du oraino goizegi dela ondorioen ateratzeko. Emaitza zehatzagoak nahiago ditu.

PIERRE VERDY / EPA

Pariseko txarkuteria bateko irudia, atzo.

FRANTZIAKO osagarri idazkaritzak listeriosi izurritea eragin duen elikagaia aurkitu dutela iragarri zuen atzo. Gelatinatan saltzen den zerri mihiak luke eritasun hori hedatu. Osagarri idazkaritza osagarri zaintzako institutuaren (InVS) inkestaren emaitzetan oinarritzen da. Ikerketa bakteriologikoak zerri mihiaren baitako «susmo azkarrak berretsi behar lituzke» iturri horien arabera. Ikerketaren emaitzak gaur ezagutarazi beharrak diuzte.

«Produktu horren marka ez da oraindik zehaztua. Elikagai horrek du —eritu diren gehienek kontsumitu dutena —itxura guztien arabera listeria bakterio hedatu» adierazi zuten atzo estatu idazkaritzako iturrietatik. Dominique Gillot osasun idazkariak gelatinatan zerri mihirik ez jateko aholkatzen du, «izurrite horren zinezko oinarriaren baieztapena igurikatuz». Listeriak errazki kutsa ditzakeen pertsonei (haurdun diren emazteak, adinetako pertsonak) bakteriak berrikienik jo elikagaiak ez jatea eskatu die: esne gordinezko gasa, arrain ketua, patea, gantxigorrak eta gelatinan diren mozkinak.

Jean Glavany laborantza ministroak «goizegitzat» jo zuen Dominique Gilloten iragarpena. «Niri ez zait baitezpada mozkinaren izena interesatzen. Marka eta mozkin sorta ere zehaztu behar dira, bertzela mozkin horren ekoizle guztiak kaltetuko dira." Bere ministeritzak mozkin bat aipatuko du, «izena eta sorta jakinen» dituelarik. «Bertzela arinegi gelditzen da» azpimarratu zuen. Zerri mihiarena «ez da baitezpada esplikazio bakarra» gehitu zuen. «Inkesta aitzinatzen da. Elementu zehatzagoak ukan bezain laster ezagutaraziko ditugu» jakinarazi zuen. Gaur edo bihar informatzea espero du.

I
t kn k k*
urt n
/
hk r ltz l k
• Er kuntz k n r s k • En r s sust tz l k • Er kun u lk kn
k ntr t tz n tuzt n n r s k • M kn r f rk tz l k
• H n tf rk tz l • In n rtz k • K ntr tu t k l z k
t k r l zurt tun n ut n n r s uzt k • z r n urr r kn k
• G rr ntz k • In ust r r k t r k n r s k
• ntz k • l tr k l n k n r s k • M rk tr tz r k
n r s k • M kn r r n l k ru t r.

l ntz r k n n k h n
sk tz n n lt kn k r ntz t
Elk r , E.G.E. r n lfn ntz r kn rt tu z l , ur
lt kn k k t f ntz k r m rk tu n n us tu n
r , h n sk r h n n l k .
Gur k stu h t k ,1 k k m s (s rtz n
k rr) lz t z k l ntz t t , k (urt k)
k r tz k lt kn k ntz t t st ntz t. K m s
h r k h k k n m rk k r t , r h r m rk tuk
l h k rr n k.
Gur z r tzu r n k lt t t k ur lt kn k k
zk rt sun h n n r kn ulk tz n tu u, t r z r -
n r s r h lk t k lt t n n n k z r tzu sk n z.
Gur s r ntz r t k l- m l
r un n urt zurt r f s n lt sun k h n n rm tu
u u, h l n l l- m l s s r ntz r k h n n
n r s n z r tzur .

* nku- l n
l k k

k rk t stu t n t
f rm l z z -k m s n.

S o
G r nt
e r e
Elk rr k k
G r nt
Elk rt

EG ITZ N CUS ELK GI ELK GI IZK I ELK GI GI VZK ELK GIN F
T l. 33 T l. 5 23 12 12 T l. 23 2 2 T l. 33 1 7 7 T l. 22 7 22
F x. 33 1 F x. 5 1 1 3 F x. 23 3 F x. 33 1 7 F x. 22 1 2
lk r lk r s r lk r . s zk lk r s uzk lk r s n y r lk r . s
www lk r . s

Eraikuntza prozesuan protagonismoa eta partaidetza exijitu dute herri mugimenduek

Euskal Herriak bizi duen prozesuan «eduki sozialak bermatu beharra» dagoela azaldu dute

I. Petxarroman / **Donostia**

Herria Mugi! ekimenak deituta, herri mugimenduetako ordezkari ugari bildu ziren asteburuan Zarautzen. Ekimenak oso balorazio baikorra egin du, bai izandako partaidetzari buruz, bai han egin diren ekarpenei buruz, «garrantzitsuak» izan direlakoan. Zarautzen bildutakoek gizarte eredu alternatiboaren aldeko dinamika indartzea deliberatu dute, eta, horretarako, Euskal Herrian egiten ari den prozesuan herri mugimenduen protagonismoa eta partaidetza exijitu dute. Halaber, herri mugimendua indartzeko zazpi lan lerro jarri dituzte abian.

IXIAR ERASUN Herria Mugi! ekimeneko ordezkariak oso balorazio baikorra egin zuen Zarautzen asteburuan egin den herri mugimenduaren bigarren topagunearen inguruan. Haren hitzetan, aldez aurretik zituzten helburuak uste baino hobeto gauzatu dira. Azaldu zuenez, herri mugimenduetako partaide ugarik parte hartu zuen. Halaber, jorratu zituzten gai nagusietan partaidetza eta ekarpenak oso onak izan ziren: «Partaidetza eta ekarpenak oso aberasgarriak eta garrantzitsuak izan dira, eta aurrera jotzeko nahia agertu da, denok hitzartutako lan ildo batzuen inguruan».

Erasunek esan zuenez, bi egunetan 120 lagunek baino gehiagok hartu dute parte Zarautzen egindako topagunean. Iaz egindako topagunean ez bezala, aurten Ipar Euskal Herriko herri mugimenduetako ordezkariek ere parte hartu dutela nabarmendu zuen.

Parte hartu zuten honako sektoreek: giza eta herrien eskubideen aldeko taldeak, ekologistak, gazte mugimenduak, komunikazioaren alorrekoak, euskalgintzako ordezkariak, emakumeen mugimendukoak, aisialdi eta hezkuntzaren alorrekoak, droga-menpekotasunaren ingurukoak, antimilitaristak, kulturgintzakoak, nekazariak, desarrollismoaren aurkakoak, presoen aldekoak, internazionalistak, sexu askatasunaren aldekoak...

EDURNE KOCH

Herria Mugi! ekimenak asteburuan egindako batzarra.

Taldeetan antolatuak dauden pertsonak ez ezik, maila pertsonalean ere hainbat pertsonak parte hartu zuten Zarautzen asteburuan egindako topaketetan.

Lan ildo nagusiak

Mikel Aznar Herria Mugi! Ekimeneko kideak ere oso ontzat jo du asteburuko topaketa, besteak beste, elkar ezagutza, hausnarketa eta elkarlanerako gune horrek utzi dituen ondorioak «oso garrantzitsuak» direlako, bere ustez.

Aznarren esanetan, Zarautzen bildutakoek gizarte eredu alternatiboaren aldeko dinamika indartzea erabaki dute. Horretarako, zazpi lan talde osatu dituzte, beste horrenbeste lan ildoen inguruan. Diagnosia arduratuko den lan taldea, herri mugimenduen azterketa egingo duena, komunikazioaren lan taldea, partaidetza sustatzeko lan taldea, hezkuntzaz arduratuko dena, finantzaketaz arduratuko dena, eta desobedientziaren inguruan lan egingo duena.

Herri mugimenduek iaz egin zuten lehen topagunea, Egian.

Lan lerroak

Herri mugimendua indartzeko lan ildoak

Joan den asteburuan Zarautzen bildutakoek zazpi lan ildo hitzartu zituzten etorkizunean herri mugimendua indartzeko. Haiek garatzeko lan batzordeak sortu dituzte.

Diagnosia • Gizartea aldatzeko errealitatea ezagutzea ezinbestekoa dela dio Herri Mugi! ekimenak, eta lan hori aurrera aterako duen batzorde bat osatzea erabaki dute.

Azterketa • Herri mugimenduek elkarren artean dituzten gai zehatzen inguruko azterketak: antolaketa eta lan moldeak, partaidetza suspertzea, militanteen soslaia egitea. Halaber, ekonomiaren globalizaziorako lan talde bat osatu zen Zarautzen, eta etorkizunean sarearen funtzionamendua aztertzea erabaki zuten.

Komunikazioa • Herri mugimenduen artean eta gainerako gizarte eragileekin izan beharreko komunikazioa eta harremanak aztertu, eta haiek eraginkorrago bilakatzeko sortu dute lan ildo hori.

Partaidetza sustatzea • Herri mailako bilguneak suspertzeko moduak aztertuko ditu batzorde batek.

Hezkuntza • Herri mugimenduaren formazioa hobetzea bilatuko du.

Finantzaketa eta baliabideak • Herri mugimenduen ahalmenari etekin gehiago ateratzeko eta baliabideen erabilpen egokia lortzeko helburua izango du horretaz arduratuko den lan taldeak.

Desobedientzia • Desobedientziaz arduratuko den taldeak hainbat aukera landuko ditu: lan teorikoa, aurrera begirako proposamenak, arazo praktikoei aurre egiteko bitarteko posibleak...

Fiskalak 20 urteko kartzela zigorra eskatu du Maria Dolores M.V.-rentzat, mutil laguna hiltzeagatik

Akusatuak bi urtean izan zuen hildakoaren gorpua hozkailuan sartuta

Efe / **Donostia**

GIPUZKOAKO Probintzi Entzutegian Maria Dolores M.V.-ren aurka egin den epaiketaren bukaeran, fiskalak 20 urteko kartzela zigorraren eskaerari eutsi dio, bere hitzetan frogatuta geratu baita emakumeak hil zuela mutil-laguna, eta hozkailuan gorde zuela haren gorpua bi urtean.

Gipuzkoako Probintzia Entzutegiko Hirugarren Sekzioan egin da epaiketa, eta ez Ministerio Fiskalak eta ezta akusazio partikularrak ere ez dute aintzat hartu emakumeak egin zuen deklarazioa. Dolores M.V.-k herenegun esan zuenez, krimena ez zuen berak egin, berak lan egin zuen klub bateko jabeak baizik. Gizon harekin emakumeak amodiozko harreman bat izan zuela aitortu zuen.

Tiroa buruan, eta labankada bularrean

Emakumeak salatu zuen gizonezkoa atxilotu zuen Poliziak hilketaren ondoren, baina gero aske geratu zen. Fiskalak uste du akusatuak egin zituen lehen deklarazioek indartzen dituela bere tesiak, alegia, Dolores M.V.k hil zuela gizona buruan tiroa egin, eta gero bularrean labankada eman ondoren.

Akusatuen arabera, «ezinezkoa» izango litzateke bestela akusatuak –berriki hildako ahizparekin batera– lehen deklarazio bat inprobisatu izana. Deklarazio hartan detaile ugari eman zituzten Jose Antonio Valdes Etxeberria 41 urteko gizonezkoaren heriotzaren inguruan, autopsiaren berri jakin aurretik.

Fiskaltzak dioenez, kasu horretan, gainera, bi astungarri daude: emakume eta hildako gizonaren arteko senidetza, eta azpikeria. Izan ere, fiskalak dioenez, emakumeak gizona hil zuen lotan zegoela, eta defenditzeko batere aukerarik ez zuela.

EH: «Hezkuntza sistema propioa behar dugu»

Irakaskuntzari buruzko txosten estrategikoa aurkeztu du

Arantxa Iraola / **Donostia**

Unibertsitatez kanpoko irakaskuntzari buruz EHk egin duen txosten estrategikoa aurkeztu zuten atzo alderdi abertzaleko hainbat kidek. Txosten hori eztabaida eta gogoeta eragile izatea nahi dute, eta, horretarako, herrialdeetan mintegiak egingo dira datozen asteetan. Gogoeta horien emaitza bateratua maiatzaren 27an onartu nahi dute, eta ondoren hitzarturikoa hainbat gune politikotara eraman: «Besteak beste, Udalbiltzara».

«PROPOSAMEN honetan ez dugu konponbide magikorik ematen; estrategia bat erakutsi nahi dugu, herri gisa bizirik irauteko nazio eraikuntzari egindako proposamena da», esan zuen atzo txostenari buruz EHko Mahai Nazionaleko kide Anjel Mari Elkanok. Alboan irakaskuntzako arduradun Juan Mari Elorza eta arloko Bizkaiko arduradun Eli Zubiaga izan zituen. Elkarlanean, txostenaren nondik norako nagusiak azaldu zituen.

Elkanok txosten estrategikoa testuinguru zabal batean sartu behar dela esan zuen. «Irakaskuntzaren alorrean egiten dugun proposamen hau proposamen orokor batean txertatu behar da: alegia, Euskal Demokraziaren proposamenean hezurmamitu behar da», esan zuen. Azken urteetan Euskal Herrian hezkuntzak garatzeko izan duen esparrua «agortuta» dagoela esan zuen, eta haratagoko jauzia egin behar dela. «Hezkuntza politika berri eta nazionala aldarrikatzen dugu».

Txostenak, batetik, egungo egoeraren diagnosia egiten du, eta, esan zutenez, argitzalez osaturiko errealitatea islatzen du. Bestetik, euskal eskola nazionala definitzen saiatzen da.

«Beste akordio bat»

Txostenean oinarrituz «beste eskola akordio bat» lortu nahi dela esan zuen Elorzak. Akordio berritzailea izan behar duela esan zuen, orain arteko urratsetatik haratagokoa eta talde politiko zein sozialekin hitzartua. «Guztiekin egin nahiko genuke akordio bat, baina hezkunza sistema propio eta euskalduna eratzeko akordioa izango litzateke», esan zuen, «ez Espainiako Hezkuntza sistema hemen kudeatzeko». Horretarako, irakaskuntza mailan erakunde bat sortu beharko litzatekeela esan zuen Elorzak. «Kontseilu Nazionala deitu dugu guk, eta bilduko lituzke akordioko agente guztiak».

Aurrena EHko oinarri sozialek txosten horren edukia eztabaidatu eta adostea nahi dute, ordea. «Gure asmoa da, eskola munduan era batean edo bestean inplikaturik dauden kideak eta bestalde herri eta auzoetan irakasuntza mailan lanean ari direnak eztabaida honen inguruan biltzea», esan zuten.Horretarako, lau mintegi egingo dira. Bizkaikoa otsailaren 26an Otxarkoagan izango da, Nafarroakoa martxoaren 4an Zizurren, eta Arabakoa eta Bizkaikoa martxoaren 11an egingo dira Gasteizen eta Tolosan. Bilera horien ostean ekarpenak eta emendakinak zabaltzeko epea zabalduko dute eta maiatzaren 27an Irakaskuntza arloko Batzar Nazionala egin nahi dute, adosturiko idatzia onartu eta plazaratzeko.

Horren ostean, adosturiko idatzia Euskal Herriko «gune nazionaletan» aurkezten hasi nahi dutela esan zuten. Besteak beste, Udalbiltzan aurkezteko asmoa azaldu zuten.

EGUNKARIA

Ikasle talde bat, ordenagailuekin lanean.

NUPeko gobernu organoen «jarrera antidemokratikoa» salatu dute

Hainbat gazte taldek mobilizazioak egingo dituzte bihar unibertsitatean

Alberto Barandiaran / **Iruñea**

NAFARROAKO Unibertsitate Publikoan (NUP) gaur egungo gobernu organoek duten «jarrera antidemokratiko eta autoritarioa» salatu zuten atzo hainbat gazte taldek, eta apustua egin zuten unibertsitate «demokratiko, euskaldun eta asoziatibo» baten alde. Amnistien aldeko taldeak, Duina, Hautsi, IA, Jarrai, Dispertsioaren amaieraren aldeko plataforma, Euskaldunon Asanblada, Euskara Taldea, LAB eta ELA taldeek sinatutako agirian, erabakiak hartzeko gaitasuna ukatu izan dietela agertu dute, «ordezkaritza txikia utziz, eta ikasleon aldarrikapenei muzin eginez». «Politika antidemokratikoaren areagotzea» sumatzen dutela-eta zenbait adibide paratu zituzten ikasleek, nabarmenduz biltzeko eskubideak murriztu dizkietela, hitzaldiak debekatu, erakundeen dinamikak eta pertsonak kontrolatu... «Honengatik unibertsitate demokratikoa aldarrikatzen dugu, ikasleoi erabakitzeko benetazko gaitasuna emango diguna eta ikasleon eskakizunekiko irekia izango dena». Biharko mobilizazioak iragarri dituzte taldeok.



Zabalgarbiren kontrako ekologisten mozioa eztabaidatuko du Bilboko Udalak

Hirigintza arloko baimena behar du Diputazioak errauste planta gauzatzeko

Kristina Martin / **Bilbo**

Zabalgarbi hondakin solidoak errausteko plantaren proiektua Bilboko ingurugirorako eta hiritarren osasunerako kaltegarria izateaz gain, ekologisten ustez, legearen kontra doa. Horregatik, hain zuzen, errausteko plantaren kontrako mobilizazioak eta sinadura bilketa egiten ari da Bizkaia Bizirik taldea. Halaber, Udaleko talde politikoek biharko osoko bilkuran eztabaidatu eta zuzenketak aurkezteko aukera izango dute talde ekologistak errauste plantaren kontra eginiko mozioari. Ekologistek «konpromisoz» jokatzeko deia egin diete alderdi politikoei.

ZABALGARBIK Europako ingurugiro politiken kontrako eredua bultzatu, Bilboko kutsadura areagotu, hiritarren osasuna kaltetu eta lurrak nekazaritzan erabiltzeko oztopatzeaz gain, legez kontrako proiektua da; Bizkaia Bizirik talde ekologistako kideek atzo Bilbon egin agerraldian egin zuten salaketa.

Zabalgarbi, Artigasen eraiki nahi den hondakin solidoak errausteko plantaren izena da; Bizkaiko Foru Aldundiak bultzatu du proiektua. Egitasmoaren kontrako jarrera adierazteko kanpaina abiatu dute ekologistek. Mendi martxak eta manifestazioak eginak dituzte, eta oposizioarekin segitzeko beste mobilizazio batzuk iragarri dituzte. Izan ere, zapatu eguerdian Arenaletik Diputazioraino kalejira egingo dute. Halaber, domekan, 10:00ak aldera Rekalde eta Alonsotegitik abiatuko den mendi martxa antolatu dute, eta eguerdian Zabalburutik Arriaga Antzokira joango den manifestaziorako deia ere egin dute.

XOUSE SIMAL

Bizkaia Bizirik talde ekologistako kideak, Jon Torre eta Txerio Alcantara, atzoko prentsaurrean.

Sinadura bilketa «arrakastatsua»

Horrekin batera, sinadura bilketa egiten ari dira ekologistak, eta «denbora laburrean gizarteko arlo ugaritako ordezkarien atxikimendua lortzen ari gara», jakinarazi zuen Jon Torrek, Bizkaia Bizirik taldeko kideak.

Euskal Herriko hainbat pertsonaia ospetsuk atxikimendua adierazi dute. Abeslarien artean Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Tapia eta Leturia edota Muguruza anaiek sinatu dute Zabalgarbiren aurkako manifestua; Txillardegi eta Arantza Urretabizkaia idazleak; Ramon Barea aktoreak; Juanito Oiartzabal eta Iñurrategi anaiak mendizaleak; margolariak, eskultoreak, arkitektuak, hedabideetako langileak, sukaldariak, medikuak eta EHUko irakasle zerrenda zabalak bat egin dute.

Bestalde, Zabalgarbik aurrera egin ahal izateko Bilboko Udaleko lan baimena behar duenez, bihar bertan alderdi politikoek aukera izango dute ekologistek aurkeztutako errauste plantaren kontrako mozioa osoko bilkuran eztabaidatu eta proiektuari zuzenketak aurkezteko. Bizkaia Bizirik taldeak alderdi politikoei konpromisoz jokatzeko eskatu zien atzoko prentsaurrean, eta IU-EB, EH, ICV eta PPri eskatu diete orain arte adierazitako proiektuaren kontrako jarrera berresteko. Osoko bilkurak dirauen bitartean, ekologistak udaletxeko eskaileretan bilduko direla iragarri zuten.

Hala, Jon Torrek ohartarazi zuenez, «ez dugu Lemoizko zentral nuklear edota Itoizko urtegiarekin gertatutakoa errepikatu nahi. Ezlegezko proiektuak aurrera joaten dira, eta azkenean justiziak debekatzen dituenez, bertan behera gelditzen dira, baina kaltea jada eginda dago, eta ez dago atzera bueltarik».

EH: «Ageriko irregulartasunak daude»

BILBOKO Euskal Herritarrok (EH) udal taldeak atzo iragarri zuen biharko osoko bilkuran Zabalgarbi proiektuaren kontra egingo duela. Lander Etxebarria EHko zinegotziak adierazi zuenez, «Zabalgarbik Bilboko Udalari lan baimena eskatu zion urtarrilean eta aurkeztutako txostena aztertu eta zuzenketak egiteko bi hilabete eskas eman dituzte».

Zabalgarbiko proiektuaren bultzatzaileek gizarteak errauste plantaren kontrako jarrera adierazteko astirik ez izateko trikimailua erabili dutela uste du EHk. Nolanahi ere, «milaka orriko txosten hori begiratzeko oso denbora gutxi izan arren, gainbegirada batean hainbat irregulartasun antzeman ditugu», ohartarazi zuen Etxebarriak.

Marta Perez EHko zinegotziak irregulartasun horietako batzuk aipatu zituen. «Hasteko, ez da errausteko planta soila, zentral termikoa baizik. Bilbo, «kutsatutako zonalde» dago izendatuta, eta legez ezin da zonaldeotan ez errauste plantarik ez zentral termikorik eraiki. Hondakinak erraustea murrizketa, berrerabilpena eta birziklapena bultzatzen dituen eredu eramangarriaren kontra doa. Bideragarritasun ekonomikoaren eta kostuen txostenik ez da inon agertzen, eta azkenik, zentralaren isuriak, errautsak eta bestelako zaborrak non metatuko diren ere ez du zehazten», jakinarazi zuen EH-ko kideak.

Bestalde, «Udaleko Hirigintza arloko teknikoak irregulartasun horietaz ez konturatzea harrigarria da», esan zuen Marta Perezek.

Errobiko erreka komiteak uraren kalitatea hobetu nahi du

Komitearen helburuak finkatu dituzte Uztaritzeko biltzarrean

Eneko Bidegain / **Ustaritze**

ERROBIKO erreka hitzarmenaren komiteak ondoko denboretako ekintzak eta egitaraua aurkeztu zituen atzo arratsaldean Uztaritzen. Errobi errekaren bazterretako udalak eta uraren arloko adituak biltzen ditu komite horrek. Uraren kalitate bakteriologikoaren hobetzeari emanen diote lehentasuna. 221 milioi libera (5.525 milioi pezeta) inbertituko dituzte uraren kalitatearen hobetzeko, 260 milioiko liberako aurrekontutik. Zati horretatik gehiena joanen da kalitate bakteriologikoaren berreskuratzera, 188 milioi libera hain zuzen.

Errobiko errekek kalitatea gain behera azkarra izan dute azken denboretan, erreka-zaintzako adituek atzo zehaztu zutenez. Sail horrek edateko uraren baliabideen segurtatzea bere gain hartuko du, baita istripuzko kutsadura arriskuen neurtzea ere.

Bertze ekintza sail bat erreken babesteaz, antolatzeaz eta entretenitzeaz arduratuko da. 16 milioi libera inbertituko dituzte sail horretan. Uholde arriskuen aurkako plana kokatu dute aurrekontu horretan, bertzeak bertze. Bertze hainbeste diru inbertituko dute gune hezeei balioaren emateko. Arrainen kudeaketa eta baliabideen ezagutza hobetu nahi dituzte.

Elkartasunaren beharra

Jean-Michel Galant Azkarateko auzapezak edateko ura gehien bat kostaldeko hirietara doala zehaztu zuen. «Zenbaki ikaragarriak» azpimarratu eta kostaldea eta barnealdearen arteko elkartasuna aldarrikatu zuen. Bernard Auroy komiteko lehendakariak «sistema baten aurkitzera ahalegintzen» direla bainan «ez dela erraza» erantzun zion. Komiteak aurrekontuaren zati handi bat bere gain du : 116 milioi libera.

Kalamu landaketak eta kontsumoa ugaritu egin direla dio Nazio Batuen txostenak

Drogen Fiskalizaziorako Nazioarteko Batzordeak iazko jardunaren berri eman du

Agentziak / **Viena**

Nazio Batuen Erakundeko (NBEko) Drogen Fiskalizaziorako Nazioarteko Batzordeak bere jardunbidearen berri ematen duen txostena aurkeztu du, eta mundu zabalean droga trafikoa eta kontsumoa zein bilakaera izaten ari diren azaldu du. Ildo berean, drogarekin lotutako jarduerak saihesteko bideratu diren hainbat politikaren balorazioa ere egin dute aipatu txostenean.

KONTINENTEZ KONTINENTE munduko mapa zehatza aurkeztu dute NBEko txostenean drogen ekoizpen eta kontsumoa irizpidetzat hartuz. Oro har mundu osoan kalamuaren kontsumoa eta ekoizpena ugaritu egin direla esan dute, eta drogen trafikoa saihesteko egin diren politika batzuk oso arrakastasuak izan badira ere, beste toki batzuetan ez dela inolako emaitza baikorrik gauzatzea lortu.

Europan kalamuaren landaketa eta diseinuzko drogen fabrikatzea ugaritu egin direla esan dute. Kalamu uztak batez ere Albanian ugaritu direla azaldu dute. Diseinuzko droga gehien fabrikatzen den lekua, berriz, Holanda dela nabarmendu dute.

Era horretako drogen kontsumoak Europan izan duen igoera oso nabarmena izan dela azaldu dute, gainera. «Europako Batasunean oro har anfetaminen moduko drogen kontsumoa handiagoa izan da kalamuarena berarena baino», dio txostenak atzo Vienan aurkeztutako txostenak.



RICARDO MAZALAN / AP

Txostenak, besteak beste, Kolonbian droga ekoizpenak gutxitzeko egindako saioak ekarri ditu gogora, Argazkian, polizia bat Kolonbiako Rionegron, opio-landaketa bat antzeman ostean horren berri ematen.

Hainbat ahalegin

Nazio Batuen Erakundeko Drogen Fiskalizazioaren Nazioarteko Erakundearen xede nagusietako bat drogen legez kanpoko ekoizpena eta trafikoa murriztea da, eta droga horien erabilerak zientziaren munduari ekarri diezazkioketen onurak aztertu eta sustatzea.

Legez kanpoko ekoizpena eta trafikoa murrizteari dagokionez iaz zenbait urrats egin zirela diote txostenean, baina guztiak ez direla izan emankorrak. Esate baterako, Birmanian, Laosen, Tailandian eta Vietnamen bertako erakundeen presioaren ondorioz opio-belarraren ekoizpena nabarmen jaistea lortu da. Afganistanen, ordea, –taliban agintariek sustatuta– urte betean %40 ugaritu dira opio-belarrei eskainitako lur-sailak.

Halaber, kezkatuta dago NBEko batzordea Erdialdeko Ameriketako gobernuetan oso jarrera «liberalak» sumatu dituelako banketxeen eta jokoaren kontrolari dagokionez, eta horrek «diru zuritzea» kontrolatzeko arazoak ekarri ditzakeelako.

Internet, kalamu hazien azoka

KALAMU landaketak nabarmen ugaritzearen arrazoietako bat Internet izan dela esan du NBEko batzordeak. «Izan ere, Internet bidez oso erraz eskuratu daitezke kalamu haziak, bai eta landarea landatu ahal izateko beste hainbat lanabes ere», dio txostenak. Ondorioz, jende asko bere kabuz kalamua landatzen hasi den susmoa dute txostengileek.

Azaldu dutenez «kezkagarria» da hori eta neurri bereziak hartu behar dira zeregin horretan diharduten webguneen jarduna eteteko.

Kalamuaren kontsumoa, hein handi batean, kalamua kontsumitzeak kalterik egiten ez duen ustea zabaltzen ari delako handitu dela dio NBEko txostenak. Baina uste hori «faltsua» dela gaineratu du.

nabarmentzekoak

Droga, mundu zabalean negozio

Droga ekoizpena mundu zabalean da negozio. Toki bakoitzean ezaugarri bereziak ditu, ordea. Hona hemen, iazko jardunari begira, txostenak aipaturiko ekoizlerik garrantzitsuenak;

Albania • Kalamua landatzen duten lur-sailak nabarmen ugaritu dira bertan.

Kolonbia • Gobernuak koka landaketak kontrolatzeko ahaleginak egin baditu ere, neurri handi batean antzuak izan dira. Munduan kokaina gehien ekoizten duen estatua izaten jarraitzen du.

Afganistan • Agintari talibanen babesean opiolandarearen ekoizpena nabarmen sustatu da bertan. 90.000 hektarea lur-sail darabiltzate horretarako eta mundu zabaleko ekoizpenaren %75 bertan lortzen da.

Txina • Anfetaminen erako droga klandestino gehienak bertan fabrikatzen dituzte.

Kazakhstan • Kalamua era basatian sortzen da bertan eta era horretako 30.000 hektarea lur-sail daude herrialde horretan. Halaber, *ephedra* landarea ugaria da bertan eta bertatik efedrina ateratzen dute.

Holanda • Europan droga sintetiko gehien, bertan ekoizten da. Europako beste hainbat tokitan ere ugaritzen ari dira ekoizpen horretan diharduten laboratorioak ere.

Maroko • Europara sartzen den kalamu asko bertatik iristen da. Landaketa, hala ere, Afrikako toki ugaritan egiten da, besteak beste Egipton, Ghanan eta Senegalen.

st su
U I
I G KI

En r s uru k
Ik sk t t s kl untz m t n zt r n ku lfk z tl rtu t h r n l u l rtz k.
Zu n m rk t r tz - tu z t z n, CCI y nn ys s u (n k M rk t - rtz t In ustr G n r) zu n s n t r nf rm z m n t t h rr k f rm l- t l uzt t n l untz k.
Ez z n u rk tu r n k sk t z r tzur
5 5 5 5

E EKT EG
ECT
[L h k t u l k
r k sl l un n l z k]
Eusk l ut n m
Erk k r nts n 2 k urt rr l r n 3 n r t r tut k
l h k t r zk n l h k n rtu t z n rtu n h-
n n k z rr n k L h k t - t l k t C m us t k Err k-
t r r tz t k r rk-t ul t n z ltz n r l.
L n 2 k ts l r n 23 n.
I K SLEEN E EKT E E,
M r n zk r t V ll r.

Milaka arrain hil dira Allozko urtegian, eta beste asko Arga ibaira eraman dituzte

Gurelur talde ekologistak Nafarroako Gobernuaren «axolagabekeria» salatu du

Edurne Elizondo / **Iruñea**

Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Sailak 10.000 arrain inguru bizirik atera zituen atzo Allozko urtegiko kanaletik, eta Arga ibaian bota zituen. Ordea, beste milaka arrain hil dira Allotzen, kanala urik gabe gelditu ondoren.

Josu Santesteban

Gurelur talde ekologistako kideek iazko azaroan Arga ibaira botatako arrainak.

ALLOZKO urtegiko kanaletik 8.000 eta 10.000 arrain inguru bizirik atera zituzten atzo Nafarroako Gobernuko Ingurugiro Saileko teknikariek, eta Arga ibaian bota zituzten, Garesen. Gobernuko arduradunek atzo aditzera eman zutenez, astelehen goizean jakin zuten arrainak harrapatuta eta ia urik gabe gelditu zirela Allozko urtegitik Salado ibaira doan kanalean.

Allotzen bi urtegi daude, bata bestea baino handiagoa. Ezbeharra, zehazki, urtegi txikienean gertatu zen. Kanala urik gabe gelditu zen, Iberdrolak argindarrik gabe utzi zituelako urtegiko instalazioak , urtegian hainbat konponketa egin ahal izateko. Astelehen arratsaldean hasi ziren berriro urtegi txikitik kanalera ura botatzen.

Gurelur talde ekologista ez dago ados ezbeharrari buruz Gobernuak eman dituen xehetasunekin, eta Allozko urtegian gertatzen ari zenaren berri joan den astetik bazutela salatu du talde horretako kide Antonio Munillak, EGUNKARIAri egindako adierazpenetan.

Gobernuaren «axolagabekeria»

Allotzen arrain asko hil dela nabarmendu zuen Munillak —50.000 milatik goiti—, eta Allozko urtegiko arrainen afera iazko azaroan hasi zela. «Azaroaren 8an urtegi handia hustu egin zuten hainbat konponketa egiteko, eta arrain guztiak —karpak, barboak eta loinak— txikira igaro ziren. Txikian, ordea, ez zen guztientzat adina ur. Joan den igandean, berriz, Lizarrako bizilagun batek dei egin zigun kanala arrainez beteta zegoela errateko».

Gurelurreko kideek milaka arrain eraman zituzten joan den astean Allozko urtegitik Arga ibaira, 28.000 inguru, hain zuzen ere.

Gurelur talde ekologistak Nafarroako Gobernuaren axolagabekeria salatu eta Ingurugiro zuzendari nagusi Ignacio Elorrietaren dimisioa eskatu du. «Zer gertatzen ari zen bazekiten, baina ez dute deus egin».

Zubietan eta Arellanon bi lagun hil dira ezbehar banatan

Bata amildegi batetik erori zen herenegun; bestea motokultore azpian gelditu zen atzo

Europa Press / **Iruñea**

ZUBIETAN (Nafarroa), J.P.E. 85 urtekoa zendu zen astelehen gauean, etxean nekazaritza lanak egiten ari zela 25 metroko amildegi batetik erori ostean. Gaueko hamaiketan jaso zuen horren berri Foruzaingoak, baina ordu batzuk lehenago hil zela adierazi zuen istripua izandako lekura joan ondoren.

Motokultorearen azpian harrapatuta

Arellanon, 66 urteko AL.A.E. hil zen atzo goizean, gidatzen zuen motokultorea eta atoia irauli eta azpian harrapatuta gelditu ondoren. NA-6.340 errepideko 19,900. kilometroan jazo zen ezbeharra, Urbiolatik Allorako bidean.

Foruzaingoaren arabera, motokultoreak burua zapaldu zion AL.A.Eri eta horrek eragin zuen haren heriotza. Dena den, ikerketa egiten ari da gertaeraren zioa argitzeko.

Gidatzen zuen motokultoreak NA-63742-VE matrikula zuen.

Sareko Argiaren aurkezpena egin dute Koldo Mitxelenako Behatoki Digitalean

Astekariaren edukiak aurkitzeko bilatzailea jarri dute webgunean

Ainara Mendiola / **Donostia**

ARGIA astekariaren webgunea edukiak eta zerbitzuak berritzen ari da etengabe, eta bilatzaile bat jarri du martxan astekariko informazioa arakatu eta berreskuratu ahal izateko. Testu libreetan, karpetetan edo fitxetan bila daiteke informazioa. Horrez gainera, beste hainbat zerbitzu eskaintzen ditu: euskal kulturaren urtekaria, prentsaren laburpena eta jatorrizko testura jotzeko lotura, sagardotegien zerrenda eta mapa, Gotzon Garate idazleak egindako atsotitz bilduma —euskara, gaztelera, latin eta ingelesez—, 1963tik 1997 arte Argian argitaratu ziren elkarrizketak eta abar. Atzo goizean prentsaren aurrean aurkeztu zuten zerbitzaria *Argia*-ko zuzendari Pello Zubiriak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendari Maria Jesus Aranburuk; Koldo Mitxelena Kulturunean pasa den hilabetean martxan jarri zuten Behatoki Digitalean egin zuten aurkezpena.

Argia astekariak, Adur informatika enpresak eta Antza inprimategiak eratu zuten Sareko Argia 1997an. Aldizkariaren edukiez gain, propioak ere eskaintzen ditu, paperaren gastuak aurrezteak beste aukera batzuk ematen dituela eta. Adibidez, sagardotegien txokoan ehun lotura dauzka, munduko leku askotan egiten baita sagardoa. Gainera, zenbait zerbitzu gazteleraz aurki daitezke *http:// www.vasconia.net* helbidean, Antzaren eskutik. *Argia*ren helbidea, ostera, honakoa da: *http://www.argia.com*. Harpidedunei testu formatoan bidaltzen diete informazioa —2.000 harpidedun ditu—.

«Gure teknologia hizkuntza eta dokumentazio tratamendua egiteko sortu da, baina kontuan hartuta estandar batzuek zailtasun handiak dituztela euskararekin. *El Periodico de Catalunya*-ko arduradun batzuek esan zutenean ideia zela periodiko pila bat katalanez eta beste pila bat espainolez edukitzea egunero, askok pentsatu zuten zoratuta zeudela. Baina, denborak erakutsi du ezetz. Gu desarroilatzen ari garen teknologia bide horretatik doa», esan zuen Zubiriak.

Edurne Koch

Pello Zubiria *Argia*-ko zuzendaria eta Maria Jesus Aranburu Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura zuzendaria.

MERKATARITZA, INDUSTRIA ETA TURISMORA 150.000 MILIOI PEZETA ZUZENDUKO DIRA

Ekonomia Sustatzeko Plana egin dute Jaurlaritzak eta diputazioek

- Sustapen Ekonomikorako Euskal Kontseilua eratuko da lau erakundeen arteko elkarlana koordinatzeko
- Proiektu Estrategikoen Programaren bidez enpresetara 26.800 milioi pezeta zuzenduko dira
- Sustapen Plana gaur sinatuko zutela aurreikusi arren, ekitaldia bertan behera gelditu da

Erredakzioa/ **Donostia**

2000-2003rako Ekonomia Sustatzeko Plana itundu dute Eusko Jaurlaritzak eta Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko diputazioek, hainbat hilabetetako negoziazioen ostean. Lau erakundeetako gobernu kontseiluek atzo eman behar zioten euren oniritzia planari, eta gaur egin behar zuten sinadura ekitaldia Gasteizen. Atzoko atentatuaren ostean, ordea, bertan behera gelditu zen gaurko ekitaldirako deialdia.

Ekonomia Sustatzeko Planaren xede nagusia erakundeon lana egituratzeko tresna izatea da, industria, merkataritza eta turismoaren sektoreetan dauden oinarrizko premiak asetzeko helburuarekin. Planean itundutako premia horietara, orotara, 150.000 milioi pezeta zuzenduko dira lau urtetan.

XOUSE SIMAL

Ekonomia Sustatzeko Planak industria, merkataritza eta turismo sektoreetarako lagutnzak zehaztuko ditu.

26.800 milioi industriara

Jose Luis Bilbao Bizkaiko Lehendakaritzako diputatuak atzo azaldu zuenez, Planak industriaren alorrean egin behar diren proiektu estrategikoak definitzen eta zehazten ditu. «Industria alorreko lehentasunezko sektoreko zein proiektu estrategiko lagunduko diren zehazten du hitzarmenak. EAEko sare industrialari dibertsifikazio eta berritasun ekintzak aportatzen dizkieten proiektuak lagunduko dira, baita enpresa arteko elkarlana zein nazioartekotzea bultzatzen duten programak ere», azaldu zuen Jose Luis Bilbaok.

Programaren barruan Bilbo eta Pasaiko portuen eta Forondako aireportuaren sostengurako eremu logistikoen lurzoru industrialaren erreserbarako eta garapenerako proiektu zehatzak jasotzen direla azaldu zuen Bilbaok.

Industriako proiektu estrategikootara guztira 26.800 milioi pezeta zuzenduko dira. Horietatik 20.800 Eusko Jaurlaritzak jarriko ditu, eta gainerako 6.000 milioi pezetak hiru diputazioetatik etorriko dira.

Jose Luis Bilbaok adierazi zuenez, «sor daitezkeen proiektuak aztertu eta erabakitzeko eta haietara egingo diren aportazioak zehazteko asmoz, Ekonomia Sustatzeko Euskal Kontseilua sortuko da, lau erakundeetako ordezkaritzarekin».

Enpresei emango zaizkien laguntza hauek, Jose Luis Bilbaoren arabera, Europako Batasunak baimendutako laguntzen barne daude.

Bi langile bizkaitar elektrokutatuta hil dira Kantabrian, gasolindegi batean lanean ari zirela gertatutako istripuan

- *Istripua Beranga herrian gertatu zen, langileen aldamioak goi-tentsioko kableak ukitutakoan*

Erredakzioa / **Bilbo**

BI langile bizkaitar hil ziren atzo Kantabriako Beranga herriko gasolindegi batean gertatutako lan istripuaren ondorioz, CCOO sindikatutik jakinarazi dutenez. Hildakoak Aitor Torreldea eta Juan Carlos Romero dira. 30 urte zituen lehenak eta 41 besteak.

Ezbeharra arratsaldeko bostak aldera gertatu zen. Bi langileak Berangako gasolindegian ari ziren lanean aldamio baten gainean, gasolindegiko instalazioetan kartel bat jartzen ari baitziren. Dirudienez, aldamioa mugitzerakoan goi-tentsioko kable batzuk ukitu eta langileak elektrokutatu egin ziren.

Sorospen zerbitzuek iritsi zirenean ezin izan zuten ezer egin langileen bizitza salbatzeko, elektrokuzioaren ondorioz heriotza bat-batekoa izan baitzen.

Iturri batzuen arabera, beste langile bat ere zauritu zen ezbeharrean.

CCOOtik adierazi dutenez, hildako langileek Lurceco izeneko enpresan ziharduten. Enpresa horrek Zamudion du egoitza, eta gasolindegietako mantentze lanak egiten dituela azaldu dute sindikatuko berriemaileek.

Unilever enpresak 25.000 langile kaleratu eta 100 enpresa itxiko ditu bost urtetan

- *246.000 enplegatu ditu egun, eta 88 herrialdetan ditu enpresak*

Europa Press / **Rotterdam**

UNILEVER enpresa angloholandarrak 25.000 langile kaleratu eta 100 enpresa itxiko ditu hurrengo bost urteetan. Unilever enpresak Calvin Klein usain gozoko produktuak, Dove eta Lux edertasun produktuak eta Magnum izokinak ekoizten ditu, besteak beste.

Unileverrek promozioa sustatuko du aurrerantzean, eta 2004. urtea bitartean 1.000 milioi libra esterlina (267.000 milioi pezeta) gastatuko ditu asmo horretan. Ekoizten dituen 1.600 produktuetatik 400 aukeratuko ditu, horien salmentak handitzeko eta, horrenbestez, ekoizpen orokorra %6 igotzeko.

Enpresak 246.000 enplegatu ditu 88 herrialdetan dauden 300 enpresatan. Antony Burgmans arduradunak enplegu murrizketa defendatu zuen, «epe luzera enpresaren finantzak sendotzeko bide bakarra hori delako» Burgmansen iritziz, kaleratzeak lider diren ekoizpen sailetan egingo dira. Unileverrek 6.140 milioi florin (463.000 milioi pezeta) irabazi zituen iaz, 1999an, aurreko urtean, baino %6 gutxiago.

Marcos Larrañaga enpresa bergararrak Wagner alemaniarra erosi du

Efe / **Donostia**

BERGARAKO (Gipuzkoako) Marcos Larrañaga SAk, sukaldeko Lacor produktuen egileak, alor bereko Alemaniako enpresa garrantzitsuenetako baten jabe egin da —Wagner—. Akordioa otsailaren 18an sinatu berri dute bi aldeek Frankfurt hirian, Alemanian. Erosketak herrialde horretako merkatuan barneratzeko xedea du, enpresako arduradunen arabera. 50 urte bete zituen iaz Marcos Larrañaga SAk, eta berriki, sektore bereko Bergarako Ibili enpresarekin egin zuen bat.

Manifestazioak egingo dira bihar lan istripuen aurka

CCOOk, UGTk eta USOk antolatu dituzte, eraikuntzako grebarekin batera

Joseba Aiartza-Irene Arrizurieta / **Bilbo-Iruñea**

CCOO, UGT eta USO sindikatuek manifestazioetara deitu dute bihar EAEko hiriburuetan, lan istripuengatik protesta egiteko. Bihar eta etzi greba izango da eraikuntzan, arrazoi beragatik. Sektore horretako istripuen berri eman dute UGT eta CCOOk Nafarroako Parlamentuan.

SINDIKATUEK kalera atera nahi dute lan istripuen aurkako protesta. Bilbon, Donostian eta Gasteizen bihar arratsaldeko zazpietan izango diren manifestazioan euskal langile guztiei parte hartzera deitu diete, «langileen arazo nagusia delako, eta arazo horrek gizarte osoari eragiten diolako».

Manifestaziorako deialdia Santiago Bengoa, Carlos Trevilla eta Jose Luis Gonzalez CCOO, UGT eta USOko idazkariek egin zuten atzo. Hiru buruzagiak kezkati agertu dira euskal sindikatuen arteko hausturagatik, banaketa horrek «erantzun bateratua egitea eragoztn duelako».

Biharko manifestazioko aldarrikapenak batez ere enpresariei eta administrazioei zuzendu dizkiete arduradun sindikalek. Lehenengoei, prebentzio neurriak ez betetzeagatik, kasu askotan «zein diren ere ez dakitelako», Bengoaren hitzetan. Gainera, kontratazio mota batzuek —behin-behinekoa, azpikontratazioa, egongaiztasuna— istripuetarako arriskua areagotu egiten dutela gogoratu dute.

«Goizean lanera joandako langileetatik lauzpabost etxera ez itzultzea oso larria da. Horrek esan nahi du lan eskubideak bizitzeko eskubidearekin topo egiten duela», salatu du Trevillak.

Administrazio publikoei, berriz, segurtasun arauak ez betearaztea leporatu diete. Horretaz, ordezkari sindikalek Osalan EAEko Lan Segurtasunerako erakundearen aurtengo gestio egitasmoa kritikatu dute, prebentzio arauen kontrol ikuskaritzarako sindikatuak eta enpresarien elkarteak alde batera utzi dituelako.

Biharko manifestazioa eraikuntza alorrean deituta dagoen grebarekin batera etorriko da. Greba hori Hego Euskal Herrian eta Espainian deituta dago bihar eta etzi, hain zuzen ere sektore horrek istripu kopururik handiena jasaten duelako. CCOOek eta UGTk deitutako grebaldi horrekin ez dute bat egin ELA eta LAB sindikatu abertzaleek.

Istripuen %25 eraikuntzan

Bestalde, CCOO eta UGT sindikatuak Nafarroako Parlamentuan izan ziren atzo arratsaldean, herrialde horretan eraikuntza alorrean jazotzen diren lan istripuak «salatzeko». Severo Garcia CCOOko kidearen esanetan, lan istripu guztien %25 eraikuntza sektorean gertatzen dira Foru Erkidegoan, hau da, 3.000 lagun inguruk izan zuen ezbeharren bat iragan urtean.

Era berean, azaldu zuen 14.000 langile dituen sektorean behin behinekotasuna «izugarria» dela, %95ekoa, hain zuzen. Hortaz, bi sindikatuon ustez, sektore honetan bereziki ez da betetzen Madrilgo Gobernuak onartutako Lan Istripuen Prebentziorako Legea.

Halaber, sindikatuek kritikatu dute Administrazioa bera dela eraikuntza arloko enpresa handienetakoa, eta hark egindako legea berak ez badu betetzen, «alferrikakoa da araudia».

Ildo berean, Nafarroako Parlamentuko alderdiei lege «berri eta eraginkorrago bat» onartzeko eskatu diete CCOOk eta UGTk, langileon lan baldintzak oso kaskarrak direlako. «Joan den urtean 6 hildako izan ziren eraikuntzan eta aurten jadanik, bi behargin hil dira», gaineratu dute. Datu hori aintzat hartuz, istripuen eragina %10etik %20ra iragan dela salatu dute.

XOUSE SIMAL

CCOO, UGT eta USO sindikatuetako buruzagiak, biharko manifestaziorako deialdia egiterakoan.



MONIKA DEL VALLE

BBVA bankuko akziodunen batzarraren irudia, Bilboko Euskalduna jauregian.

BBVAk Telefonicarekin sinatu akordioa zehaztu beharko du

Bankuak ukatu egin du %10 baino gehiago erosi izana

Agentziak / **Madril**

Banco Bilbao Vizcaya Argentariak (BBVA) Telefonica komunikazio enpresarekin sinaturiko akordioaren xehetasunak eman beharko ditu. Espainiako Gobernuak bankuak Telefonican izan dezakeen partaidetzak %10en azpikoa izan behar duela gogorarazi du, eta hori ziurtatzean bakarrik onartuko duela akordioa. BBVAk ukatu egin du Telefonicako %10 baino gehiago erosi duela.

ESPAINIAKO GOBERNUA BBVA eta Telefonicaren arteko akordioari betoa jartzeko aukera aztertzen ari dela plazaratu zuen atzo *Abc* egunkariak. Legearen arabera, ezin da erosi lehen enpresa publiko izan denaren %10 baino gehiago, eta BBVAk ez du zehaztu Telefonicako %10 baino gehiago erosi duen ala ez.

Egunkari horrek berria kaleratu eta gutxira, BBVAko iturri ofizialek Telefonicako %10 baino gehiago erosi izana gezurtatu zuten. BBVA komunikazio enpresaren %8,6ren jabe da egun, eta partaidetza hori handitzeko asmoa azaldu du, «betiere %10a gainditu gabe». Espainiako Gobernuak aste honen bukaera arteko epea eman dio BBVAri Telefonican zenbateko partaidetza daukan zehazteko.

Monopolioak saihesteko xedea

Espainiako Gobernuak bi enpresaren arteko akordio mota hauei betoa jartzeko eskubidea du, *golden share* eskumenaren bitartez (administrazioak aurrez emandako baimen ahalmena). Rodrigo Rato Gobernuko Ekonomia ministroak esan zuenez, «alor berean lehiatzen diren bi enpresetan banku bera ez egotea da, horrela lortuko baita monopolioa saihestea».

Jose Maria Aznar Espainiako presidentea eta Francisco Gonzalez BBVAko lehendakarietako bat —Emilio Ibarra da bestea— atzo elkartu ziren, baina ez zen bileran hitz egindakoaren berri eman.

laburrean

■ ELA sindikatuak manifestazioa egingo du Bilbon negoziazio kolektiboaren inguruko aldarrikapenekin

NEGOZIAZIO kolektiboa bultzatzeko, ostiral honetan Bilbon ELAko delegatuek manifestazioa egingo dutela iragarri zuen atzo Jose Elorrieta sindikatuko idazkari nagusiak Tolosako ELAren egoitza berriaren inaugurazioan. Manifestazioa Confebask patronalaren egoitzaren atarian egindako kontzentrazio batekin amaituko da. Elorrietak azaldu zuenez, sindikatuak 35 orduko lan astearen aldarrikapenari eusten diola azpimarratu nahi du eta 1994tik hona izan den hazkunde ekonomikoa ez dela langileengara iritsi salatu zuen.

■ Bolanta sareak 2002. urtean debekaturik egongo direla berretsi du Europako Auzitegiak

EUROPAKO Justizia Auzitegiak berretsi egin zuen atzo 2002ko urtarriletik aurrera bolanta sareak debekaturik egongo direla Europako Batasuneko uretan. Horrela, Luxenburgoko Auzitegiak atzera bota ditu Frantziako eta Irlandako arrantzaleen ordezkariek Europako Kontseiluaren erabakiaren aurka aurkeztu helegiteak. Yeu uharteko arrantzaleek eta Irlandako zenbait arrantzale elkartek aurkeztu zituzten helegite horiek.

■ Bizkaiko Aldundiak, Eudelek eta BBK-k enplegua sustatzeko zentroak eratuko dituzte

BIZKAIKO Aldundiak, Eudel Udalen Elkarteak eta BBK-k hitzarmen bat sinatu zuten atzo herrialde honetan enplegua bultzatzeko zentroak sortzeko. EAEko erakundeak prestatzen ari diren Enplegu Egitasmoaren barruan dago hitzarmen hau. Lau urteko iraupena izango du eta 400 milioi pezetaz hornituko da, BBK-k eta Aldundiak erdibana jarritakoa. Zentro horiek Bizkaiko eskualdeetan kokatuko dira, lan aukerak, autoenplegua nahiz enpresen sorrera bideratzeko.

GARI GARAIALDE

Industria jardunaldiak La Sallen. Industria jardunaldiak burutu ziren atzo Andoaingo La Salle Berrozpe Ikastetxean, Ibermatika enpresarekin sinatu akordio teknologikoaren ostean. EAEko Lanbide-Kualifikazioen sistema berria izan zuten hizpide, eta *La Salle Berrozpe eta Enpresak* gaia jorratu zuen Mikel Balerdik, ikastetxeko zuzendariak.

Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

'Golden share'

Edo urrezko akzioa. Hori izan zen atzoko hizketagai nagusietako bat. Nekez sinets daiteke hauteskundeen aurretik BBVA (-%1,37) eta Telefonicaren (-%2,36) arteko akordioan Espainiako Gobernuak eskua sartuko duenik. Bankuak azaldu duenez, ez du %10eko partaidetza gainditzeko asmorik eta hori da Gobernuak bere beto eskubidea erabili ahal izateko baldintza. Gainontzean, Terrak (-%7,5) aldakortasuna zer den erakutsiz jarraitzen du eta, Telepizzak (%3,34), txerri mozorroa aukeratu du, inauteriak aurreratuz edo. Endesak (%3,99) eta Amadeusek (+%4,45) egun ona izan zuten atzo, BSCH (-%1,36), Ferrovial (-%2,99) eta Continentek (-%2,65) ez.



■ KONKURRENTZIA Deunaren azken miraria: Telefonicak euskarazko deiei erantzuteko *call center* bat iriki du Donostian. Pixkanaka, bagara.

■ LATIBEXean Mexikoko Telmex telekomunikabide taldea, Venezuelako Provincial bankua (BBVAren taldekoa), Inbursa, Globo Cabo eta Brasilgo Electrobras sartuko dira. Bostok merkatuaren kapitalizazioa zortzi halakotuko dute.

Ipar Irlanda Gobernu autonomoa bertan behera

LONDRESKO GOBERNUAK BAZTERTU DU «EZEIN ARMA TRUKAKETA, IPAR IRLANDAKO TALDE PARAMILITARREKIN»

IRAk ukatu egin du armak utziko dituela, soldadu britainiarrak murriztearekin batera

- Erakunde armatu errepublikanoak gezurtatu egin du desarmerako egutegia finkatu duela
- Orain aste eta erdi egindako proposamenak Desarmerako Batzordeko mahaitik kanpo daudela azpimarratu du
- Erresuma Batuko komunikabide batzuen arabera, IRA prest legoke armak uzteko borondate oneko keinu gisa

Erredakzioa / **Donostia**

IRA Irlandar Armada Errepublikanoak gezurtatu egin ditu azken egunetan Erresuma Batuko komunikabideetan kaleratu diren berriak. Erakunde armatuak ez du inoiz esan armak utziko dituenik, soldadu britainiarrak Ipar Irlandatik alde egiten hasten diren heinean. Hala azpimarratu zuen atzo erakunde armatuko buruzagi batek.

Azken egunetako zurrumurruen arabera, IRA prest zegoen hiru hilabeteko epean deklarazio bat kaleratzeko. Han jakinaraziko zuen gerra amaitua zegoela, eta borondate oneko keinu gisa, armak utziko zituela adiskidetze nazionalerako egunean —Ostiral Santuko Akordioak bildua—. Izan ere, armak erabileratik kanpo utziko lituzkete Ipar Irlandan murgilduta dauden alde guztiek.

«Erabat gezurra da egutegia finkatu dugula eta keinua egingo dugula desarmean», zehaztu zuen IRAko buruzagiak.

Desarmerako Nazioarteko Batzordeari jakinaraziko proposamen guztiak mahai gainetik kanpo daudela gogoratu zuen IRAko buruzagiak: «Desarmerako Batzordearekin harreman guztiak amaituta daude, eta proposamen guztiak mahaitik kanpo».

ADAM BUTLER / AP

IRAren aldeko hormirudi bat, Belfast mendebaldean.

Orain aste eta erdi egin zituen proposamenak erakunde armatuak. Desarmerako Batzorde, eta Erresuma Batuko eta Irlandako Errepublikako gobernuei azaldu zizkien haiek. Baina, hala ere, Londresek indargabetu egin zuen Ipar Irlandako autonomia, hilaren 11n. Horren ondorioz, IRAk ordezkaria erretiratu zuen Desarmerako Batzordetik. «Haserre gaude egoera nola garatu den ikusita», azpimarratu zuen erakunde armatuaren ordezkariak atzo

Desarmerako Batzordearen mahai gainean jarritako proposamenak zeintzuk ziren, ez zituen argitu atzo IRAko buruzagiak. Baina badirudi IRAk «armak erabilpenetik kanpo uzteko» asmoa zuela maiatzerako. Hala biltzen du Ostiral Santuko Akordioak, desarmeak noiz hasi behar duen zehaztu gabe.

IRAren oharraren ondoren, Erresuma Batuko Gobernuak deklarazio ofizial bat egin zuen gaiaren inguruan. Geoff Honn Defentsa idazkariak hitz egin zuen Komunen Ganberan eta ukatu egin zuen «ezein arma trukaketa, Ipar Irlandako talde paramilitarrekin».

Parekatu ezin, Londresen arabera

«Gobernu britainiarrak ezin du eta ez du pentsatu ezer egitea segurtasun indarrak eta terroristak parekatzeko», adierazi zuen Honnek.

Ipar Irlandan dauden soldadu britainiarren kopurua txikiena da 1970az geroztik, Honnek esan zuenez. Gaur egun 15.000 soldadu britainiarretik behera daude Ipar irlandan. «Hortik aurrerako murrizketa militarra segurtasunaren arabera soilik egingo da», gaineratu zuen.

Baina ordu batzuk lehenago bestelakoa esan zuen Londresko gobernuak, ez baitzuen baztertu IRAk «adiskidetze ekintzaren batean» parte hartzea.

Sinn Feinek Trimble Desarmerako batzordetik irten dadila nahi du

Agentziak / **Belfast**

Sinn Fein alderdi errepublikanoko buruzagi Martin McGuinness-ek «bere buruari eman dion Desarmerako Batzordearen arduradun postutik alde egiteko» eskatu zion atzo UUP Ulsterko Alderdi Unionistako lider David Trimbleri.

«Trimblek, De Chastelaini jeneralarekiko begiruneagatik, haren eskuetan utzi beharko lituzke desarmearekin zerikusia duten kontu guztiak», esan zuen McGuinnessek. Buruzagi unionistak, aldiz, berriro exigitu zion IRAri desarmeari ekiteko, horrela Ipar Irlandako krisi politikoa konpontzen laguntzeko.

Ipar Irlandako politikoak EEBBen esperantzan

Agentziak / **Belfast**

EEBBetako Gobernuaren ekimenaren zain daude Ipar Irlandako buruzagi politikoak. Horren adierazgarri da, David Trimble UUP Ulsterko Alderdi Unionistako buruzagi EEBBetan dagoela duela astebete ingurutik.

Gaur, berriz, hara joango da Martin McGuinness Sinn Feineko kidea. Etxe Zuriko ordezkariekin mintzatzeko asmoa du buruzagi errepublikanoak, eta baita ere, jatorri irlandarreko EEBBetako pertsonaia garrantzitsuekin. Peter Mandelson Ipar Irlandarako Estatu idazkari britainiarrak ere hiru egun egingo ditu EEBBetan.

RUC-ek pertsona bat atxilotu eta armak atzeman ditu

Agentziak / **Belfast**

Ipar Irlandako poliziak, Royal Ulster Constabulary-k (RUC) pertsona bat atxilotu zuen atzo Ipar Irlandako Dungannon herrian (Tyroneko konderria) eginiko polizia operazioan. Atxiloketa, Woodbourne Crescent eremu nazionalistan izan zen, Ipar Irlanda mendebaldean. Halaxe jakinarazi zuten atzo, RUC-eko iturriek. Atxiloketa horrez gainera, poliziak suzko sei arma atzeman zituen eremu nazionalista horretan eginiko miaketan.

Sinn Fein alderdiak polizia operazioa eta atxiloketa gaitzetsi zuen, eta hainbat etxe kaltetuta gertatu zirela jakinarazi zuen.

Kosovoren etnia aniztasuna bermatu nahi dute Frantziak eta NATOk

Holbrookek Belgraderi leporatu dio Mitrovicako gatazken akuilatzaile izatea

Erredakzioa / **Donostia**

Mitrovican azken egunotan bizi den tentsioak berriro ere erakusterat ematen badu, albaniar eta serbiarren arteko elkarbizitza ezinezkoa dela, NATOk aniztasun etnikoko Kosovo bati eutsi nahi dio. Europako Batasuneko partaideen artean, halaber pentsatzen du Frantziak.

«KOSOVON geratzen diren serbiarren eskubideak babestu behar ditugu» adierazi du, behin eta berriro, Frantziako Atzerri ministro Hubert Védrinek. «Gure asmoa ez da, inola ere, Kosovoren homogenotasuna bultzatzea, albaniar bizilagunen inguruan» azpimarratu du, halaber, Védrinek. «Erabat albaniarrez osatutako etnia bakarreko Kosovo bat bolborategi baten antzeko zerbait litzateke, hots, Mazedonia zartaraz lezakeen eta eskualde horretan gerra bat gehiago haziko lukeen etengabeko arazo iturri» iritzi diote, berriz, Balkanetako herrietan banatutako diplomata frantziarrek.

NATOko Idazkari Nagusi Georges Robertsonek ere bat egin du frantses agintarien iritzi honekin eta «NATOk eutsiko dio beti aniztasun etnikoko Kosovo bati» eman du aditzerat.

Haatik, bai Frantziak, bai Europako Batasunak, bai NATOk ere aitortu behar izan dute Kosovon nagusitu den egoera mendebaldeko potentzietako agintari politiko eta militarren hutsegite batetik datorrela. Ezen, Serbiako Gobernuarekin NATOk azkenean lortutako akordioak zehazten zuenez, Aliantza Atlantikoko indarrek berehala zabaldu behar zuten Kosovo osoan, UÇK Kosovoren Askapenerako Armadari aurrea hartuta. Alabaina, ez zen horrelakorik gertatu eta UÇKko unitateak NATOkoak baino lehen edo denbora berean zabaltzearekin, Kosovon geratzeko asmoa zaukaten serbiarrek ihes egin behar izan zuten, nahitaez. Hauetatik zenbait, hala ere, Mitrovican eta inguruan geratu ziren, lasaitasunez hartu baitzuten sektore hori Kforreko soldadu frantziarren ardurapean izatea.



Kosovoko albaniar bat atxilotzen Kforreko soldadu britainiarrak, herenegun iluntzean, Mitrovican.

BORIS GRDANOSKI / AP

Apirilean Eurogorputzak hartuko du Kforren agintea

MITROVICAN egunotan gertatu diren gatazkak eragozteko xedez zabaldu diren Kfor bake indarreko unitate gutiz-gehienak Europako herrietako soldaduz osatutakoak dira.

Egoera hau ikus daiteke Europako defentsa bateratu baten lehen urratsa bezala. Izan ere, datorren apirilean, Landcent deitutako egiturak, hots Europa erdialdeko Natoko lur armada indarrak, lekua utziko dio Eurogorputzari, beraz, Alemania, Frantzia, Belgika, Espainia eta Luxenburgoko soldaduz osatutako defentsa eraikidurari.

Honen ondorioz, Kforreko indarrak Espainiako Juan Ortuno jeneralaren agindupean egongo dira, zeren eta hau baita Eurogorputzaren agintaritza nagusirat izendatua izan, 1999ko azaroaren 26an. Hargatik, Kforreko agintaldea Eurogorputzaren menpekoa izango bada ere, bake indarreko unitateek nazio askotakoak izaten jarraituko dute. Gaur egun, Kosovon hedatuta dauden 37.200 soldaduak 36 herritatik datoz, nahiz eta kopuru handienak Europako herriek bidalitakoak izan. Zehazki, lau soldadutatik hiru bederatzi herrialdetakoak dira, hauek direla EBn dauden Italia (4.200 soldadu), Alemania (3.900), Frantzia (3.900), Erresuma Batua (3000), Holanda (1.400), Grezia (1.100) eta Espainia (900) eta EBtik kanpo diren Errusia (3.150) eta Norvegia (1.000).

Belgrad: «Meategiez jabetu nahi dira»

Nazio Batuetan EEBBen ordezkari Richard Holbrookek Belgradeko Gobernuari leporatu zion, joan den astelehenean, Mitrovicako gatazken akuilatzailea izatea.

Jugoslaviako agintearen erantzuna berehalakoa izan da, zeren eta Goran Matic Informazio ministroak adierazi zuenez atzo, «mendebaldeko potentziak daude albaniar terrorismo eta separatismoaren atzean; beraiek dute UÇKren sorrera bultzatu eta Balkanetan beste gatazka bat piztu, honen guztiaren helburua delarik NATOren nagusitasuna sendotzea eskualde honetan». Maticek, ildo beretik, Holbrooke, Robertson eta NATO akusatu zituen serbiarrak Mitrovicatik haizatu nahi dituztela herrialde horretan dauden urre, zilar, berun eta zink meategiez jabetzeko asmoz.

CDUren Meinzeko bulegoak miatu ditu Bonneko Fiskaltzak

Friedrich Merz ez zuten atzo CDU-CSUren talde parlamentarioko buruzagi izendatu

Erredakzioa / **Berlin**

ALEMANIAKO CDU Batasun Kristaudemokratak Meinz hirian, Renania-Palatinatua landerrean, dituen bulegoak miatu zituen atzo Bonneko Fiskaltzak. Miaketak zerikusia du Helmut Kohl Alemaniako kantziler ohiaren aurkako ikerketarekin, ezkutuko kontuak direla eta.

Bernd Koenig fiskalak ez zuen argitu CDUren Meinzko bulegoan ezer atzeman zenik. Baina halakoetan beti zenbait txosten hartzen direla azpimarratu zuen.

Fiskaltzaren lanak Kohl auziarekin lotura duela zehaztu zuen Koenigek. Hain zuzen, kantziler ohiaren laguntzaile izendakoekin zerikusia baduela gaineratu zuen. Baina ez du loturatik Renania-Palatinatuko CDUrekin.

Epaitegiek joan den ostiralean eman zioten baimena Fiskaltzari, CDUren Meinzeko bulegoak miatzeko. Kohlen etxebizitza arakatzeko baietza ere jaso zuen Fiskaltzak. Herenegun egin behar zen araketa, baina Fiskaltzak bertan behera utzi zuen ekintza. Izan ere, *Der Spiegel* egunkariak joan den asteburuan kaleratu zuen Fiskaltzaren asmoen berri.

Filtrazioa argitzeko ikerketa

Fiskaltza ikertzen hasiko da Kohlen etxebizitza miatzeko asmoa egunkariari nork jakinarazi zion argitzeko.

Bestalde, CDUk ez zuen atzo izendatu Friedrich Merz CDU-CSUren talde parlamentarioko buruzagi. Joan den astean hala aurreikusi zen, baina CDUk atzera egin zuen, CSUk eskatu ziolako.

Schleswig-Holstein landerreko hauteskundeak egin arte itxoiteko esan zion CSUk CDUri, eta horiek igandean dira. Horregatik, CDUk hilaren 29an izendatuko du ziurrenik Merz.

Errusiak erasoaldia hasi du gerrillarien gordelekuaren aurka

Txetxenia eta inguruko errepubliken arteko mugak itxi ditu Moskuk

Erredakzioa / **Donostia**

Errusiako 20.000 soldadu inguruk erasoaldia hasi zuten atzo Xatoi herrian, Txetxenia hegoaldeko eremu menditsuan. Argungo haitzarterako sarrera da Xatoi eta gerrillari txetxeniarren gotorlekua dela uste dute Moskuko agintari militarrek. Interfax berri agentziak atzo emandako informazioaren arabera, 3.000tik 5.000 gerrillari bitarte daude han ezkutatuta.

MINDAUGAS KULBIS / AP

Emakume errefuxiatu bat, umea besoetan duela, Txetxeniako mugan, bere herrialdera berriro noiz sartuko zain.

ARMADAK airez eta lurrez eraso zion atzo Xatoiko herriari, Errusiako iturriek azaldu zutenez. Abiazio militarrak 150 hegaldi egin zituen Txetxeniako gerrillarien baseen aurka Xatoin eta Argungo haitzartean; eta artilleriarekin gogor eraso zien gune haiei.

Milaka gerrillari inguratuta ditu Errusiako Armadak. Baina gerrillariez gain, milaka herritar zibil daude harrapatuta Xatoin, handik alde egindako errefuxiatuek adierazi zutenez. Haiek salatu dutenez, soldaduek ez dituzte igarobideak zabaldu zibilek borroketatik ihes egin dezaten.

Egoera kezkagarria da Xatoin. 157.000 bizilagun zituen herriak gerra aurretik. Gaur egun, ordea, 50.000 eskas daude. Grozni hiriburutik eta landetatik alde egindako errefuxiatuak dira gehienak.

Gosetea hedatzen ari da herrian eta tropa errusiarren erasoak areagotu egin du egoera larria. Irin eta azukre erreserbak agortu egin dira, eta blokearen ondorioz, herritarrek ezin dituzte premiazko gaiak inon lortu.

Hegoaldeko mendietako erasoaldiari ekiteaz gain, Txetxenia eta inguruko errepubliken arteko mugak itxi zituenatzo Errusiak. Inor ezin zen sartu Txetxeniara, ez handik irten ere. Inguxetiako Gobernuak, ordea, ukatu egin zuen txetxeniarren erasoen arriskua zegoela.

Errusiako agintari militarrek alerta egoeran jarri dituzte indar militarrak Txetxeniako eskualde guztietan. Izan ere, gaurko egunez hasi zuten txetxeniarren deportazioa II. Mundu Gerraren ostean. Errusian, baina, Soldadu Aberriaren Defendatzailearen eguna ospatuko dute. Kointzidenzia horrek eragin ditzakeen eraso edo atentatuei aurre egin nahi die horrela Moskuk.

Hala ere, Txetxeniako lehendakariorde Vaja Arsanovek ukatu egin du gerrillariek ekintza edo erasoaldi bereziak egingo dituztela. «Erasotzaileak egunez egun hilko ditugu, astebururik edo jaiegunik gabe», esan zion atzo Arsanovek prentsari.

Deportazioa

Gaur 56 urte hasi zen Sobiet Batasun ohiko erregimen estalinista Txetxeniako herritarrak Erdi aldeko Asiara deportatzen. Moskuk II. Mundu Gerran naziei lagundu izana leporatu zien txetxeniarrei.

Putinen esker ona herritarrei

Errusiako jarduneko lehendakari Vladimir Putinek eskerrak eman dizkie Errusiako herritarrei Txetxeniako gerran ematen ari zaizkion sostenguagatik. «Gure Armadari eskaini dioten sostengua eskertu nahi nuke. Babes hori izan ez bagenu, ez genituzkeen lortuko lortu ditugun emaitzak», esan zuen Putinek

Bestalde, Erresuma Batuko Atzerri ministro Robin Cook Errusiara joan da bi herrialdeen arteko harremanak sendotzeko asmoz. Cookek bi eguneko bisitaldia egingo du.

Moskun izango den artean, jarduneko presidente Vladimir Putinekin, Errusiako Atzerri ministro Ivanovekin eta Legebiltzarreko taldetako ordezkariekin mintzatuko da. .

laburrean

GEMUNU AMARASINGHE / AP

Ukrainako ultraeskuindarrak «Austriatik abiatuko den ordena berriaren alde». Ukrainako Una-Unso alderdi ultraeskuindarreko kide bat agur faxista egiten ageri da Kieven, Austriako enbaxadaren aurrean. Alderdi horretako hainbat kidek «Europako ordena berria Austriatik» abiatuko dela aldarrikatu zuten, eta Europako Batasuna Austrian egiten ari den esku-hartzea salatu.

A U S T R I A

■ Joerg Haiderrek bere kritikoak «lotsarazteko» asmoa agertu du gutxiengoei buruzko txosten baten bidez

Joerg Haider Austriako buruzagi ultraeskuindarrak Europako bere kritikoak «lotsarazteko» asmoa agertu du gutxiengoei buruzko txosten baten bidez. Haiderren esanetan, txosten horrek erakutsiko du «Europako politikari handiek» ezin dutela gutxiengoentzako bizitza maila gutxienekorik bermatu. Ikerketa hori «Europako politiko harroentzat erantzuna izango da», Haiderrek atzo adierazi zuenez. Adibide gisa Frantzia aipatu zuen, eta zehazki Bretanian zenbait pentsiotan jartzen duena: «Galarazita dago bretoieraz hitz egitea».

F R A N T Z I A

■ Gobernuak Nazioarteko Auzitegi Penaleko artikulu bat baliatuko du herritarrak gerra krimenetatik babesteko

Frantziako Gobernuak atzo jakinarazi zuenez, aurki eratuko den Nazioarteko Auzitegi Penaleko (TPI) estatutuetan ageri den 124. artikulua baliatuko du Frantziako herritarrak gerra krimenengatik juzga ez ditzaten. Artikulu horrek zazpi urtez Auzitegi horri uko egiteko ahalmena ematen die gobernuei, eta Parisek bere egin du, militar frantziarrek ustez «gehiegizkoak» izan daitezkeen salaketak saihesteko.

K O R S I K A

■ Alain Orsoni errefuxiatu korsikarrak bere burua entregatuko duela iragarri du Nikaraguan

Parisko Auzitegiak sasian deklaratu zuen atzo Alain Orsoni errefuxiatu korsikarra, eta hark bere burua entregatuko duela eta bere kontrako salaketa eta zigor guztiak errekurrituko dituela iragarri zuen atzo Nikaraguatik.

EUSK JUL ITZ
C IE N V SC
Kultur S I k ruz
I un ut k unk r

'XARIA' LEGE ISLAMIKOA EZARRIKO DELA ETA, 35 LAGUN HIL DIRA MUSULMANEN ETA KRISTAUEN ARTEKO BORROKETAN

Gatazka erlijioso larria piztu da Nigeria iparraldean

- Zamfara estatuan duela hilabete batzuk hartutako bideari segituz, *xaria* indarrean jarri nahi dute Kadunan
- Milaka kristau kalera atera dira lege islamikoaren kontra, nahiz eta Kadunako agintariek haiei ez zaiela aplikatuko esan
- Bake garaiak gutxi dira Nigerian, kolonizatzaileen eraginaren ondorioz gatazka etniko eta erlijioso ugari izaten direlako

Agentziak / **Lagos**

NIGERIA iparraldeko Kaduna estatuan borroka handiak piztu dira kristauen eta musulmanen artean; gainera, liskarrak inguruko beste estatu batzuetara zabalduko diren beldurra sortu da.

Kadunako agintariek *xaria* (lege islamikoa) indarrean jartzeko asmoa agertu dute, eta ekimen horixe izan da gatazkaren pizgarria. Izan ere, gehiengoa islamista den arren kristau ugari bizi da eskualde horretan, eta ez dute inola ere onartzen *xaria* indarrean jartzea,

Ildo horretatik, astelehenean milaka kristau kalera atera ziren Kadunako izen bereko hiriburuan, gobernadorearen asmoaren kontra protestatzera. Aurreneko borrokak, haien manifestazioa eragotzi nahi izan zuen musulman taldeekin izan zituzten: Legebiltzarraren egoitzara bidean zihoazen manifestari kristauak eta musulmanek bidea moztu zieten suzko barrikadekin.

Kadunako irratiek zabaldutako informazioen arabera, makila, harri eta arma zuriekin eraso zioten elkarri kristau eta musulmanek. Halaber, su eman zieten denda, eliza, meskita eta batzuen zein besteen bestelako etxeei. Lekukoek azaldu dutenez, jendeari ere eman diote su.

PETER OBE / AP

Istiluak Nigerian, 1998ko uztailean. Gobernu militarraren kontrakoen eta segurtasun indarren artekoak izan ziren orduko iskanbilak.

Soldaduen laguntza

Borroka horien guztien ondorioz, gutxienez 25 lagun hil dira Nigeriako agintariek onartu dutenez. Baina oso litekeena da, azkenean, hildakoen kopurua askoz ere handiagoa izatea, lekukoen arabera, ugariak baitira oraindik kaleetan jaso gabe dauden hilotzak.

Istiluak astelehenean lehertu ziren, eta Kadunako Poliziak ezin izan zien behar bezala aurre egin eta era bateko kaosa hedatu zen hiri osoan. Ondorioz, Nigeriako Gobernuak tropa bereziak bidali ditu ordena ezar dezaten, baina alde bateko zein besteko manifetarien kontra tiro egiteaz gain, ezer gutxi egin zuten.

Nolanahi ere, atzoko eguna bezperakoa baino dezente lasaiagoa izan zen hango irratien arabera. Kadunako Gobernuak oso arau zorrotzak ezarri ditu iskanbila sor dezakeen gertakari oro eragozteko. Hain zuzen ere, etxerako dei zorrotza jarri du indarrean, eta Kadunako sarrera eta irteera guztiak kontrolatuta daude.

Musulman zein kristauen buruzagi erlijiosoei beren jarraitzaileak lasaitzeko deia egin diete Nigeriako agintariek, baina hala ere, barrikadek zutik segitzen zuten atzo. Musulmanek esan dute *xaria* ez dietela aplikatuko kristauei.

Zigorrak

Xaria indarrean jartzeak jendearen eguneroko bizimodua arautzen duten hainbat lege zorrotz onartzea dakar. Nigerian Zamfara estatuan jarri zuten indarrean orain dela hilabete batzuk, eta haren araberako zigor batzuk ere aplikatu dituzte jada. Joan den astean, esate baterako, ehuna zigorkada jaso zituen neska-mutil bikote gazte batek ezkondu aurretik sexu harremanak izateagatik. Era berean, mozkortzen den edonork 80 zigorkada jasotzeko arriskua du baldin eta harrapatzen badute, eta motorzaleek espetxeratuak izatekoa atzealdean emakumerik eramanez gero.

Kolonizatzaileen idazluma eta arkatzak

NIGERIA kolonizatzaileen idazlumek eta arkatzek hala nahi izan zutelako sortu zela esaten dute, gainerakoan nortasun batasunik gabeko herrialdea dela, eta horren ondorio direla gaur egungo arazo ugariak.

Izan ere, orain musulman eta kristauen arteko borrokak sortu dira iparraldeko Kaduna estatuan xaria dela eta —gainera, ingurura zabaltzeko arriskua dago—, baina aurretik izan dira beste hainbat borroka: hausa eta yoruba etnien arteko istilu gogorrak, besteak beste.

Arazo guztiaren oinarrian arazo etnikoak daudela esan daiteke —hausak gehiengo dira iparraldean eta yoruba eta iboak hegoaldean—, baina beste zenbait arazorekin korapilatzen dira: hausen gehiengoa musulmana da eta yoruben artean, berriz, kristauak dira nagusi. Era berean, iparraldea politikoki boteretsuagoa da, baina hegoaldea gero eta aberatsagoa da ekonomikoki merkataritza oparoari eta petrolio putzuei esker.

Faktore horiek guztiak nahasten dira, beraz, Nigeriako gatazka korapilatsuan. Gainera, duela hilabete batzuk arte erregimen militar zurrun baten menpe bizi ziren, baina orain, Olesegun Obasanjok lehendakaritza iritsi eta agintea malgutu ostean, indar handiagoz azaleratu dira arazo horiek.

Xariaren inguruan oraindik gatazka handiak izatea espero da.

EEBBek Kubako diplomatikoa atxilotzeko mehatxua egin dute, herrialdea utzi ezean

Pribilejioak eta inmunitatea galduko ditu datorren larunbateko 18:30etan

Erredakzioa / **Donostia**

Estatu Batuetako Estatu Idazkaritzak atzo adierazi zuenez, espioitza egotzi dioten Kubako funtzionarioak Vienako Konbentzioak esleitzen dituen pribilejioak eta inmunitatea galduko ditu larunbateko 18:30etan, Estatu Batuetatik alde egin ezean.

ONDORIOZ, James Rubin Estatu Batuetako Estatu idazkariak adierazi zuenez, «Kubako funtzionarioa Estatu Batuetako legeen menpe geratuko da, eta, atxilotzeko arrazoirik izango bagenu, atxilotuko genuke». Izan ere, Estatu Batuek astebeteko epea eman zioten larunbatean Kubak Washingtonen duen funtzionario bati herrialdetik alde egiteko, espioitzan aritu delakoan.

Kubako Gobernuak, ordea, ukatu egin ditu berriz ere Estatu Batuek Kubako zenbait funtzionarioren kontra egindako espioitza salaketak, atzoko *Granma* egunkariko editorialean adierazi zuenez. «Estatu Batuetako Gobernuak ondo daki gure Washingtongo Interesen bulegoak ez duela inolako espioitza lanik egiten», zioen atzoko *Granma*-ren editorialak,

Era berean, egunkarian azpimarratzen zenez, salaketak asmakeria hutsa dira. «Frogatuko balute gure Interesen Ataleko funtzionarioren batek Estatu Batuetako Inmigrazio eta Naturalizazio Zerbitzuko funtzionario bat erreklutatu zuela Kubaren aldeko espioitza lanak egiteko, prest geundeke Kuban auzipetzeko, diziplinarik gabeko ekintza larria egiteagatik».

Estatu Batuetan bertan ere eztabaidatzeko prest daude Kubako agintariak: «Funtzionarioa kaleratu ordez, Estatu Batuek onartu behar lukete auzia bertako auzitegi federal batean argitzea».

Eliani buruzko auzialdia, atzeratuta

Bestalde, atzo atzeratu egin zen Elian Gonzalez haur kubatarra Miamin geratzeko haurraren Estatu Batuetako senideek hasitako auzibideko bista, kasua daraman magistratua gaixorik jarri baita.

Ondorioz, beste epaile batek zuzenduko du martxoaren 6ko astean egingo den saioa: Michael Moorek. Orduan erabakiko da ea auzitegi federalak eskumenik duen haurraren senideek jarritako errekurtsoa aztertzeko.

ALAN DIAZ / AP

Elian Gonzalez haur kubatarra, Negra txakurrarekin jolasean, Miamiko senideen etxean.

Borroka ugari izan dira azken egunotan ELNrekin negoziatzeko eremu berezian

■ *Gutxienez 70 lagun zendu dira gerrillarien eta paramilitarren arteko borroketan*

Agentziak / **Bogota**

KOLONBIA iparraldean, Sucre eta Bolivar departamendu inguruetan, borroka gogorrak gertatzen ari dira ELN Askapen Nazionalerako Armadako gerrillarien eta paramilitarren artean. Borroka horien ondorioz hildakoak 70 direla adierazi dute Kolonbiako Fiskaltzaren inguruko iturriek.

Hain zuzen ere, borrokak gertatzen ari diren inguru horixe desmilitarizatu nahi du Gobernuak ELNrekin elkarrizketa prozesu bat abiatzeko. Hala ere, eskualde haietako zenbait sektore «bizikidetza eremu» hori sortzearen kontra daude, eta Gobernuko ordezkariak haiekin negoziatzen ari dira. Azken egunotako borrokek, gainera, lehen baino zailagoa egin dute bizikidetza eremua sortzea.

Hezbolak akordioak urratu dituela dio Rossek

■ *Palestinarren auzian parte-hartze handiagoa eskatu dio Bruselari*

Efe / **Jerusalem**

DENNIS ROSS EEBBetako bitartekariak atzo adierazi zuenez, Hezbolako gerrillak ez ditu 1996an Israelekin sinatu zituen akordioak bete. Israelgo Atzerri ministro David Levykin bildu ondoren egin zituen adierazpenok atzo Rossek. Israeldarrek Libanoko hegoaldean okupatzen dituzten lurraldeetan Israelen eta Hezbolaren arteko liskarrak etetea hitzartu zuten bi aldeek 1996an. Otsailaren 8an Israelek elektrizitate postuak bonbardatu zituen, Hezbolak sei soldadu israeldar hil zituelako.

Libanoren eta Siriaren arteko bake akordioaren mesedetan, Ehud Baraken Gobernuak palestinarrekin egin behar dituen negoziazioak bigarren mailan utziko dituen beldur dira palestinarrak, Rossen ustez.

Bestalde, Europako Parlamentuko lehendakari Nicole Fontainerekin bildu zen Ross. Bere ustez, Bruselak presio egin behar dio Israeli «palestinarrekin sinatu zituen akordioak betetzeko». Jasser Arafat PANeko lehendakariarekin ere bildu zen, eta Rossengandik «ideia berriak» espero dituela esan zuen horrek.

Pinochet auzia

Ahobatez, Augusto Pinocheten estradizioa bidezkoa dela berretsi dute lau estatuek

Osasun azterketa berri bat egiteko eskatu diote Jack Straw Barne ministroari

Erredakzioa / **Donostia**

Augusto Pinocheten estradizioa eskatu diote berriro *Pinochet kasuan* sartuta dauden lau estatuek Jack Straw Barne ministro britainiarrari. Bide batez, diktadore ohiari osasun azterketa berria egin diezaiotela eskatu dute, Erresuma Batuari aurkeztu dizkioten alegazioetan.

MAX NASH / AP

Pinocheten kontrako kontzentrazioa Londresko Gorte Gorenaren aurrean.

PINOCHETEN estradizioa eskatu zuten lau estatuek —Espainiak, Frantziak, Suitzak eta Belgikak— berriro haren estradizioa eskatu zioten atzo Erresuma Batuko Barne ministro Jack Strawi, lau sendagileek diktadore ohiari egin zizkioten osasun azterketak ikusi ondoren.

Hiru epailez osaturiko Londresko auzitegi batek otsailaren 15ean erabaki zuen Pinocheten osasunari buruzko txostena ikusteko eskubidea zutela lau estatuek. Txostena lau mediku britainiarrek egin zuten. Bertan, Pinochet ezin zela estraditatu zioten, haren osasun kaxkarra zela medio.

Txostena aztertu ondoren, atzo amaitu zitzaien Belgika, Frantzia, Espainia eta Suitzari alegazioak aurkezteko epea. Estradizioa berriro eskatzeaz gain, beste azterketa mediku bat egin diezaiotela galdegin zioten Strawi.

Baltasar Garzon Espainiako Entzutegi Nazionaleko epaileak auto batean adierazi zuenez, Pinocheten osasunari buruz Espainiako sendagileek egin duten txostenen arabera, diktadore ohia «epaiketa batera joateko gai da». Hori dela eta, Garzonek izendaturiko medikuek beste azterketa egin diezaiotela galdegin zuen autoan.

Frantziako Atzerri Ministerioko bozeramaile Anne Gazeau-Secretek berretsi zuenez, Le Loire epaileak hiru aditu izendatu zituen Pinochet aztertzeko.

Erreguzko batzordea

Belgikak ere beste osasun azterketa bat eta erreguzko batzorde bat eskatu dizkio Londresi. Estatu horren ustez, Belgikara estraditatua eta han epaitua izateko gai da Pinochet.

Horrez gain, Suitzaren arabera, Estradizioaren Europako Hitzarmenak dio estradizioa ezin dela oztopatu osasun arazoengatik. Poliziaren Bulego Federalaren bozeramaile Folco Galiren ustez, Londresko osasun azterketak ez dio Suitzari «funtsezko elementu berriak ematen».

Horrez gain, Bernard Bertossa Genevako fiskala pozik azaldu zen Suitzak estradizio eskaerari eutsi diolako. Bertossak esan zuen berak ez zuela inoiz «zalantzan jarri» Suitzako agintarien azken erabakia hori izango zenik.

Bestalde, Strawren ebazpena ez errekurritzeko Abel Matutesek hartutako erabakiak «oinarri arrazoituak» dituela esan zuen atzo Espainiako Auzitegi Gorenak. Hala, Marcos Roitman eta Carlos de Miguel irakasleek Matutesen kontra jarritako kereila atzera bota zuen.

Martxoaren 18ko hauteskundeetan eragin nahi izana egotzi dio Taiwanek Txinari

Taibeik bere «independentzia» berretsi du Pekinek bat-egitea negoziatzeko eginiko eskaerari erantzunez

Erredakzioa / **Donostia**

DATORREN martxoaren 18ko lehendakaritzarako hauteskundeetan eragiteko asmoa duela egotzi dio Taiwanek Txinaren bat-egitea negoziatzeko eskaerari.

Ildo horretatik, *Taipei Times* egunkariaren atzoko editorialak adierazten zuenez, Txinaren birbatzeko eskaerak ez du aparteko aldaketarik plazaratu, eta, horrek erakusten duenez, «Pekinek lehendakaritzarako hauteskundeen agenda kontrolatu nahi du».

Txinaren birbatzeko eskaerak Taiwango independentzia berresten duten erreakzioak sortu ditu. Esate baterako, Txina Kontinentaleko Gaien Batzordeko Taiwango ordezkari Lin Chong-pin-ek atzo esan zuenez, «Txinak errealista izan behar du eta bien arteko bereizketa onartu behar du. Taiwani utzi egin behar dio Txina bakar baten printzipioa beren modura interpretatzen, Pekinen menpeko probintzia gobernua bihurtu gabe».

Taiwango Atzerri Ministerioak, berriz, Taiwanek harreman diplomatikoak izateko duen eskubidea defendatu zuen, «subiranotasuna duen nazioa baita».

laburrean

I R A N

Legebiltzarreko lehendakariaren ustez, «Errepublika Islamikoa garaile atera da» hauteskundeetan

ALI AKBAR NATEQ NURI Legebiltzarreko lehendakariak atzo adierazi zuenez, «Errepublika Islamikoa garaile atera da» hauteskundeetan. Kontserbadoreak nagusi dira Legebiltzarrean egun. Era berean, Nurik «lasai» egoteko eskatu zien kontserbadoreei. «Pozik izan behar dugu herriaren parte-hartze handiagatik. Gure erregimen islamikoarentzat garaipena da. Kontserbadoreen porrotaz hitz egitean Nurik esan zuenez, «Khatami lehendakaria babestu duten egunkariek orain lasaitasuna eta elkartasuna aldarrikatu behar dute kontserbadoreen artean».

S O M A L I A

Agintariek 700 gorpu aurkitu dituzte hobi komun batean

SOMALIAKO agintariek 700dik gora gorpu aurkitu zituzten hobi komun batean, Betberako aireportutik gertu, Somaliako iparraldean. Siad Barre lehendakariaren Armadak egindako sarraskia izan daitekeela uste dute NBEko iturriek. Litekeena da 1988an desagertu ziren klan bateko kideenak izatea gorpu horiek. Lehendakariak hilak boterea galdu zuen 1991. urtean.

M O Z A N B I K E

Alerta egoera ezarri dute, zikloi bat irits daitekeelakoan

AGINTARIEK alerta egoera ezarri zuten atzo Mozanbiken, bi asteko uholdeen ondoren, zikloi bat irits daitekeelakoan. Euriteen ondorioz etxebizitzarik gabe gelditu diren milaka pertsonen egoera oker lezake Eline zikloiak. Haize bortitza Madagaskartik dator (Ozeano Indikoa), eta, eguraldiaren prebisioen arabera, Gaza eta Inhambane herrialdetara doa. Gutxienez 67 pertsona hil dira hilaren hasieratik uholdeen eraginez, eta 500.000 pertsona baldintza eskasetan bizi dira. Bestalde, uholdeen eraginez kaltetuak izan diren 300.000 pertsonentzako 30 milioi dolarreko nazioarteko laguntza eskatu du NBEk.

I N D I A

Bost zibil hil dira Pakistango Armadak Kaxmirren egindako erasoan

BOST zibil hil dira azken egunotan Kaxmirren, ustez Pakistango Armadak soldadu indioen kontra egindako erasoaren ondorioz. Bonbardaketa astelehenean hasi zen eta atzo amaitu zen. Gutxienez 500 jaurtigai erori ziren Tangdhar, Dani, Nogabra eta Natxiaan herrietan. Kaxmirren Indiako Armadak eta Pakistango tropen artean izandako azken biktimak dira.



• Saskibaloia

Tau Baskonia: Morales pibot bilbotarrari ebakuntza egin zioten atzo, eta hiru aste barru jokatzeko moduan izango da → 38



• Pilota

Besagain: Luis Mari Bengoa: «Bigarren mailako finalera gure bi pilotari sailkatzea ez da ezustekoa izan; serio ari gara lanean» → 42

Athletic ◆ Federazioko Lehiaketa Batzordeak ez du onartu Athleticen errekurtsoa

Zigorra Alkizarentzat

Erdilari donostiarrak ezingo du jokatu igandean Malagaren aurka

Ramon Basaldua/ **Bilbo**

EZ ZEN ezusterik izan atzo Espainiako Futbol Federazioko Lehiaketa Batzordeak izan zuen bileran, eta Bittor Alkizak partidu bateko zigorra bete beharko du txartel gorria atera ziotelako larunbatean Athleticek Riazorren Deportivoren aurka jokatu zuen partiduan. Lehiaketa Batzordeko kideek ez dute aintzat hartu Athleticeko zuzendaritza batzordeak aurkeztutako bideoa eta arrazoibideak, eta Bittor Alkizak ezingo du jokatu igandean Malagaren aurka, San Mamesen.

EGUNKARIA

Jose Maria Arrate ez dago batere gustura epaileek Athleticen partiduetan egin duten lanarekin.

Arrate: «Errekurtsoak aurkezten segituko dugu»

Jose Mari Arrate Athleticeko presidenteak haserre hartu zuen Lehiaketa Batzordearen erabakiaren albistea. Arratek garbi utzi du Athleticek ez duela amore emango eta errekurtsoak aurkezten jarraituko duela. «Ez gaude konforme Lehiaketa Batzordeak hartutako erabakiarekin eta errekurtsoak aurkezten jarraituko dugu, arrazoia dugula uste dugulako. Beste bi aukera ditugu, Apelazio Batzordea eta Kirol Dizplina Batzordea, eta ez dugu amore emango», adierazi zion atzo Jose Mari Arratek EGUNKARIAri, Bittor Alkizak bete beharko duen zigorraren berri izan ondoren.

Errekurtsoak aurkezten jarraitzea kaltegarria gerta daiteke Athleticentzako. Izan ere, baliteke Alkizak partidu bateko zigorra, Malagaren aurka bete beharrean, Valentzia edo Bartzelonaren aurka bete behar izatea. «Guk ez dugu etsiko. Izan ere, amore ematea arbitroari arrazoia ematea izango litzateke. Guk garbi daukagu Bittor Alkizaren kanporaketa ez zela bidezkoa izan eta ahalegin guztiak egingo ditugu jokalariak zigorrik jaso ez dezan», gaineratu zuen Jose Mari Arratek.

Athleticeko presidenteak esan du Lehiaketa Batzordeak hartutako erabakia ezustekoa izan dela berarentzat. «Niretzat ezustekoa izan da, bai horixe. Nik zigorrik ez jasotzea espero nuen. Izan ere, horretarako aurkeztu dugu errekurtsoa. Bestela ez genuen ezer aurkeztuko. Beste jokalari batzuei ere txartel horiak atera zizikieten Riazorren eta ez dugu errekurtsorik aurkeztu».

Zuri-gorriak lanera itzuliko dira

R. B. / **Bilbo**

ATHLETICEKO jokalariak lanera itzuliko dira gaur, atzo atsedena izan ondoren. Luis Fernandez itzuli da Paristik, eta saio bikoitza agindu du gaurko.

Gaurko bi saioak erabakigarriak izango dira datorren igandeko partidurako zein jokalari dauden prest jakiteko. Julen Guerrerok ez du parte hartu azken partiduan, bizkarreko arazoak zituelako. Athleticeko kapitainak korrika saioa baino ez zuen egin asteleheneko entrenamenduan, eta ikusi egin beharko da gaur normal aritzen den taldeko gainerako jokalariekin batera. Guerrerok bere kabuz jardungo balu, seguruenik ez luke Malagaren aurka jokatzerik izango.

Bestalde, Oscar Valesen errekuperazioa ere bide onetik doa, eta ikusi egin beharko da igandeko partidurako deialdian sartzerik duen.

Luis Fernandezek itxaron egin beharko du Bittor Alkiza zelairatzeko aukera izango duen ala ez jakiteko. Frantziarrak ez du inoiz utzi aulkian erdilari donostiarra eta ikusteko dago zein jokalari zelairatzen duen erdialdean. Julen Guerrero osatuta badago, litekeena da hasieratik aritzea. Horregaz batera, Tiko nafarrak meritu ugari egin ditu hasierako hamaikakoan jarraitzeko.

Reala ◆

Salva «tentuz» zaindu beharko dutela esan du Gurrutxagak

Racingeko aurrelariak lau gol sartu zituen Anoetan lehen itzuliko partiduan

Erredakzioa / **Donostia**

ZUHAITZ GURRUTXAGAK nahikoa ondo zaindu zuen Sabo Milosevic joan den igandean, Zaragozaren kontrako partiduan. Realeko atzelariak datorren igandean izango duen lana, ordea, ez da batere samurra izango. Txuriurdinek Santanderren jokatuko dute Racingen aurka, eta Salva aurrelariarekin kontu handia izan beharko dutela nabarmendu du Gurrutxagak.

Izan ere, Anoetan 2-5 irabazi zuen Racingek Ligako lehen itzulian, eta Salvak lau gol sartu zituen. Hori ondo gogoan du Gurrutxagak, eta igandean Racingeko aurrelaria «tentu handiz» zaindu beharko dutela esan zuen atzo: «Anoetan bereak eta bi egin zituen, eta azti ibiliko gara Santanderren hura geldiarazteko. Salvak 21 gol egin ditu dagoeneko eta horrek esan nahi du oso ona dela».

Javier Clemente entrenatzaileak esana du Gurrutxaga lehen taldearekin ari denetik Realaren atzealdeak «sendotasuna» irabazi duela. Lore horiei ez die, baina, jaramon handirik egin nahi atzelari gazteak, eta haren kezka «egungo egoera larri honetatik ateratzea» da.

Azken jardunaldietan Realak hobera egin duela adierazi du Gurrutxagak. Baina oraindik «sufritu» egin beharko dutela esan du: «Hori da irabazteko bidea».

irudietan

EFE

Antonio Diaz Miguel gaur ehortziko dute. Herenegun gauean hil zen Antonio Diaz Miguel, Espainiako hautatzaile ohia eta Europako entrenatzaile onenetarikoa izandakoa. Gaur ehortziko dute.



WILLIAM WEST / AFP

'Black Magic' aurretik Amerika Kopan. Zeelanda Berriko *Black Magic* bela-ontzia Amerika Kopa irabazteko bidean da. Bigarren estropadan ere Italiako *Prada*-ren aurretik sailkatu zen, bi minutuko aldeaz.



DOUGLAS ENGLE / AP

Ronaldo pozik, erreabilitazioa hasita. Ordu erdiko korrikaldiak eta bestelako ariketak egiten hasi da Ronaldo Rio de Janeiron. Animoso agertu da futbolaria, apirilean berriro jokatzeko itxaropenez.

Futbola ◆ Ravellirekin berdindua dago

Matthaus, beste errekor bat haustear

Gaur jokatzen badu, bere 144. partidua izango du Alemaniarekin

Agentziak / **Amsterdam**

BESTE marka bat ontzear da Lotthar Matthaus jokalari alemaniarra. Izan ere, gaur Holanda-Alemaniaren arteko lagunarteko partiduan jokatzen baldin badu, bere 144. neurketa izango du Alemaniako selekzioarekin. Gaur egun Thomas Ravelli Suediako atezainarekin dago berdinduta arlo horretan Mattahaus, 143 partidurekin. Ravelli orain dela bi urte eta erdi erretiratu zen. Hirugarren, berriz, Majed Abdula saudiar arabiarra dago, 140rekin (1978tik 1994a arte aritu zen hura).

Matthaus da bost mundialetan parte hartu duen jokalari bakarra, eta bere selekzioarekin 1980an egin zuen debuta, Italian, Europako Txapelketan. 19 urte zituen orduan, eta 17 minututan jokatu zuen. Gainera, gaurko kontrario bera izan zuen orduan: Holanda. 22 gol sartu ditu 143 partidutan.

38 urte ditu Matthausek, eta izugarria da bere palmaresa: bost aldiz izan da Alemaniako Ligako txapeldun Bayern Munichekin (1985, 1987, 1994, 1997 eta 1999an), bi aldiz Alemaniako Kopakoa Bayern Munichekin (1986 eta 1998an), munduko txapeldun behin Alemaniako selekzioarekin (1990ean), Europako txapeldun beste behin Alemaniarekin (1980an), UEFAko txapelketa bat du Inter Milanekin (1991n) eta beste bat Bayern Munichekin (1996an)... Taldekako Europako Txapelketa bat irabaztea falta zaio batik bat, eta iaz gertu egon zen, Bartzelonan, Bayern Munichekin, partidu bukaeran sartu zituelako Manchester Unitedek garaipena eman zioten bi golak. «Hura da nire oroitzapenik garratzena», esan izan du Matthausek.

Gaur baliteke titular izatea, eta, beti bezala, serio hartuko du partidua, lagunartekoa den arren.

hitz bitan

Erditik libero postura: Gaztetan erdilari jokatzen zuen Matthausek. Indar handiko mutila zen, eta azkarra. Urteak aurrera joan ahala, ahitzen joan zaizkio dohainak, eta libero aritu da azken hamar bat urteetan.

laburrean

F U T B O L A

■ Paul Gascoigne fitxatu nahi dute Australian

MARCONI STALLIONS taldeak Paul Gascoigne jokalari ingelesa fitxatu nahi du datorren denboraldian. Middlesbrough taldean ari da Gascoigne, eta lesionatuta dago, aurkari bati ukalondokoa ematean besoko hezur bat hautsi baitzuen. Australiako talderik ezagunena da Marconi Stallions, eta klubeko presidente Eddie Krncevicek uste du Gascoigne konbentzituko dutela Australiara joan dadin: «Arrantzarako leku egokia topatuko diogu, eta horrek lagunduko dio erabakia hartzen». Middlesbroughen bi denboraldi daramatza Gascoignek, eta 43 partidu besterik ez ditu jokatu.

■ Ipuruako berrikuntza lanak azken txanpan dira

EIBAR-EN asteon abiatu dute Ipurua futbol zelaia egokitzeko lanen azken saioa. Tribuna txiki bat eraikiko dute Ipuruan, eta zelaia berritu eta drenajea aldatuko dute. Berrikuntza lanek hiru hilabete iraungo dute, 100 milioi pezeta kostako dira, eta Ipuruan 4.400 ikusle beharrean 5.200 sartuko dira. Eibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko dute berrikuntza lanetarako dirua.

S A S K I B A L O I A

■ New York Knicks Atlantic Divisioneko lider jarri da NBAn, Miami Heatek Detroiten eginiko hutsa baliatuta

NEW YORK KNICKS taldeak 87-76 irabazi zion Los Angeles Clippersi, eta Atlantic Divisioneko lider jarri da berriro. Allan Houston (24 puntu), Pat Ewing (15 puntu eta 12 errebote) eta Latrell Sprewell (16 puntu, 9 asistentzia eta 7 baloi lapurtze) erabakigarriak izan ziren New Yorken garaipenerako. Miami Heatek, berriz, 95-87 galdu zuen Detroit Pistonsen aurka, eta dagoeneko ez da bere multzoko liderra. Beste emaitzak: Indiana 94, Dallas 93; Cleveland 109, Vancouver 108; San Antonio 89, Phoenix 98; Denver 123, Sacramento 117; Utah 96, Atlanta 94; Portland 105, Boston 92.

■ Espainia, Frantzia, Italia eta Greziak komunitario ez diren bi jokalari izaten jarraituko dute hurrengo denboraldian

EUROPAKO BATASUNETIK kanpoko bi jokalari izaten jarraituko dutela erabaki zuten Espainiako, Frantziako, Italiako eta Greziako Federazioek, atzo Erroman eginiko bileran.

O L I N P I S M O A

■ Nahiko babes ziurtatu arte ez dela NBOko presidente izateko aurkeztuko esan du Kevan Gosperrek

NAZIOARTEKO BATZORDE OLINPIKOKO presidenteorde Kevan Gosper kanadarra da Jose Antonio Samaranchen lekua betetzeko hautagai seguruena. Gosperrek, baina, nahiko babes izango duela ziurtatu arte ez dela NBOko lehendakaritzara aurkeztuko esan zuen atzo: «Badakit jende baten babesa badudala, baina oraindik ez dut erabaki aurkeztuko naizen. Beharrezko babesa lortutakoan egingo dut hori, egokiera ona dela iruditzen zaidanean».

Tau Baskonia ◆

Morales hiru aste barru jokatzeko prest egongo da atzo ebakuntza egin ondoren

Jon Rejado / **Gasteiz**

JUANAN MORALES hiru aste barru —gehienez— jokatzeko prest egongo da atzo egin zioten ebakuntza ondo atera ondoren. Santiago Rodriguez Camarero doktoreak egindako ebakuntza «arrakastatsua» izan zela adierazi zuen Jesus Secok, Tau Baskoniaren sendagileak, operazioaren nondik norakoak jakinarazteko egin prentsaurrekoan.

Juanan Morales oinez atera zen erietxetik, inolako laguntzarik gabe, eskuin hankan soilik benda bat zuela. Datorren asteazkenean hasiko da berriz sasoian jartzeko ariketak egiten Tauko pibota, igerilekuan eta giharrak sendotzen.

Ordu bat iraun zuen ebakuntzak, eta teknika berriak erabiliz egin zuen Camarero doktoreak. Berrikuntza hori Moralesek minduta zuen zaina kentzeko egindako ebakietan dago.

Mindutako zaina ateratzeko izter ondoan eta orkatilan ebakuntzak egin beharrean (orain arte bezala), Baskoniako pibotari zortzi ebaki txiki egin zizkioten lesioa sendatzeko. Morales esna egon zen ebakutza egiten zioten bitartean.

Ebakuntza berritzaile honi esker, hiru aste barru prest egongo da Morales; normalean egiten den ebakuntzarekin, berriz, gaixoak gutxienez hilabete bat behar du guztiz sendatu arte.

Kiroldegia ◆ Bikote kubatarrak dio arazorik gabe moldatu direla Bidasoako bizimodura

Kubatik Irunera

Julio Fis eta Gladys Fernandes, sorterria utzita, Irunera etorri dira, Bidasoa eta Txingudi taldeetan jokatzera



GARI GARAIALDE

Julio Fis eta Gladys Fernandes bikote kubatarra, Irunen, Artaleku Kiroldegi ondoan duten etxean.

Juanma Sarasola / **Irun**

KUBATIK etorritako bikotea da Julio Fisek eta Gladys Fernandesek osatutakoa, eta Irunen (Gipuzkoa) dute etxebizitza, Artaleku Kiroldegitik gertu. Kirolagatik etorri ziren Euskal Herrira: Julio Irungo Bidasoa eskubaloi taldeko jokalaria da, eta haren neska-lagun Gladys Irun-Hondarribiko Txingudi saskibaloi taldekoa.

Duela bost hilabete iritsi zen Julio Irunera, Hungarian bi urtez jardun ondoren. Gladysek denbora gutxiago darama hemen: bi hilabete eskas.

Julio Bidasoako taldean segituan integratu bazen ere, Gladys Txingudi taldearekin oraingoz entrenatu besterik ezin da egin; izan ere, Txingudi saskibaloi Ligako Lehen Mailako taldea izaki, partidu ofizialetan ezin du Europako Batasunetik kanpoko jokalaririk kantxaratu. «Espainiako nazionalitatea hartzea da aterabidea», esan digu Gladysek, eta afera tramitatze fasean dela. Taldea Ohorezko Mailara igoko balitz, ez legoke horrelako arazorik.

JULIO FIS
Irungo bizimoduaz

«Irunen gustura bizi gara, eta taldekideek ondo hartu gaituzte»

GLADYS FERNANDES
Etorkizunaz mintzo

«Txingudi taldean jokatu eta jokalari eta pertsona gisa hobetu nahi dut»

Biak ala biak «arazorik gabe» moldatu dira hemengo bizimodura. «Europako beste herrialdeekiko aldea dago hemen, jende asko ibiltzen baita kalean; Kuban martxa handia dugu, eta hemen ere halako zerbait gertatzen dela nabaritu dut», dio Juliok. Biek Euskal Herrian «hotza» pasatu dute, hala ere.

Bikote kubatarrak dio egunero ia antzeko bizimodua daramatela. «10:00etan jaiki eta 11:00etan entrenatzen naiz, 13:00etan etxera iritsi eta telebistan kirolak ikusten ditut, ondoren elkarrekin bazkaltzen dugu eta 18:00ak arte-edo lo kuluxka egiten dugu; 19:30etan berriro entrenatzera joaten naiz, eta 22:00ak aldera berriz etxeratuta, afaldu eta telebista ikusten dugu», dio Juliok. Gladysek antzeko ordutegia du: «Asteburuetan, partidaz gain ez dugu beste munduko gauzarik egiten; aski etxezuloak gara, eta buelta txiki bat egin ondotik, goiz etxeratzen gara».

Jaso duten harreraz galdetuta, biak kontent ageri dira. «Hemen gustura gaude, taldekideek ondo hartu gaituzte. Gainera, haiekin buelta bat ematera edo zinemara joateko esaten digute». Gladysek eta Juliok 1991n ezagutu zuten elkar, biak Kubako selekzioetako kide gisa kontzentratuta zeudela, artean 16-17 urteko nerabeak zirela, eta orduz geroztik dira bikote.

Kirol alorrean Kubaren eta Europaren artean bada ezberdintasunik, Julio eskubaloi jokalariaren iduriko: «Kuban amateurrak gara, eta jokalari onak sortzen direnean, toki batean kontzentratu eta arreta guztia emateaz gain, entrenamendu programan sartzen dituzte, baina gero, nazioarteko norgehiagokak kenduta, ez da lehiaketarik izaten. Bestalde, jokatu aurretik ez da kontrarioa ezagutzeko eginahalik egiten, ez da, Europan bezala, bideoa erabiltzen».

Euskal Herrira profesional moduan etortzean, Kubako selekzioarekin jokatzeari agur esan behar izan diote biek, eta hemen «jokalari onak» izatea dute helburu. Gladysek dioeez, ordea, badute beste helburu bat: «Jokatzen hastea eta jokalari gisa aurrera egitea da gehien desiratzen dudana, baina baita pertsona gisa hobetzea ere».

Ezaugarriak

Julio Fis
Bidasoako eskubaloi jokalaria

Bidasoako ezker laterala da, eta 1974. urteko urriaren 28an sortu zen, Holguinen (Kuba). 1,93 metro da luze, eta 96 kilo. Heziketa Fisikoko lizentziaduna, Kubako selekzioan aritua da arrakasta handiz. Irunera etorri aitzin, Hungariako talde batean ere jokatu zuen, bi urtez.

Gladys Fernandes
Txingudiko saskibaloi jokalaria

Saskibaloi jokalaria da, pibota, baina oraindik ezin du jokatu, baimena tramitatzen ari direlako. 1974. urteko apirilaren 4an jaio zen, Matanzasen (Kuba). 1,94 metro da luze. Matanzas taldean eta Kubako selekzioan ibilia da.

Portland ◆

Errekondok zuntz haustura du baina baliteke Santanderren jokatzea

Gerrialdea ongi lotuz gero, jokatzeko moduan izan daiteke

Erredakzioa / **Iruñea**

ASTELEHENEAN eginiko lehen mediku azterketak zuntz hausturarik ez zela zioen arren, atzo albiste txarrak jaso zituen Xabier Mikel Errekondok, erresonantzia magnetikoak zentimetro t'erdiko haustura aurkitu baitzion gerrialdean. San Antonioko pibotak kolpe gogorra hartu zuen igandean BM Cantabriaren aurkako partiduan —Errekopako final-laurdenetako joanekoan—, eta azken ordura arte ez du jakingo larunbatean Santanderren itzulerakoa jokatu ahal izan duen edo ez. Dena den, Xabier Mikel baikor agertu da: «Behartu behar badut ere, gerrialdea ongi lotuz gero, uste dut jokatzerik izango dudala, betiere mina jasteko modukoa bada».

Anjel Rekarte medikuak osteguna arte atseden hartzeko gomendatu dio, eta orduan hasteko entrenatzen, betiere kontu handiz eta gehiegi behartu gabe.

Bestalde, klubak bidaia antolatu du Santanderrera joan nahi duten jarraitzaileentzat. Autobusa eta sarrera 3.500 pezetan jarri dute, eta interesatuta daudenek Viajes Iberian egin beharko dute eskaera.

Portlandek ez du Masip fitxatu

Fermin Tajadura presidenteak eta Zupo Ekisoain entrenatzaileak ukatu egin dute Portland San Antoniok Enric Masip Barcelonako jokalaria fitxatu duela datorren denboraldirako. «Iaz ere zabaldutako zurrrumurrua da, baina gezurra da», esan du Tajadurak. Ekisoain Alemaniara doala ere zabaldu da, eta Ademarreko Cadenasek hartuko duela taldea hurrengo denboraldian, baina hori ere ukatu egin dute presidenteak zein entrenatzaileak.

Errugbia ◆ Baiona, Paue eta Tarbesko unibertsitarioen UPPAk Cork-en aurka jokatuko du gaur

Europako finala, Baionan

UPPAko jokalari gehienak Miarritze eta Baionan ari dira jokatzen, Eliten

Koldo Alduntzin / **Donostia**

SAINT-LEON zelai zaharrak —laster Jean-Dauger— beste behin unibertsitari mailako jarduna ukango du gaur (19:00), Times Trophy txapelketaren finala hartuko baitu; beste hitz batekin esanda, Unibertsitarioen Europako finala. Bestetik, urtero jokatzen den IDEKI zazpikako txapelketaren finalak ere Saint-Leonen izaten dira. Ingalaterra, Eskozia, Gales, Irlanda, Frantzia, Italia, Espainia eta Euskal Herriko unibertsitaterik onenek hartzen dute esku Times Trophy txapelketan.

Nazio horietako unibertsitate batzuetan, ikasle errugbilariek egun osoa igarotzen dute unibertsitatean bai ikasketak bai errugbi prestakuntzak egiten. Ez da, ordea, euskaldunen kasua, hemengoek Baionan eta Pauen ikasteko aukera dutelako. Horrela, ez dute arazorik ukaiten beren ohiko taldeekin entrenatzeko. Hala ere, «unibertsitatearekin ere entrenatzen dira hala behar denean», esan zigun Rene Viguera entrenatzaileak.

Rene Viguera UPPAko entrenatzailea izateaz gain, soin hezkuntza irakaslea da bertan. Horrez gain, Baiona taldeko entrenatzaileetako bat da, IDEKI txapelketak zuzentzen ditu eta Euskarianseko entrenatzaileetako bat ere ba da.

KOLDO ALDUNTZIN

Miarritzeko Bidabe —erdian— jokalari garrantzitsua da UPPAren hiru laurdenetan. Argazkian, Espainiaren aurka.

Hiru mila ikusle espero dira Saint-Leonen

Ingelesek sortu eta antolatzen dute Times Trophy txapelketa. Baionan joka zedin finala bi eskari egin zituzten antolatzaileek: 3.000 ikusle baino gehiago ziurtatzea eta eta 120.000 liberako (3.000 pezeta) aitzinkontuari aurre egitea. «Apostu handia da, eta ez baditugu 3.000 ikusle horiek biltzen kolpe handi samarra hartuko dugu. Aitzitik, kopuru horretara helduz gero, Euskal Herri osoak irabaziko du», adierazi zigun Viguerak. Eskaintza jaso bezain laster, «Jean-Louis Gout unibertsitateko lehendakariari egin nion proposamena, eta aitzinera egiteko erantzun zidan», gehitu zuen baionesak.

Cork ez da ezezaguna UPPAkoentzat, 1998ko zazpikako VII. IDEKI txapelketan elkarren kontra jokatu baitzuten. Orduan transformaketa batengatik irabazi zuten irlandarrek. Jokalariekin batera, Tom Kiernan eta Moss Keane internazional ohi mitikoak ere baionan izango dira. Gainera, ehunen bat jarraitzaile helduko omen dira zuzeneko hegaldi batean.

Txapelketaren sailkapen fasea 21 taldek osatu zuten, hiru taldeko zazpi multzotan banatuta. UPPAk partida guztiak irabazi ditu: Bristolen 0-27, Erroman 7-47. Final-laurdenetan, 14-20 irabazi zuen Londresen, eta finalerdian, 28-34 Cardiffen.

Viguera: «Euskaldunon jokoa egingo dugu: azkarra»

VIGUERA entrenatzaileak 25 jokalari deitu ditu, eta Cardiffera eraman zituen berberak izango dira. Horietatik seik Miarritzen dihardute: Lefevre, Bonetti eta Bidabe —21 urte azpitiko internazionalak—, eta, Elizondo, Drogon eta Maous. Beste zazpi jokalari Baiona taldean ari dira: Iriarte —21 urte azpitiko internazionala—, Larretxea —internaziona unibertsitarioa—, Couriol, Berges, Nicolas Viguera, Galle eta Larralde. oriek biak internazionalak eskola mailan.

Beste taldeetan diharduten euskaldunak ere badira; hala nola: Etxegarai (Paue) —internazionala juniorretan—, Alvarez (Maule) eta D. Viguera (Lourdes). Aipaturiko bi vigueratarrak, Reneren semeak dira. Bestetik, Paueko lau jokalari, eta, Akize, Perigueux, Bagneres eta Tarbeseko jokalari bana ere ariko dira,

KOLDO ALDUNTZIN

Rene Viguera.

Cork taldea egungo txapelduna da, eta Viguerak dioenez «aitzin-multzo sutsua du, eta gainera, bi erdiak eta hiru laurdenetako jokalari pare bat oso sendoak. Halere, jokalaririk arriskutsuena orpokatzaile internazionala dute». Jokoari dagokionez,

Jokoari dagokionez, «Irlandako jokoa darabilte, beti kontrarioarekin borrokan eta erronka fisikoa eragiten zelai erdia irabazteko. Beraz, gogotsu jardun beharko dugu behar bezala erantzun eta gero, gure jokoa egin ahal izateko». Itxura batean «euskaldunok egiten duguna egingo dugu. Hau da, baloia mugitzen saiatu, zelaian zehar lasterka egin eta ikuskizuna eskaini», gehitu zuen Viguerak.

Partida aparta egin zuten UPPAkoek Cardiffen kontra, galesek oso indartsu jardun arren. 70. hamarkadako jokoa egin zuten galesek, aitzinean oso sarkor, eta joko bizia eginez. «Ez dut uste antzeko neurketa gertatuko denik», erantsi zuen entrenatzaileak.

Atletismoa ◆

Mendiak «sei aurrenetan sartzeko posibilitateak» ditu

Haren entrenatzailea baikor da Europako Pista Estaliko Txapelketari begira

Erredakzioa / **Iruñea**

MARTA MENDIA nafarra, eta Montxu Miranda eta Cristina Petite bizkaitarrak izango dira ostiraletik igandea bitarte Ganten (Belgika) jokatuko den Europako Pista Estaliko Txapelketan euskal atleta bakarrak. Hirurak ere Espainiako selekzioarekin ariko dira, Mendia altuera jauzian, Miranda pertika jauzian eta Petite 3.000 metroetan.

Ez dute posibilitate handirik domina bat irabazteko, baina Mendiaren entrenatzailea, Raul Gonzalez, itxaropentsu dago. «Aurten jadanik nahikoa egin du Martak, baina hark badaki Europako Txapelketa honetan goialdean bukatzeko posibilitateak dituela. Bete-betean dago sasoi aldetik, eta berriro 1,90 metrotik gora ibil daiteke. Kasu horretan, sei lehenenan sartuko litzateke seguruenez», esan zuen atzo *Diario de Noticias* egunkarian Raul Gonzalezek. Orain dela hamar bat egun, Donostian, Espainiako Pista Estaliko Txapelketan 1,92 metroko jauzia egin zuen Marta Mendiak, sasoi onean dela erakutsiz. 1998an pasatu zuen lehen aldiz 1,90 metrotatik, eta Gonzalez enatrenatzailearen ustez 1,96ko jauzia ere egin dezake Mendiak. 1,72 metroko garaiera du atleta nafarrak —ez da garaia, beraz, altuera jauzirako—, baina Gonzalezek gogoratzen duenez, «Marta baino neska txikiagoek lortu izan dute 1,98ko marka». Gustura da entrenatzailea harekin, «oso ona baita lehiatzeko orduan».

Europako Txapelketa hau da pista estaliko denboraldiko azkeneko proba, eta gero aire librekoari ekingo diote. Aurten Joko Olinpikoetara joateko helburua du Mendiak.

Txirrindularitza ◆ Kelmeko Javier Pascual da lider Valentzian

Pascual azkarrena

Pantani iheslariengandik 3:34ra iritsi zen

Xabier Usabiaga / **Donostia**

EZ da Laurent Jalabert neguan asko entrenatu den bakarra, atzo ikusi zenez. Valentziako lehen etapan haren pare beste zortzi ziklista izan ziren, eta nabarmendu zen une bakarrean beherantza egiten zuen errepideak, gorantzakoan gauza izan ez zenaren seinale. Ez zuen, gainera, frantziarrak beste garai batzuetako kemen mugagaberik erakutsi, hark mendian gora erritmoa estutu aurretik, Euskaltel-Euskadiko Alberto Martinezek, eta Kelmeko Tony Taulerrek lotsagabe erasoa joa baitzuten. Mugimendu horri esker bederatzi lagun bildu ziren aurrean, eta mendate gailurretik helmugara bitarteko 24 kilometroetan bederatziek egin lan koordinatuari esker (erreleboak itxuraz eman zituzten), 25 segundoko abantailaz ailegatzea lortu zuten, eta, okerrik ezean, itzulia euren artean jokatuko da larunbateko erlojupean, bitartean ibilbideak ez baitu euren artean aldeak egiteko proportziorik eskaintzen. Aurreko taldetxoan Alberto Martinez eta Olano heldu ziren. Pantani 3:34ra sartu zen, eta Armstrong, berriz, 9:41era.

Sailkapenak

Lehen etapa eta nagusia

1. J Pascual (Kel)	4:17:18
2. L. Jalabert (ONCE)	d.b.
3. A. Tauler (Kel)	d.b.

MANUEL BRUQUE / EFE

Javier Pascual Llorentek Jalabert gainditu zuen esprintean.

Langabezitik garaipenera urtebetean

JAVIER PASCUAL LLORENTEK (Alfaro, Errioxa, 28 urte) badu liburua idazteko motiborik. Interesgarria izango litzateke; latza eta samina, profesionaletako lehen esperientzia azaltzerakoan, baina gozoa eta zorionekoa gaur idatzi beharko balitz.

Baneston bost urte ibili eta gero, 1995ean pasatu zen profesionaletara, Santa Clara taldera. Bi urte egin zituen han, baina kobratu apenas bakarra, arazo ekonomikoz gainezka ibili baitzen talde misteriotsu hura.

1997a hutsik egin zuen, ez profesionaletan, ez afizionatuetan, baizik eta kamioi batekin errepartoan. 1998an, atzera, profesionalatara itzuli zen Avianca-Telekom kolonbiako taldean. Kolonbiako itzuliko etapa bat erdietsi zuen, eta nahikoa izan zen iaz Kelmek fitxatzeko. Atzokoa du profesionaletako bigarren garaipena.

esprintak

Hungariarentzat historiako lehen garaipena

Laszlo Bodrogi 23 urteko txirrindulari gaztea historian lasterketa profesional bat irabazten duen lehen hungariarra da, Argentinako Itzuliko atariko erlojupekoan nagusitu baita. Bodrogi bigarren izan zen Donostiako Munduko Txapelketan sub23 mailan eta beti Frantziako taldeetan aritu da. Aurten profesionaletara jauzia egin du, Italiako Mapei taldearekin.

2000ko Festina Valentzian aurkeztu da

Festina taldeak, Juan Fernandezek zuzenduak, Valentziako itzulia hasi aurretik aurkeztu zuen 2000ko denboraldirako osatu duen taldea. Taldeak 25 txirrindulari ditu eta horien guztien artean bi dira euskaldunak: Joseba Beloki eta Iban Sastre. Taldearen helburua bizpahiru urteren buruan Tourreko garaipena lehiatzeko moduan izatea da.

Baneston lesionatu asko

Aitor Garmendia ondo ibili arren, Banesto zailtasunez beteta dabil. Cesar Solauni ebakuntza egin diote barrabil batean; Marzio Bruseghin italiarra birus arraro baten jatorria atzeman ezinik dabil denbora askoan; Eladio Jimenez erori egin zen Andaluzian eta erradioa hautsia du; Leonardo Piepoli Valentzian dabil, baina hark ere osasun arazoak ditu.

Arraunketa ◆ Urdaibai sendotu da

Mundakako mutil bi Urdaibain ariko dira

Ramon Basaldua / **Bilbo**

URDAIBAI ARRAUN TALDEAK koadrila sendoa osatuko du aurtengo traineru denboraldirako. Duela gutxi arte, Bermeo eta Elantxobeko arraun taldeetako arraunlariak ari ziren entrenatzen Urdaibai traineruan. Azken egunetan, berriz, Mundakako bi arraunlarik, iaz denboraldi osoan titular izandakoak, Urdaibaira etortzea erabaki dute. «Guretzat albiste pozgarria izan da Mundakako bi arraunlari Urdaibaira datozela jakitea. Proiektu honen xedea Bermeo, Mundaka eta Elantxobeko arraunlariak batzea da, eta zorionez, aurten ere hiru herrietako arraunlariak izango ditugu Urdaibain», adierazi zion EGUNKARIAri Patxi Bilbao Urdaibaiko entrenatzaileak.

«Urdaibaiko ateak zabal-zabalik daude»

Mundakako bi arraunlari Urdaibaira etorri izanak ez du esan nahi Mundakako Arraun Elkarteak Urdaibai proiektuan sartzea erabaki duela. Izan ere, denboraldi hasieran Mundakak uko egin zion Urdaibain jarraitzeari. Gauzak horrela, Mundakako senior mailako arraunlari batzuk utzi egin zuten arraunketa eta gainerakoek batela eta trainerila prestatzen hasi ziren. Gauzak ez dira oso ondo joan eta, azkenean, i a arraunlari guztiek arraunketa uztea erabaki dute.

Mundakako bi arraunlarik Urdaibaira joatea erabaki dute bertan traineru denboraldia egiteko. Gainera, ez da baztertzen Urdaibaik trainerila batekin parte hartzea udaberriko denboraldian. Urdaibaiko arduradunek garbi utzi gura izan dute Mundakako gainerako arraunlariek zabalik dituztela Urdaibaiko ateak. «Guk ez diogu atea itxi inori eta Mundakako arraunlariek garbi izan behar dute, eurek nahi izanez gero, Urdaibaira etortzeko aukera dutela», adierazi dute Urdaibaiko arduradunek.

Mundakako arraunlariak Urdaibaira etortzeak sendotu egin du Patxi Bilbaoren koadrila. Guztira hogeita bost bat arraunlari ari dira lanean entrenatzailearen aginduetara denboraldi honetan.

Urdaibaik helburu handiak ditu aurtengo denboraldirako, are gehiago aurrekoan lortutako emaitza bikainak ikusita. Bermeok eutsi egin dio iazko koadrilari eta Elantxobeko arraunlari gehiago ari dira aurten Urdaibain. Hiru herrietako arraunlariek osatutako trainerua indartsua izango da benetan.

BBK bandera ez da Bermeon izango

BILBAO Bizkaia Kutxak urtero irailean antolatzen duen bandera Nerbioi ibaian jokatuko da aurten ere. Bermeoko Arraun Elkarteak BBK-ko arduradunengana jo zuen aurtengo bandera Bermeon joka dadin. Bermeotarrek bi arrazoi jarri dituzte mahai gainean eskaera egiteko: Bermeoko bandera irailaren 16an jokatzen da urtero, eta aurten larunbata denez, BBK banderaren lehenengo jardunaldia egun berean jokatu beharko litzateke. Bestalde, Bermeoko Arraun Elkarteak hogeitabost urte betetzen ditu aurten eta taldeko arduradunek egoki ikusi dute BBK bandera Bermeon jokatzeko eskaera egitea.

Bilbao Bizkaia Kutxako arduradunek aintzat hartu zuten Bermeoren eskaera, baina Bizkaiko gainerako taldeen baimena lortzea jarri zuen baldintza. Joan zen astean bilera izan zen Bizkaiako Federazioaren egoitzan eta arraun talde gehienak BBK bandera Bermeon jokatzearen aurka azaldu ziren. Kostaldeko taldeak, Mundaka izan ezik, BBK bandera Bermeon jokatzearen alde agertu ziren.

Hala, bandera ohiko estropada eremuan jokatuko dela jakinarazi dio aste honetan bertan BBK-k Bermeori.

Pilota ◆ «Guretzat ez da ustekabea izan, oso serio ari gara», esan du Luis Mari Bengoak

Besagain, isil-isilik...

Bigarren mailako txapelketa goitik behera menperatu du

Enekoitz Telleria / **Donostia**

OSTIRALEAN jokatuko da, Oionen (Araba), Eskuz Binakako Bigarren Mailako txapelketako finala: Esnal eta Mendia Telleria eta Oregiren kontra. Lau pilotariak Besagainekoak. Asegarce-Alti eta Asperen aldean enpresa txikia, izenez. «Baina izena eta kalitatea kantxan erakutsi behar dira, ez bulegoetan». Besagaineko bazkideetako batek, Luis Mari Bengoak, atzo bertan esandakoa da.

Luis Mari Bengoa, Enrike Bidarte eta Clemente Arroyo dira Besagain enpresako hiru bazkide nagusiak. Bere garaian Asegarce-Altin edo Aspen aritutako zenbait pilotarirekin eta azkena etorritako gazteekin enpresa «serio» bat osatu dute. «Telleria, Bazeta, Lejardi eta Zabala beteranoak, Esnal gaztea ez dira edonor, asko erakutsi duen jendea da», nabarmendu zuen atzo Luis Mari Bengoak.

Euskal Herriko lau t'erdiko txapelketan agertu ziren indarrez —Zabala, Ansotegi eta Fuertesek bikain jardun zuten—, eta bigarren mailako txapelketan euren nagusitasuna nabarmena izan da, nahiz eta kitarako partidetan erabaki ziren finalistak. Besagaineko buruen eta bigarren mailako txapelketa jarraitu dutenen irudipena da, gainera, txapelketa hori serio hartu duen enpresa bakarra izan dela Besagain. Luis Mari Bengoak garbi dauka bigarren maila horri «duintasuna» ematea dela bere enpresaren zereginetako bat: «Aspalditik ari gara esaten pilotarien artean igoerak eta jaitsierak behar direla, txapelketa bakoitzari bere nortasuna eman eta pilotari bakoitzari bere kalitatea errekonozitu».



AMAIA ZABALO

Besagaineko Telleria eta Oregi, Bigarren Mailakoa aurkeztu zen egunean.

Federazioari lema hartzeko eskatuz

Bigarren mailak orain duen egoeraz galdetuta, Luis Mari Bengoa ez da oso baikor agertu. «Aurten, txapelketa hasi bezain pronto Federazioak alde egin zuen. Uneotan, kapitainik gabeko barkua bezalako gabiltza. Oraindik ez dakigu ez finaleko txapelak ez kopak nork eman behar dituen», nabarmendu zuen atzo, haserre antzean, Besagainekoak. Federazioari «lema hartzeko» eskatzen dio Bengoak: «Gure pilotari guztiak han daukate fitxa. Beraiena da ardura».

Ideiak garbi eta lan esparrua ongi mugatuta dauka Besagainek: «Uneotan, poztasun handiena, gure mutilen bat goiko enpresa batera joateak emango liguke. Badaukagu horretarako moduko jendea».



LUIS MARI BENGOA

(Besagaineko burua)

«Bigarren maila orain kapitainik gabeko itsasontzia bezala dabil. Oraindik ez dakigu ez finaleko txapelak ez kopak nork eman behar dituen»

Daniel eta Juan Pabloren lehenengo garaipena

E. T. / **Donostia**

EUSKAL HERRIKO pala txapelketako bi partidu ziren atzo Bilboko Deportivon jokatzekoak, baina bakarra baino ez zen jokatu azkenean. Danielek eta Juan Pablok irabazi zuten Ziskar II.a-Garridoren kontra (45-38). Bigarrenean, Mikel Undak aritu behar zuen, baina beste egun pare bat eskatu ditu erabat osatzeko, eta bihar arte atzeratu dute, horrenbestez, atzo jokatu beharreko txapelketako partidua: Unda I.a-Rekalde eta Iriondo-Torre.

Danielek eta Juan Pablok txapelketako orain arteko partidu gehienetan eman ez duten maila eman zuten atzo. Ongi moldatu ziren Garciatarrak eta aparteko arazorik gabe atera zuten aurrera Ziskar eta Garridoren kontrakoa. Berandutxo datorkie lehenengo puntua. Lau partidu jokatu eta atzokoa bakarrik irabazi dute. Ziskar II.ak eta Garridok, berriz, jokatutako biak galdu egin dituzte.

Jaialdiko lehena, Egibar-Ziskarrentzat Zeberio eta Leundaren kontra (25-40).

Gure Kirolak eta Zaramaga Euskal Ligako buru, eskuz

Erredakzioa / **Donostia**

JOAN den asteburuan jokatu da Kluben Arteko Euskal Herriko txapelketako hirugarren jardunaldia. Ez da aparteko ustekaberik izan, eta datorren jardunalditik aurrera mailaz igo edo jaisteko partiduak hasiko dira.

Eskuz binakakoan bi klub dira nabarmendu beharrekoak. Barakaldoko Gure Kirolak, El Cortijoren kontra lortutako garaipenari esker, sailkapen buruan jarri da Zaramagarekin batera, eta bi talde horiek, beraz, zuzenean sailkatu bigarren ligaxka jokatzeko, mailaz igo edo jaisteko partidurik jokatzeko beharrik gabe.

Zestan, Gasteizko Jai Alai klubeko bi taldeak aritu ziren elkarren kontra, multzoko lehen postu erabakitzeko—Zaratek eta Otxoak irabazi zuten (35-31)—, eta pala motzean Giriziak eta Kukuk egin zuten beste horrenbeste —Giriziako Ezkerro eta Ayerbek irabazi zuten (40-34)—.

Paleta larruz, Lagun Artea eta Girizia jarri dira sailkapenaren buruan.

txokoan

Ezkurra eta Urretabizkaia II.a irabazle Euskalen

Ezkurra bolada ezin hobean dabil, eta atzo ere irabazle irten zen Huarteko Euskalen jokatutako estelarrean. Urretabizkaia II.aren laguntza bikainarekin, 40-35 irabazi zuen Garikoitz Altuna eta Lizasoren kontra. Doneztebeko txapelduna izan zen onena. Bigarren estelarra, Eizagirre eta Elizalderentzat , Zeberio II.a eta A. Lekunberriren kontra (27-40). Jon Eizagirreren hobekuntza, nabarmena.

Finalerdietako pilota aukeraketa Bergaran (16:00)

Bergarako udal pilotalekuan bilduko dira gaur (16:00) Alustiza-Zearra eta Titin III.a-Lasa III.a, datorren larunbatean jokatuko duten finalerdietako partidurako pilotak aukeratzeko. Unanue-Errasti eta Goñi II.a-Zezeaga finalerdirako pilota aukeraketa, berriz, bihar egingo da, Eibarko Astelenan (11:30).

Mikel Goñik proba egingo du gaur Astelenan (16:30)

Igandean Unanue eta Errastiren kontra —azkoitiarra jokatzeko moduan izango da ordurako— jokatu beharreko finalerdietako itzuliko partidurako prest dagoen jakiteko, proba egingo du Mikel Goñik gaur arratsaldean Eibarko Astelenan (16:30). Fisikoki hobera egin du Oronozkoak, eta eskuak zelan dituen ikusi nahi du gaur.

Unai Iñurrategi fitxatu du Garfek

Unai Iñurrategi Uribarri atzelaria da Errioxako Garfe enpresak fitxatu duen azken pilotaria. 26 urte ditu Iñurrategik, Eskoriatzakoa da (Gipuzkoa), 1,84 metro eta 97 kiloko mutila. Euskadi eta Gipuzkoako txapeldun iaz, Munduko Kopako txapeldun ere bai Almerian, eta Munduko Txapelduna orain bi urte Mexikon.

biharko partiduak

GALARRETA. 16:00.
- Zalakain-Etxebe II.a / Zeberio III.a-Zestau III.a
- Ezkurra-Etxabe / Elizalde-Altuna I.a-Aizpuru
- Zeberio II.a-Iriarte / Urretabizkaia I.a-Lizaso
- Zeberio I.a-Mendizabal / Lezea-Etxeberria III.a.

LITERATURAREN ETA KARTZELAREN ARTEKO HARREMANARI BURUZKO HITZALDIA ESKAINI ZUEN IDAZLEAK ATZO

Izagirre: «Lauaxetak eta Lizardik beren poemak hondatzen zituzten ideologiagatik»

- «Lauaxetaren *Agur Euzkadi* poema manipulatu dela uste dut. Nire iritziz, ez zuen horrela idatzi, *Agur ama* idatzi zuen»
- Kartzelako literatura unibertsala azaltzeko Europak eman dituen idazle handienetako batzuk gogora ekarri zituen Izagirrek
- Kismet turkiarra, Babel errusiarra eta Cellan errumaniarra aipatu zituen inoiz izan diren maila goreneko idazleen artean

Jon Eskisabel / **Pasaia Antxo**

GARI GARAIALDE

Koldo Izagirre idazlea, atzo, Pasai Antxoko kultur etxean eskainitako hitzaldian.

«LAUAXETAk eta Lizardik beren poemak hondatzen zituzten ideologiagatik, poema bakoitzean Jainkoa aipatu behar horrengatik», esan zuen Koldo Izagirre idazleak atzo. Lizardiren poemaren zati bat irakurri zuen adibide gisa, «*emakumeak ederren dira zerura begira*», eta irribarre adierazgarri batek jarraitu zion. «Lauaxeta eta garaikide guztiak, Aitzol eta abar, apaizak ziren, Batikanismoan bizi ziren, eta Sabino Aranaren eslogana sinistu zuten: 'Gu aberrirako, aberria Jainkoarentzat'. Horrek desastre politikoa ekarri zuen», gaineratu zuen Izagirrek.

Kartzela eta literaturari buruzko hitzaldi bat eskaini zuen idazleak Pasai Antxon, eta entzule baten galderari erantzunez, Lauaxetak afusilatu aurreko egunean idatzitako *Agur Euzkadi* poemari buruz mintzatu zen. Zalantzan jarri zuen Lauaxetak benetan hori idatzi zuen: «Uste dut poema horren inguruko manipulazioa gertatu dela. Nik hiru bertsio ezberdin irakurri ditut, eta nire iritziz, Lauaxetak ez zuen *Agur Euzkadi* horrela idatzi, *Agur ama* idatzi zuen».

Bernart Etxeparetik hasita

Literatura, askatasun bide zuen izenburu Koldo Izagirrek eman zuen hitzaldia. Kartzelan egiten den literatura gutxietsi nahian hura literatura politikoa dela diotenen argudioa salatu eta azken mendeetan, Europako mugetatik, «askatasunaren eremua deitzen zaion mendebalde honetatik» atera gabe, kartzelak eman dituen egile handienetako batzuen etsenpluak, mota guztietakoak, ekarri zituen gogora. Haien poema eta testuen irakurketan babestu zen azalpenak emateko. Dena den, azpimarratu zuenez, «kartzelan asko idazten da, baina gutxi iristen zaigu, instituzioak berak errepresioa ezartzen baitu idazkiak bahituz».

Euskal Herritik abiatu zuen Izagirrek ibilaldia. Hain zuzen ere, lehen euskal idazleak, Bernart Etxeparek, «kartzelan idatzi zuen bere poema onena, *Mosen Bernart Etxepareren kantoia*», adierazi zuen. «Beste poema batzuk dira ezagunagoak, baina hori da onena. Bertan hikaz hitz egiten dio bere buruari, literatur teknika bat erabili zuen solaskidearen hutsunea estaltzeko». Etxahun eta haren «poema ironikoak, sarkastikoak eta familiaren kontrako gorrotoa azaltzen dutenak» aipatu zituen ondoren. «Adibideak ugariak dira euskal literaturan», gaineratu zuen, eta segidan Europako herrialdetan murgildu zen. Tokian tokiko literaturan maila gorenetakoak diren zenbait idazle presoren kasuak aipatu zituen. Bi idazle mota bereiztu zituen, kartzelan sartu aurretik jada idazle direnak, eta «kartzelak idazle bihurtutakoak». Ianis Ritchos eta Iorgos Mangakis greziarrak aipatu zituen adibide gisa. eta haien bi testu irakurri zituen. Txinaurrei buruzko aipamena baliatu zuen azaltzeko kartzelako idazleen obsesio handiena «lagunenganako isolamenduaz gain», intsektuak direla esateko. «Holandako preso batek sortu zuen inoiz idatzi den araknologia trataturik onena, XVIII. mendean. Aspertuta zegoen eta armiarmak aztertzen hasi zen», gaineratu zuen.

KOLDO IZAGIRRE

«Lauaxeta, Aitzol eta abar Batikanismoan bizi ziren, eta Sabino Aranaren eslogana sinistu zuten: 'Gu aberrirako, aberria Jainkoarentzat'»

«Kartzelan asko idazten da, baina gutxi iristen zaigu, instituzioak berak errepresioa ezartzen baitu idazkiak bahituz»

Turkiako «poeta nazionala» Nazin Kismet da. «Hain handia da poeta bezala, irakurleak ahantzi egiten duela preso egon zenik», adierazi zuen.

Kartzelaren toponimo bat bilatu behar bada hura Siberia dela esan zuen Izagirrek, eta han ere liburu bikainak sortu ziren, «Sobiet Batasuneko abangoardiako guztiak Siberiatik igaro baitziren». Fredor Dostoievski eta Isaak Babel azpimarratu zituen, eta maila txikiago batean Aleksandr Soljenitsin Nobel sariduna. «Idazle ona da, baina ez onenetakoa. Nobel saria eman ziotenean Gerra Hotza zen, eta nire ustez SESB desprestijiatzeko eman zioten».

Alemanian kartzela ez da gehiegi jorratu den gaia, «oraindik ez dute gainditu bere historia eta kontzientzia txarra dute», azaldu zuen Izagirrek, eta alemaneraz idatzi ahal izateko Frantziara erbesteratu zen Paul Cellanen kasua aipatu zuen. Izagirreren iritziz, poeta handienetakoa da, eta inoiz idatzi den poema ederrenetako baten egilea.

Ingelesez idatzi dutenen artean irlandar bat, «ingelesezko idazle onenak irlandarrak dira, musikariak eta zinemagileak bezala», Brendan Behan aipatu zuen —Txalapartak *Memorias de un rebelde irlandés* argitaratu du—, eta gaztelerazko idazleen artean Jose Rizal filipinarra.

Trikitixa irakaskuntza guneetara zabaltzeko xedea du elkarteak aurten

Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak urteroko batzar nagusia egingo du gaur

Gorka Erostarbe / **Donostia**

Iazko urtearen balantzea egiteaz gain, etorkizunari begira dituen asmo eta erronken berri emango du gaur Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak, urtero egin ohi duen batzar nagusian. Trikitixa irakaskuntza guneetara zabaltzea eta apirilaren 30ean ospatuko den Trikitixa Eguna dira 2000. urterako dituzten egitasmo nagusietako bi.



JUAN CARLOS RUIZ

Alaitz eta Maider izango da trikitixa eskoletara hurbilduko duen bikoteetako bat.

AZKOITIA eta trikitixaren arteko lotura estua da, bai historikoki eta baita egun ere. Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak bertan duen lokalean egingo du gaur urteroko batzar nagusia. Elkarteko lehendakari den Gema Sistiagak, batzarrean bi ildo nagusi jorratuko dituztela batez ere, adierazi dio egunkari honi: «batetik iazko urtearen balantzea egingo dugu eta bestetik 2000. urterako plangintza azalduko dugu».

1999ko balantzea egiteko zerrenda bat eramango dute elkartekoek: «besteak beste elkarteak zein ekintzatan parte hartu duen agerian jarriko dugu. Helburua, zazpi eskualdeetan parte-hartzea genuen, eta eskualde bakoitzean eginiko jaialdien berri emango dugu».

Erakusketa ibiltaria, aurrera

Iazko urtean legez, aurten ere artxibo lanarekin jarraituko dutela nabarmendu du Sistiagak: «Erakusketa ibiltariarekin aurrera jarraituko dugu, baina murrizketa bat izango da. Lan izugarria da, gauden kideen artean banatzeko, eta urtean zehar bi edo hirutan emango dugu aukera erakusketa muntatzeko. Gainontzen artxibo moduan geratuko zaigu».

> **GEMA SISTIAGA**
> **Proiektu berria**
> *«Trikitixa ikasleengana hurbiltzeko beharra ikusten dugu»*

Batzarrean jorratuko den punturik garrantzitsuena, etorkizunari begira zein asmo dauden agertzea izango dela esan du elkarteko lehendakariak. 2000. urterako «proiektu potoloena», trikitixa irakaskuntza guneetara eramatea izango dela azpimarratu du halaber, Sistiagak. «Bai musika eskola eta baita trikitixa eskoletara ere, gure emanaldiak edota hitzaldiak irits daitezen ahaleginduko gara. Trikitixa ikasleengana iristeko beharra ikusten baitugu». Emanaldi edota hitzaldi horiek, elkarteko zortzi bat lagunek emango lituzkete bikotetan banaturik. Bikote horietako bat, Iker Goenaga eta Aitor Furundarenak osatzen dute. Alaitz eta Maider ere, ariko dira urtean zehar emanaldiak emanez. Imuntzo eta Belokik osatzen dute hirugarren bikotea. Ixiar Orexa eta Joseba Tapia ere beranduxeago hasiko direla gaineratu du Sistiagak. Egitasmoa gauzatzen hasiak dira dagoeneko elkarteko kideak, eta urte osoan zehar beste hamabost emanaldi egiteko asmoa dutela gaineratu du elkarteko lehendakariak berak: «Esperientzi berria da, eta trikitixa gertuagotik bizitzeko aukera eskaini nahi dugu».

Gema Sistiaga • EHTEKO LEHENDAKARIA •

«Trikitixaren egungo egoera ez da txarra»

Gaur egingo du Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak urtero egin ohi duen batzar nagusia. Gema Sistiaga da elkarte horretako lehendakaria.

■ **Trikitixa irakaskuntza guneetara hurbiltzeaz gain, ba al duzue beste proiekturik 2000. urterako?**

Beste egitasmo garrantzitsu bat, Gasteizen, apirilaren 30ean ospatuko den Trikitixa Eguna izango da. Dagoeneko jo eta ke gabiltza egun horren antolakuntzan, eta dei bat luzatu nahi nieke, antolaketan lan egiteko prest leudekeenei, ateak zabalik baitituzte. Askotan oso gutxiren eskuetan gelditzen da, eta egun horrek infraestuktura dexentea eskatzen du.

■ **Zenbagarren aldia du aurtengo Trikitixa Egunak?**

Trikitilari egunak eskualdeka egin izan dira. Esaterako Gipuzkoan bat baino gehiago egin izan da, bertan baitago zaletasunik gehien. Baina, elkartea Euskal Herrikoa da eta aurten Gasteizen egingo dugu estrainekoz.

■ **Egun, zein egoeratan dago trikitixa zure ustetan?**

Egun trikitixaren egoera ez da txarra. gero eta eskola gehiago irekitzen dira, nahiz eta baten batzuk ixten diren. Haatik, ez da eskualderik trikitixa eskolarik ez duenik. Are gehiago, sarri irakasle faltan izaten dira eskola horiek. Gainera, kontserbatorio edota musika eskoletan ere arrakasta gehiago izaten ari da. Anekdota bat badut: Alaitz eta Maiderrek, trikitixa jotzen hasi zirenean, ingurukoak lotsatu egiten zirela esan zidaten. Egun, ez da halakorik gertatzen.

Aranaren 'Egunaria' eskuizkribua berridatzi eta moldatu du Patxi Altunak

■ *1.300 orrialdeko idazlana da, orain arte argitaratu gabea*

Erredakzioa / **Donostia**

EUSKALTZAINDIAK bihar aurkeztuko du Patxi Altuna euskaltzainak paraturiko Jose Ignazio Aranaren *Egunaria* liburukia Donostiako Foru Aldundiko egoitzan, 12:30etan. Ekitaldi berean, bi euskaltzain ohorezko zenduen omenezko txostenak irakurriko dituzte. Beñat Oihartzabalek Andre Martinet-en omenezkoa irakurriko du, hain zuzen, eta Juan Mari Lekuonak, berriz, Iñaki Eizmendi *Basarri*-ren omenezkoa.

Egunaria Iker bildumako hamabigarren liburukia da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Kutxa Fundazioaren eta Deustuko Unibertsitatearen babes ekonomikoaz argitaratu du Euskaltzaindiak. Hala, lau erakundeotako ordezkariak izango dira biharko aurkezpen ekitaldian. Haien artean, liburukiaren sarreraren egile Jose Luis Lizundia, epilogoa idatzi duen Jose Antonio Martija, eta *Egunaria* paratu duen Patxi Altuna.

XIX. mendeko bibliografoa

Jose Ignazio Arana Azkoitian jaio zen 1938an, eta 1896an zendu. Euskal idazle, olerkari, hizkuntzalari eta historiagilea izan zen, eta XIX. mendeko bibliograforik onenetakoa. Berak idatzitako lan guztien artean, mila orrialde baino gehiagoko egunaria da aipagarria, argitaratu berri den *Egunaria*ren jatorrizko eskuizkribua, hain zuzen ere.

Patxi Altunak azaldu du «idazkari soila» izan dela. Aranak idatzi zuen ia 1.300 orrialdeko eskuizkribua, orain arte argitaratu gabea, berridatzi eta moldatu egin du Altunak. Aranaren lanak bi zati handi ditu, lehena gaztelaniaz idatzita, eta bigarrena euskaraz. Lehen zatia beste era batera moldatu du Altunak, kontaera gisa, eta bigarrengo zatiko grafia gaurkotu egin du. Aranaren olerkiez, bertsoez eta beste hainbat eskutitzez osatu du liburukia.

Buñuelekin lan egindakoen testigantzekin osatutako dokumentala estreinatu da

Zinegilearen mendeurreneko ospakizun ekitaldiak abian jarri dira atzotik

Agentziak / **Zaragoza**

Luis Buñuelen jaiotzaren mendeurrena ekitaldi instituzional batekin ospatu zuten atzo haren jaioterrian, Calandan (Teruel). Zinegile ospetsuaren izena daraman kultur zentroa inauguratu zuten, eta arratsaldean, Zaragozan, *A propósito de Buñuel* dokumentala estreinatu zen. Buñuel ezagutu zutenen iritzien bidez azaltzen zaigun pertsonaia «aberatsa, plurala, paradoxikoa eta kontraesanez betea zen», lanaren egileek azaldu zutenez.

ALBERT OLIVE / EFE

Hainbat artistak Buñuelen omenez egin duten margoa, Bartzelonako El Triangleko Fnac zentroan.

ORDUBETEKO danborrada batekin hasi ziren, gauerdian, Luis Buñuelen omenezko ospakizunak Calandan. Ekitaldi instituzionala eguerdian egin zuten, Espainiako agintari politiko ugari bertan zirela. Espainiako Felipe printzeak inauguratu zuen, hain zuzen, Centro Buñuel Calanda kulturgunea. Buñuelen bizitzari eta obrari buruzko informazioa bildu eta ezagutarazteko zentroa izango da, baina baita bestelako kultur ekimenak sustatzeko ere. Horrela, Aragoin sortutako margolari garrantzitsuenen erakusketa bat dago zabalik jadanik. Orobat, kultur zentroaren atzealdean, Buñuelen busto bat inauguratu zuten atzo.

Arratsaldean Zaragozan jarraitu zioten ospakizun ekitaldiekin. Han estreinatu zen *A propósito de Buñuel (Buñuelen kontura)* dokumentala. Javier Rioyok eta Jose Luis Lopez Linaresek zuzendutako lan horren helburua zinegilearen alderdi humanoa eta zinematografikoa agertzea da, haren berri ez duen jendeari.

«Gutxiengo handiek maitatutakoa»

Egileek 90 elkarrizketa inguru egin dituzte Buñuelekin lan egin zuten aktore, zuzendari, teknikari eta idazleekin. Baita haren senide eta lagunekin ere, eta aragoiarraren film ezagunenetako irudiekin (*El angel exterminador, Belle de jour, Ese oscuro objeto del deseo*...) uztartu dituzte haien iritziak. Besteak beste, Carlos Saura, Arturo Ripstein, Francisco Rabal, Michel Piccoli, Carol Bouquet, Jean Rochefort, Angela Molina, Carlos Fuentes eta Roman Gubernen aburuak agerten dira filmean. Ez dira azaltzen, ordea, Buñuelekin lan egin zuten bi aktore garrantzitsu, Catherine Deneuve eta Jeanne Moreau, ez baitziren ados jartzera iritsi dokumentaleko zuzendariekin.

Rioyok azaldu zuenez, «Buñuel oso pertsonaia aberatsa, plurala, paradoxikoa eta kontraesanez betea zen», eta artista bezala, «gutxiengo handiek, ez bakan batzuek, maitatutako eta goraipatutako artista».

Buñuelen omenezko ekitaldiak nonahi izango dira urtean zehar. Madrilen *Askatasunaren begia* erakusketa zabaldu dute bi tokitan: Ikasleen Egoitzan —gaztaroa bertan eman zuen Buñuelek— eta ICO Museoan. Buñuelen gutunak, liburuak, margoak eta argazkiak biltzen ditu erakusketak, Buñuelen kezkak ulertzeko balio duten beste hainbat gauzen artean.

Canneseko Zinemaldiko aurtengo ekitaldiak bat egingo du Buñuelen mendeurreneko ospakizunekin. *Buñuelen mundu sekretua* erakusketa zabalduko du, haren izena eramango duen zinema areto berria inauguratuko du, eta *Viridiana* filma eskainiko du —film horrek *Urrezko Palmorria* irabazi zuen 1961ean—.

Horrez gain, Bartzelonan, Mexikon eta Hungarian ere izango dira Luis Buñuelen omenezko ekitaldiak.

Nafarroako Auditorioa eta Kongresuen Jauregia eraikitzeko indusketen bigarren faseko obretarako lehiaketa zabalik da

Heldu den martxoaren bigarren erdialderako amaituko dituzte indusketa arkeologikoetako lanak

Erredakzioa / **Iruñea**

NAFARROAKO Auditorioa eta Kongresuen Jauregia Elkarteak jadanik zabaldu du lehiaketa indusketetako bigarren faseko obren adjudikazioa egiteko, Indusketetako bigarren fase horren ostean hasiko dira Nafarroako Kultur Auditorioa eta Kongresuen Jauregia eraikitzen.

Eraikitze lanez arduratzen diren enpresek izango dute lehiaketara aurkezteko oinarrien berri, eta heldu den martxoaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dituzte eskaintzak. Indusketetako bigarren faseko obrak egiteko epea bost hilabete eta erdikoa izanen da, eta lizitazio prezioa 470 milioi pezetakoa da (18,8 milioi libera inguru).

Iragan urtarrilaren 10ean hasi ziren indusketa arkeologiko lanak egiten, eta heldu den martxoaren bigarren erdialderako amaituta egongo direla aurreikusi dute Elkarteko arduradunek. Indusketa lanak amaitu, eta orduan hasiko dira Nafarroako Auditorioa eta Kongresuen Jauregia hartuko duen eraikina egiten. Indusketa lanetan ari zirela, Gotorlekukoak ziren hainbat egitura aurkitu dituzte, San Antongoa eta Santa Teresakoa, besteak beste. Nafarroako Gobernuak hala erabakita San Antongo pieza Nafarroako Auditorioa eta Kongresuen Jauregiak berak gordeko du, teknikariek baieztatu baitute pieza hori egoera onean dagoela.

Nafarroako Topaketak 2000 egitarauak lehiaketa berriak izanen ditu aurten

Izena emateko epea martxoaren 31n bukatuko da

Erredakzioa / **Iruñea**

BERRITUTA dator aurten Nafarroako Gobernuak urtero antolatzen duen Topaketak egitaraua: batetik, lehiaketa berriak antolatu dituzte, eta, bestetik, moldatu egin dituzte beste batzuk.

Lehiaketa berriei dagokienez, musika bandei zuzendutakoa izanen da lehendabizikoa, eta, ordenagailuaren bidez egindako diseinuaren ingurukoa bigarrena.

Bestalde, argazkigintza lehiaketari dagokionez, bi urtetik behin besterik ez dute eginen aurrerantzean, 1998. urtetik egiten ez zuten pintura lehiaketarekin tartekatuz. Aurten pintura lehiaketa eginen da. Komiki saila, berriz, bertan behera utzi dute, parte hartzen zuten lanen kopuru murritza zela eta.

Aurten, beraz, ondoko lehiaketak antolatu ditu Nafarroako Gobernuak Topaketak 2000 izenburuko egitarauaren baitan: musika bandena, ordenagailu bidez egindako diseinu lehiaketa, kantautoreena, pop-rock lehiaketa, literatura lehiaketa, pintura sailekoa eta antzerki lehiaketa.

Azken horri dagokionez, bi atal izanen ditu: batetik, ikastetxeetako antzerki taldeek parte hartuko dute, eta, bestetik, gazteek osatutako konpainiek.

Azken fasea Gaiarre antzokian

Hamalau eta 30 urte bitarteko gazteek esku hartu ahal izanen dute Topaketak programako lehiaketetan, pop-rock atalean izan ezik; sail horretan, hamasei urtetik goitiko gazteek hartu ahal izanen dute esku.

Azken urteotan bezala, lehiaketetako azken fasea Gaiarre antzokian eginen dute, maiatzaren 28tik 30era arte. Sari banaketa, berriz, maiatzaren 31n eginen dute, jaialdi baten baitan. Izena emateko epea zabaldu du Nafarroako Gobernuak, datorren martxoaren 31a bitarte.

Neanderthal gizakiari buruzko aurkikuntza berriak aurkeztuko ditu Arsuagak Donostian

Aranzadi elkarteak etzi abiaraziko ditu arkeologiari buruzko jardunaldiak

Lorea Agirre / **Donostia**

Arkeologia bere esanahi zabalenean hartuta, Aranzadi elkarteak egitarau oparo eta interesgarria apailatu du datozen astetarako. Juan Luis Arsuaga paleoantropologoak etzi abiaraziko du zortzi hitzaldiko ziklo hori. Ekain, Irikaitz, Iturritxiki eta Besagaingo aztarnategiak izango dira hizpide jardunaldi horietan, besteak beste.



GARI GARAIALDE

Juan Luis Arsuaga, Atapuercaren inguruan iaz Tolosan zabaldu zen erakusketan.

JUAN LUIS ARSUAGA paleoantropologoa buru-belarri sartuta dabil Neanderthal gizakiaren ikerketan. Nola bizi ziren, hizkuntzarik ba ote zuten, garaikide izan ziren Cro Magnon gizakiarekin harremanik izan ote zuten eta zergatik desagertu ziren argitzea da Arsuagaren kezka nagusia. Eta ziurrenik gai horixe bera da antrapologian une honetan dagoen eztabaidarik biziena.

Arsuagak Atapuercako aztarnategian du ikerketa gunea. Aztarnategi hori da Europako garrantzitsuena, izan ere lehen gizaki europarra ikertzeko aztarna gehien aurkitu den lekua da. Arsuagak, bere lan talderarekin batera, teoria berriak ekarri dizkio antropologiari Atapuercan eginiko ikerketetan ateratako ondorioetatik. Horietan garrantzitsuena Homo Antecessor izeneko gizakiaren aurkikuntza izan da, zeina Europako lehenengo gizakia izan zela frogatu baita.

Arsuagaren aburuz Atapuercan bizi zen Neanderthal gizaki berbera izan zatekeen Lezetxikin (Arrasaten) bizi zena.

Azkenaldian teoria desberdin anitz dago Neanderthal gizakiaren inguruan. Berrienetako batek dio Cro Magnon gizakiarekin (gizaki modernoa) nahastu zela eta horren frogagarri Portugal hegoaldean aurkitu den lau urteko ume baten hezurdura agertzen dute. Teoria horien guztien gainean hitz egingo du Arsuagak, etzi, Aranzadi elkartearen Donostiako egoitzan, 19:30etatik aurrera.

Ordu eta leku berean izango dira datozen asteetan beste zazpi hitzaldi ere. Horien artean aipagarri dira Jexux Altunak Ekaingo kobazuloaren erreplikaren gainean eta Alvaro Arrizabalagak Irikaitzeko aztarnategi garrantsitsuaren inguruan emango dituztenak.

Hitzaldiak

Hizlaria	Gaia	Eguna
Juan Luis Arsuaga	Neanderthal gizakia	otsailak 25
Jexux Altuna	Ekaingo erreplika	martxoak 1
Alvaro Arrizabalaga	Irikaitz aztarnategia	martxoak 1
Jose Antonio Mujika	Trikuharriak	martxoak 8
Xabier Peñalver	Besagaingo herria	martxoak 15
Milagros Esteban	Kostaldea antzinaroan	martxoak 22
Alex Ibañez	Nekropoliak Gipuzkoan	martxoak 29
Ana Benito	Iturritxiki aztarnategia	apirilak 4
Beatriz Herreras	Arkeologia industriala	apirilak 12

Blues gauak Bilbon eta Oñatin, Tam White eta Brian Kelocken eskutik

Bihar Euskaldunan ariko dira eta etzi Oñatiko Gaztelekun

Erredakzioa / **Bilbo**

TAM WHITE *bluesman* eskoziarrak joan den irailean argitaratutako *The Crossing* diskoa aurkeztuko du egunotan Euskal Herrian, Brian Kellock piano jolea lagun. Bihar iluntzeko 20:00etatik aurrera Bilboko Euskalduna jauregian ariko dira, eta etzi, berriz, Oñatiko Gaztelekun 22:30etan hasita.

Askoren iritziz Whiteren disko onena da *The Crossing*. Lan horretan jazz klasikoen interpretazio pertsonalak, egungo pop gaienak eta beste zenbait konposizio uztartu ditu.

Bilakaera bikaina

Whitek 50 urte ditu, eta horietatik gehienak musika munduan eman ditu. 60ko hamarkadan Boston Dexters taldearekin aritu zen Edinburgeko klubetan, eta handik Londresera egin zuen jauzi. The Dexters talde birmoldatuarekin Europan zehar aritu zen. 80ko hamarkadan *rhythm & blues* talde ospetsua izatera iritsi ziren eskoziarrak.

Azken urteotan musikan ez ezik zineman eta telebistan ere egin du lan Whitek. Esaterako, *Braveheart* filmean MacGregor klanaren buruzagiarena egin zuen.



«Koadroak poesia dira lengoaia bat baino gehiago»

Patrick M. Fitzgeralden lanak Bilboko Amaste aretoan daude ikusgai

Montse Arregi / **Bilbo**

Duela hamar bat urte Bizkaian bizi den Patrick Michael Fitzgerald artista irlandarraren azken lanak ikusgai daude Bilboko Amaste galerian (Juan Ajuriaguerra, 18). Margoak eta marrazkiak ekarri ditu bertara, ohikoa duen minimal ukitua dutenak. Zuria, grisa eta beltza dira lanotan erabiltzen dituen koloreak, «duten sinbologia eta poesiagatik». Martxoaren 24a arte egongo da zabalik erakusketa.

AZKEN bost urteotan landutako koadroak eta marrazkiak apailatu ditu Patrick Michael Fitzgeraldek Amaste galerian, *Denbora eta itzala* izeneko erakusketan. Zuria, grisa eta beltza nagusi, egileak arkitekturarekiko duen mirespena ere agertzen da lanotan.

«Iaz burututako lana da, koadroekin nahiko denbora ematen baitut, agian ez jarraian baina ordu mordoxka», azaldu zigun artistak. Bere ustez «geldotasuna garrantzitsua da bai margotzeko orduan zein lanak begiratzekoan ere. Ez dira bost minutuan ikusteko koadroak».

Josu Etxebarrioste

Aurreiritzi barik

Aurreko lanaren ildoari jarraitu dio Fitzgeraldek koadro berriotan, nahiz eta bilakaera izan duten. Bere hitzetan, «lan bat hasi aurretik ez dakit nolakoa izango den. Norbera lan batean galtzearen ideia garrantzitsua da».

Koadroetan landutako gaiak «urteen poderioz garatutako ideiak» direla ziurtatu zuen. «Arkitektura edota paisaia ditut erreferentzia». Grisa, zuria eta beltza interesatzen zaizkio egileari, «euren botere sinboliko eta poetikoagatik». Bere lanaz mintzatzea baino nahiago du erakustea. «Oso zaila da hizkuntzaren bitartez adieraztea neure lana, ez baita batere teorikoa eta berez egiten du berba», adierazi zigun. Bere ustez, koadroak «poesia dira lengoaia bat baino gehiago».

Koadro handiak nahiz txikiak egiten ditu, eta joera hori etorkizunean areagotu egingo dela aurreratu zuen.

Emakumearen rola literaturan aztertuko du Espido Freirek

Hitzaldia emango du gaur arratsean Getxon

Erredakzioa / **Bilbo**

ESPIDO FREIRE idazleak hasiko ditu gaur Getxon Emakumeen XI. Jardunaldiak. 18:00etatik aurrera Zabala Ikastetxean, literatura laburrean emakumeak duen rolaz egingo du berba Freirek. Maitagarriak, sorginak, printzesak... izango ditu mintzagai. Ipuingintza klasikoaren traidizoan emakumeak rol jakinak izan dituela nabarmendu izan du Freirek eta rol horiek balio jakin batzuen ordezkari direla. Izan ere jardunaldion helburua emakumea eta artea aztertzea da. Emakumezkoen produkzio artistikoa ezagutarazi nhai da eta orokorrean bizi dituzten arazoak eta errealitatea aztertuko.

Espido Freire idazlea azken Planeta sariaren irabazlea da. Planeta saria da gaztelerazko literaturaren barnean eman ohi den sari sonatuenetako bat.

HITZ L I

'Euskal Herriko Emakumeen Historia' • Basauriko Euskarabilaren egoitzan, 19:30etan

Ormaza: «Oraindik oso gizarte matxistan gaude»

BIZKAIKO Euskara Elkarteak Topagunearekin batera egiten ari diren bazkide kanpainaren barruan, Basauriko Euskarabila Euskara Elkarteak zenbait ekitaldi antolatu ditu.

Astelehenean, Julen Gabiriak *Sexuaz ere euskaraz egin daiteke* hitzaldia eman zuen. Gaur, berriz, Amagoia Ormaza historialariak *Euskal Herriko Emakumeen Historia* hitzaldia eskainiko du. Ormazak historiako garai bakoitzean emakumeak Euskal Herrian zer leku izan duen azalduko du: historiaurrean, Erdi Aroan, erregimen guztietan...

Ormaza algortarra sorginez ere mintzatuko da solasaldian. «Sorginkeriari buruz hitz egingo dut, zer eragin zan zuen emakumeengan sorginkeriak. Inkisizioak bereziki emakumeen aurka jo zuen, eta, horretan guztian, Elizak emakumeari buruz zuen iritziak eragina zuen. Elizak eta garaiko gizarteak esaten zuten emakumeak arriskutsuak zirela eta etxean egon behar zutela; kalean asko hitz egiten zutela eta arazoak sortzen zituztela».

Gaur egunean ere gauza asko aldatzeke daudela uste du Amagoiak. «Erdi Aroarekin konparatuz, aurrera egin du emakumeak, baina oraindik lan asko dago egiteko. Oraindik gizarte matxista batean bizi gara».

Ostiralean, bestetik, *bake prozesuaren etorkizuna* izenburupean, mahai-ingurua izango da Ibaiganeko kultur etxean. Hizlariak Martin Garitano, Martxelo Otamendi, Jose Felix Azurmendi eta Xabier Aierdi izango dira.

Urtzi Urkizu
DONOSTIA

PACO CAMPOS

'Euskal Herriko Emakumeen Historia' izanen da gaurko solasaldiaren gaia .

BEASAIN
- **Ipuin kontaketa.** Ezkiaga auzo etxean, 18:00etan.

BILBO
- **Las Fellini.** 'Trastornismoa eta kabaret komikoa'. Mistyk kafe antzokian, 20:30etan.

DONOSTIA
- **Ipuin kontaketa: *Beldurrezko ipuinak.*** Loiolako liburutegian, 18:00etan.

GASTEIZ
- **Ipuin kontaketa euskaraz.** Hiruki taldearen eskutik, Foru Aldundiko kultur etxean.

LIZARTZA
- **XI. Eskolaren Astea.** 14:30etatik 16:00etara mendi irteera. Eta 19:00etan jaialdia euskaltegian.

E KUSKET K

BALMASEDA
- ***Trenbidea Balmasedako historian.*** Santa Clara elizan, apirilaren 3a arte.

BARAKALDO
- ***Viaje al centro de la tierra. Ertamerika: etorkizuna eraikitzen.*** Udal Erakusketa aretoan, otsailaren 25a arte.

BASAURI
- ***Parasitos domésticos.*** Gabriela Kraviezen pinturak eta eskulturak. Arizko Torrean, otsailaren 29a arte.
- ***Euskal Herria eta dinosaurioak.*** Arizko Torrean, martxoaren 1a arte.

BILBO
- **Jose Ramon Amondarainen pinturak.** Windsor kulturgintzan, otsailaren 26a arte.
- ***Paseos.*** Raul Bogajoren argazki erakusketa Espacio de los Mundosen, otsailaren 28a arte.
- ***El bodegón español: de Zurbaran a Picasso.*** Arte Eder museoan, apirilaren 19a arte.
- ***Leihoa artean.*** Obra grafikoa, eskultura, marrazkia eta argazkia. BBK Fundazioko erakusketa aretoan, martxoaren 19a arte.
- ***Rew....*** M.A. Lertxundiren eskulturak. BBK Fundazioko kultur gelan, otsailaren 27a arte zabalik.
- **Clementeren pinturak.** Guggenheim museoan, ekainaren 4a arte.
- ***Intensidades.*** Erakusketa kolektiboa. Sarean, otsailaren 28a arte.
- **Irene Linaresen pinturak.** Ederti galerian, otsailaren 29a arte.
- **Jose Luis Gordilloren pinturak.** Nerbion Kasinoan, martxoaren 12a arte.
- **Antonio Yanizen pinturak.** Tavira galerian, otsailaren 26a arte.

MUSIK

BILBO
- **Berri Txarrak eta talde gonbidatu bat.** Kafe Antzokian, 20:30etan.

DONOSTIA
- **Joseba Tapia.** EHUko auditorioan, 13:30etan. Ibaetako Kanpusean.

NTZE KI

BARAKALDO
- ***Txio txioka.*** Taun Taun taldearen eskutik, Barakaldo Antzokian.

BILBO
- ***Fascinación.*** Ayala Antzokian, 20:30etan. Ugalma taldearen eskutik.
- ***Chaise Longue.*** Mont Plansen eskutik, Bilborock aretoan, 20:00etan.
- ***Cuadros clínicos.*** Melody Sisters. Mistyk kafe antzokian, 20:30etan.

DONOSTIA
- ***Hablamé de...eso.*** Ausartak taldearen eskutik, Altzako auzo etxean, 16:00etan.

GASTEIZ
- ***Escenas de matrimonio.*** Principal Antzokian, 20:30etan.
- ***Herminio y Miguelito.*** Sobradun taldearen eskutik. Jesus Ibañez de Matauco antzokian, 20:30etan.

ZINEM - I E

EIBAR
- ***Napoleon txakurtxo abentura zalea.*** Portaleko areto nagusian, 17:00etan. Takian Potian programaren barruan.

GASTEIZ
- ***XVI. Euskal Zinearen Astea.*** Eguerdiko 12:00etan ***Rigor Mortis.*** filma emango dute Vital Kutxa fundazioko aretoan. ***Muertos de risa*** filma 16:30etan, 19:00etan eta 22:00etan. Eta arratsaldeko 19:30etan laburmetraiak, Luis de Ajuria aretoan: ***Haragia, Sequritas angelorum*** eta ***Sarabe.***

GETXO
- ***Solas.*** Getxo Antzokian, 20:00etan. Emakumeen Jardunaldien barne.

HITZ L I

BILBO
- ***Entre vida y muerte: los bodegones de Goya en el Museo del Prado.*** Bodegoiari buruzko hitzaldia. Arte Ederretako Museoan. Gaurkoa Bodo Vischerrek emango du.
- ***Bizikleta erabiltzen duten artean Zirkulazio Legearen aldaketa dela eta sorturiko ardura.*** Mahai-ingurua. La Bolsa auzoetxean, 19:30etan. Hizlariak: Iñaki Iglesias, Angel Toña eta Manu Diaz.

DONOSTIA
- ***Subiranotasuna-ekonomia-gestioa.*** Lizarra-Garazik antolatutako mahai-ingurua. Dr. Camino liburutegian, arratsaldeko 19:30etan. Hizlariak: Santi Ugarte (ELA) eta Jabi Garnika (LAB).
- ***17 urte marrokiar espetxeetan.*** Salek ahizpa sahariarrekin solasaldia. Koldo Mitxelenako areto nagusian, 19:30etan. Era berean, *Lalia* laburmetraia emango dute.
- ***Emakumeen partehartzea Hondarribi eta Irungo Alardeetan.*** Kafe-tertulia Galeria Altxerri kafetegian, 18:00etan. Hizlariak: Maria Luisa Agirretxe, Maribel Castelló eta Idoia Estornés. Plazandreok plataformak antolatuta.

ERRENTERIA
- ***Construcción nacional y soberanía, retos y propuestas.*** Zutikek antolatutako mahai-ingurua. Xenpelar etxean, 19:30etan. Hizlariak: Iñaki Antiguedad, Jabier Villanueva eta German Kortabarria.

GETXO
- ***Princesas y brujas. La mujer en los cuentos infantiles.*** Espido Freire idazlearen eskutik, Zabala Eskolan, 18:00etan. Emakumeen Jardunaldiak.

IRUN
- ***Irak, genozidio bat, politikoki zuzena.*** Hitzaldia eta diapositiba proiekzioa. Kabigorri Bidasoaldeko Ateneoan, 20:00etan. Komite Internazionalistak antolatuta.

IRUÑEA
- **Euskal Herriko Musika Tresnen hitzaldi-erakusketa.** Iruñezahar euskaltegian, 20:00etan.

MUSKIZ
- ***Normalizazioaz eta gatazka politikoaren amaiera lortzeko irtenbideak eta proposamenak: nortzuk?, zelan?, noiz?.*** Kultur etxean, 19:30etan. Hizlariak: Sabin Arana (EA), Oskar Matute (IU-EB), Margarita Uria (EAJ) eta Ibon Arbulu (HB).

OÑATI
08:00: **CNN+. Noticias.** 08:20: **Generación +.** 09:10: **Lo + Plus.** 10:00: **Zinema: Los comediantes.** 12.03: **Zinema: Sucio secreto.** 13:30: **Los 40 principales.** 14:00: **Más deporte.** 14:55: **CNN+. Noticias.** 15:00: **Dame un respiro.** Telesaila. 15:30: **Dokumentala.** 16:00: **Zinema: Titanic.** 19:07: **El planeta de los toros.** 20:00: **Lo + plus.** 21:00: **Friends.** Telesaila. 21:25: **Contrarreloj.** 21:30: **Redaccion. Noticias.** 21:52: **Las noticias del Guiñol.** 22:00: **Zinema: El hombre que vino del mar.** 23:51: **La noche corta: Imagina 2000.** 00:52: **Zinema: En el nombre de Dios.** 02:25: **NBA.** 05:20: **Zinema: Jerusalén.**

C N L + [f]

07:00: **Le journal de l'emploi.** 07:05: **Teletubbies.** 07:30: **Ça cartoon.** 08:05: **Daria.** 08:30: **Zinema: Sodome et Gomorrhe.** 11:00: **Telefilma: La famille Addams: les retrouvailles.** 12:25: **Flash info.** 12:30: **Le journal du cinema.** 12:40: **Un autre journal.** 13:40: **Le journal de l'emploi.** 13:45: **Mercredi animation.** 14:50: **Surprises.** 15:00: **La grande réserve.** 15:55: **Total recall 2070.** 16:40: **Telefilma: La coupable idéale.** 18:10: **Nulle part ailleurs.** 20:30: **Le journal du cinéma.** 21:00: **Zinema: Trois Anglaises en campagne.** 22:45: **Telefilma: Marquis de sade.** 00:25: **Zinema: Du venin dans les veines.** 01:55: **Surprises.** 02:05: **NBA.** 05:00: **Au pays de la 4ª dimension.** 05:25: **Zinema: La nouvelle Eve.**

L CIN

03:00: **Les écrans du savoir.** 04:40: **Les grands documents de la cinquième.** 05:30: **Les amphis de la cinquième.** 06:25: **Méthode Victor.** 06:45: **Debout les zouzous.** 07:45: **Ça tourne Bromby.** 09:10: **C'est mercredi.** 11:50: **Cellulo.** 12:15: **Le monde des animaux.** 12:45: **100% question.** 13:10: **Pi=3,14...** 13:40: **Le journal de la santé.** 14:00: **Gaïa.** 14:30: **En juin, ça sera bien.** 16:00: **TAF.** 16:30: **Alfred Hitchcock presente...** 17:00: **Cinq sur cinq.** 17:15: **Accro.** 17:30: **100 % question.** 17:55: **Côté cinquième.** 18:25 **Météo.** 18:30: **Le monde des animaux.** 18:55: **C'est quoi la France?**

TE

19:00: **Sur les traces d'Hemingway ave Michael Palin (1/4).** 19:45: **Arte info.** 20:15: **Les couturières de l'ombre.** 20:45: **La Jeunesse sous Hitler (3/5).** Dokumentala. 21:35: **Flash bach.** 21:45: **Giselle.** Baleta. 23:40: **Telefilma: Calculs et passions.** 01:05: **Telefilma: La première fois.** 02:35: **Scénarios sur la drogue.** 02:45: **Amaiera.**

Idi Bihotz taldea 'KTM!' saioan

ETB1 • 19:40an

Bilboko Idi Bihotz taldea izango da gaurko gonbidatua *KTM!* saioan, eta *Arima Erratu* disko berriko kanta bat eskainiko dute.

ETB 1

06:30: **Sustraia.**
07:00: **Superbat.** Marrazki bizidunak.
'Max miresgarria', 'Pantera arrosa', 'Huckleberry hound', 'Lukas ahatea', 'Hirukiak', 'Gudakatua, puntako eskuadroia', 'Ninja dortokak'.
09:10: **Euskal Herritik.**
09:40: **Hitzaro.**
10:10: **Sorginen Laratza.**
11:30: **Ikusgela.**
12:25: **Txileko dokumentalak.** Dokumentala.
12:55: **Iparraldearen orena.**
13:05: **Pedro eta Pabloren show berria.**
13:30: **Gaur egun.**
14:10: **Hauteskundeko elkarrizketak.** Gonbidatua: Mikel Irujo (EA).
14:40: **Lazkao Txiki.**
14:50: **Galdestreet.**
15:25: **Egin kontu.**
16:55: **Bidaide.** Dokumentalak: *Otsoa.*
Tximeleta: ederra ala piztia?.
18:25: **Txakurrak zerura doaz.** Errepikapena.
18:45: **G.I. Joe Soldaduak.** Marrazki bizidunak.
19:10: **Parker Lewisek ez du sekula galtzen.** Telesaila.
19:40: **KTM!.** Haur eta gazteentzako saioa.
20:28: **Gaur egun.**
21:10: **Bertatik Bertara.**
21:45: **Goenkale.**
22:25: **Sorginen Laratza.**
00:00: **Hitzetik Hortzera.**
00:55: **Bakarrik.** Estepan Aldamizek aurkeztutako saioa.
02:40: **Galdestreet.** Errepikapena.
03:10: **Egin kontu.** Errepikapena.
04:40: **Eguzki Lore.** Dokumentala.
05:00: **Spanish Ranch.** Dokumentala.
05:25: **Ikusgela.**
06:30: **Osabideak.**

ETB 2

07:15: **Del país de los vascos.**
07:45: **En el cruce.**
08:15: **Empresa Vasca.**
08:45: **Vida salvaje.**
09:30: **El Punto...** Gonbidatua: Sabin Arana (EA).
10:00: **Forum.** Gonbidatua: Natividad García.
10:30: **Esta es mi gente.** Errepikapena.
11:25: **King.** Telesaila.
12:10: **Remington Steele.** Telesaila.
13:00: **La cocina de Pedro Subijana.**
13:15: **La vida con Roger.** Telesaila.
13:40: **Locos por ti.**
14:10: **Informativo territorial.**
14:28: **Teleberri.**
15:30: **Lo que faltaba.**
17:40: **Zinema.**
Encubridora. Zuz.: Fritz Lang. Akt.: Marlene Dietrich, Arthur Kennedy. 1952.
19:15: **Esta es mi gente.**
20:20: **Da la talla en la pantalla.**
20:58: **Teleberri.**
22:00: **Zinema.**
Cadena perpetua. Zuz.: Frank Darabont. Akt.: Tim Robbins, Morgan Freeman. 1994.
00:40: **Zinema.**
Lloviendo piedras. Zuz.: Ken Loach. Akt.: Bruce Jones, Julie Brown. 1993.
02:05: **Lo que faltaba.**
04:05: **Forum.**
04:30: **Amaiera.**

gaurko filmak

Ane Muñoz

■ **CADENA PERPETUA.** Tim Robbinsek Morgan Freemanekin batera protagonizatutako drama garestia da, baliabide askorekin egina. Film ederra da, ikusgarria eta oso interesgarria. Robbins azkarrari emaztea hiltzealeporatu diote, eta hil arteko kartzela zigorra bete behar du. Freeman, berriz, kartzelan urte mordoxka daraman lagun zintzoa da. Biak ederki dabiltza Darabont zuzendari hasiberriaren aginduetara. Klasikoen eragin handia du, eta nabarmentzeko modukoa da kartzela giroko film multzo zabalaren barnean. Pertsonaien arteko harremanak sakon aztertzen ditu, haiei akzioari baino garrantzi handiagoa emanez.

■ **LLOVIENDO PIEDRAS.** Ken Loach britainiarra da drama fresko eta interesgarri honen egilea, telebistaren munduan hasi eta egun prestijio handiko zinemagile bihurtu dena. Hona istorioa: diruz oso ongi ez dabilen bikote baten alabak laster jaunartu behar du, eta gurasoak hara eta hona ibiliko dira, ero moduan, ez baitaukate dirurik alabari soineko txuria erosteko. Langabetuek eta langileek egun dituzten arazo sozialak behin baino gehiagotan aztertu ditu Loachek bere lanetan; are gehiago, horixe da filmetan islatzea gustukoen duen mundua. Errealismo handiko eszenen bitartez kontatu ohi ditu mundu horretako gorabeherak, honako drama gordin honetan bezala.

■ **AVENTURA PARA DOS.** Don Siegel zuzendari ezagunak Benito Perojo ekoizlearen babespean Espainian egindako lan hau zaharkitua geratu da, eta, egia esanda, ez du interes handirik, zuzendari horren jarraitzaile sutsuentzat ez bada; haiek ere berehala ohartuko dira ez duela zerikusi handirik zinemagile horren ondorengo lanekin. Siegelek, hain zuzen, Clint Eastwoodekin elkartu eta Harry poliziaren abentura ederrak pantailaratu aurretik filmatu zuen, besteak beste Carmen Sevilla gazte bat emakumezko rol nagusirako deituz. Entretenimendu gisa ikusteko ez da txarra.

Kontuz gero Marlene Dietrichen begirada magikoarekin!

■ **ENCUBRIDORA.** Fritz Lang maisuak, Marlene Dietrich, Mel Ferrer eta Arthur Kennedy bikainak bildu zituen Mendebalde Urrunean girotutako melodrama gozagarri eta eder hau filmatzeko. Oso antzezpen interesgarria egiten dute, eta, hain zuzen, haien lanak pisu handia du filmaren kalitatean. *Western* baten antzera planteatuta badago ere, oso modu bitxian erabiltzen ditu jenero horren ezaugarriak. Oso film gomendagarria da.

Sodome et gomorrhe	♠♠♠	
1961, Robert Aldrich, 145 m.		08:30 C+(f)
Aventura para dos	♠♠	
1957, Don Siegel, 93 m.		11:00 La2
Milagro en el corazón	♠♠	
1998, Dabiel Petri, 98 m.		16:15 T5
Encubridora	♠♠♠♠♠	
1952, Fritz Lang, 85 m.		17:40 ETB2
Trois Anglaises en campagne	♠♠	
1997, David Leland, 110 m.		21:00 C+(f)
Cadena perpetua	♠♠♠♠	
1994, Frank Darabont, 136 m.		22:00 ETB2
El hombre que vino del mar	♠♠	
1997, Beeban Kidron, 108 m.		22:00 C+(e)
Turbulence II: miedo a volar	♠♠	
1999, Mario Azzopardi, 90 m.		22:40 A3
Lloviendo piedras	♠♠♠♠	
1993, Ken Loach, 86 m.		00:40 ETB2
No piqueís al mosquito	♠♠	
1967, Lina Wertmuller, 99 m., JBA		02:00 La2
Más allá de la pasión	♠♠	
1992, Jonathan Sanger, 86 m.		02:50 A3
El alcalde de Zalamea	♠♠	
1953, Jose Gutierrez Maesso, 80 m.		03:40 La2
Cicatriz de guerra	♠♠	
1988, Michael Pressman, 95 m.		04:45 T5

♠ TXARRA · ♠♠ ESKASA · ♠♠♠ BALEKOA · ♠♠♠♠ ONA · ♠♠♠♠♠ BIKAINA



Morgan Freeman eta Tim Robbins aktoreak, *Cadena perpetua* filmean.

irratia ◆

Herri Irratia. Aste honetako *Komatxo artean* saioan, elkarrizketa nagusia *Kalezuloko animalien itzalak* izeneko liburuari buruz koa izango da. Lutxo Egia idazle bilbotarrarekin hitz egingo dute horretarako, eta liburuaren pasarte batzuk irakurriko dituzte. Bestalde, *Postontzia* atalaren barruan, Mikel Taberna idazle beratarrarekin jardungo dute solasean. Mikel Taberna idazleak Donostia Hiria saria irabazi du ipuinen alorrean. *Komatxo artean* saioa Mikel Asurmendik aurkezten du, eta asteazken guztietan eskaintzen dute Herri Irratian, gaueko 22:00etatik aurrera.

Segura Irratia. Goizeko 09:00etan eguraldiaren berri emango dute. Ondoren, *Kalejira* saioan, entzuleek elkar zoriontzeko aukera izango dute. *Kalejira* saioak 10:00ak bitartean iraungo du, eta ordu horretan, *Hamar hamahiru* izeneko magazina hasiko da. Saio horren barruan, asteazkenero egiten duten moduan, Ordiziako azokaren berri emango dute. Hango giroa eta prezioak zeintzuk diren esango dute, besteak beste. Eguerdiko 13:30etan, kirol albisteak eskainiko dituzte, eta arratsaldeko 16:00etatik aurrera, *Musikaz blai* saioa izango da 19:00ak bitarte. Gau osoan, estilo guztietako musika izango da entzungai: euskal musika, musika klasikoa...

UNI BERTSITATEA

Polemika sarean

Manipulazioa eta parodiak

Webgune abertzaleen ordez, haien aurkakoak ageri dira Terran • 5

Errektore berria EHUn

EGUNKARIAK EHUko hainbat talderi itaundu die orain arteko lanaz, etorkizuneko erronkez eta errektoregaiez

EHU-KO ERREKTORE BERRIAREN HAUTAKETA

Errelebuko ordua

Pello Salabururen gestioaren balantzeari, EHUren etorkizuneko erronkei eta errektoregaiei buruzko iritzia eskatu die EUSKALDUNON EGUNKARIAK unibertsitateko hainbat talderi

MIKEL MARTINEZ

1. Nola baloratzen duzue Pello Salaburuk unibertsitatean egin duen lana?

2. Zeintzuek behar dute errektore berriaren erronka nagusiak?

3. Nor da zuen ustez datorren agintaldirako errektore egokiena?

Iñigo Olabarri • Bilbo

EUSKAL Herriko Unibertsitateko klaustroak gaur ekingo dio errektore berria aukeratzeko prozesuari. Mari Karmen Gallastegi, Juan Ignacio Perez eta Manu Montero dira errektoregaiak. EGUNKARIAK Euskal Herriko Unibertsitateko zenbait sindikatu eta ikasle elkarterekin hitz egin du errektore berriaren hautaketaren gainean izan dezaketen iritzia aztertzeko.

LAB

1.- Salabururen agintaldian hutsune handiak eta garrantzitsuak ikusi ditugu: *Bai euskarari!* akordioan EHU ez egotea bat; irakasle kontratatuen egoera da beste bat. Duela bost urte onartutako irakasleen gaineko oinarriak ez ditu aurrera eraman. Egonkortasuna hitzez onartuta dago, baina praktikan desitxuratuta geratu da. Osagarri indibidualen kasuan, hori bultzatu nahi izan du errektorearen taldeak.

Euskararen normalkuntzarako bigarren plangintza ere ez da nahikoa. Landuagoa izan zitekeen eta azkarrago abian jarri. Hala ere, zerbait da.

2.- Madrilgo Unibertsitate Antolamendurako Legea oso desegokia da. Gure unibertsitateak eskuduntza guztiak izan behar ditu, eta horrek esan nahi du Unibertsitate Antolamendurako Legea gainditu behar dugula; esparru berria behar du unibertsitateak.

Horren barruan, irakasle propioak beharko genituzke eta euskal lerroak indartu beharko lirateke. Indartu diogunean, ikasketak euskaraz hasi eta amaitzeko bermea izatea esan nahi dugu. Barruti irekiaren aurrean, berriz, harremanak estutzea proposatzen dugu Nafarroako unibertsitateekin eta Iparraldean daudenekin.

Horiez gain, ikerketan ere eskuduntza osoak jaso beharko lirateke; unibertsitate publiko honen pribatizazioa geratu beharko luke errektore berriak; eta unibertsitateak hutsune batzuk betetzeko

erabiltzen dituen bekadunak eta zabor kontratuak arautu beharko lituzke. Horretarako beste bide bat hartu beharko litzateke. Ez dugu ezer kalitatearen kontra, baina bere azpian gordetzen diren gauza askok kezkatzen gaitu.

3.- Euren burua Salabururen jarraitzaile huts bezala agertzen dutenak ez dira gure hautagaiak; hala ere, ondo bereizten dugu Manu Monterok esan nahi duena (euskara erabat baztertuta geratuko dela, funtzionarioen eskubideak azken mutur-reraino eramango dituela...). Beste bien kasuan ez ditugu haien programak eztabaidatu, baina desberdintasun itzelak ikusten ditugu Gallastegi eta Perez eta Monteroren artean.

EHUren euskalduntzeak errektore berriaren erronken artean egon behar luke, jasotako iritziaren arabera.

CCOO

1.- Pello Salabururen agintaldia trantsizio agintaldia izan da, aurrekoaren jarraipena. Lan gogorra Pello Salabururen agintaldiaren aurrekoek egin behar izan zuten, haiei egokitu zitzaien unibertsitatearen bidea egonkortzea.

2.- Irakasleen soldata osagarriak eta AZPren finkatzea dira aurreko taldeak egin ez dituen lanak, eta datorren errektoreak egin beharko ditu. Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren kasuan lan eskaintza publikoa oraindik finkatu gabe egotea iritzi publikoaren aurrean defendaezina den auzia da.

Irakaskuntzaren kalitateari ere heldu behar zaio. Taldeak txikitu behar dira, irakasleen eta ikasleen arteko harremanak hobetzea ahalbidetzeko.

Gestio akademikoa eta baliabideen gestioa dira jorratu beharreko beste arlo bi. Gogoratu behar da unibertsitateak ez duela marketin sortzaile izan behar, jakintza, garapen eta ikerketa sortzaile baizik. Baliabideen kudeaketa eraginkor bat behar dugu irakaskuntzari eta ikerkuntzari lagundu ahal izateko.

3.- Une delikatua bizi dugu, eta badago arrisku bat: unibertsitatea politikaren menpe geratzea. Menpekotasun horrek erakundearen unibertsaltasuna estal dezake. Guk, ordea, apustu egin nahi dugu diskurtso zabalen alde, ez ditugu diskurtso endogamikoak onartzen.

ELA

1.- EHUko errektoradutzaren aldaketa garai hauetan Pello Salabururen jardueraz balorazio laburra egitean, erabateko aportazio gabekoa izan dela esatera ausartuko ginateke. Kanpora begira irudia zaintzeak, komunikabideetara behin eta berriro jotzeak ezkutatu egin du ez zaiela aurre egin EHUren arazoei: Salaburuk ez du eztabaidarik, barne negoziaziorik, proposamenik edo barne egokitzerik bultzatu.

Trantsizio garaia izan da zoritxarrez, gizarteak proposamen eta ausardia beharra zuenean.

Egia da azken urteetan barne giroa baretu dela, baina gizartean gertatu diren aldaketen ondorioz eta, batez ere, barneko zenbait kolektiboren ahultasun eta nekean oinarrituta izan delakoan gaude.

2.- Talde berriak izan beharko lituzkeen erronken gainean hitz egiterakoan, honakoak azpimarratuko genituzke: barne antolakuntza, ikasketa berriei aurre egitea, euskal adarraren eskaerei erantzutea, euskal hezkuntza eta euskal funtzio publikoan barneratzeko aldarrikapenei aurre egin beharra.

ELAren aldetik, eskatuko diogu aurre egiteko irakasle eta ikertzaileen eta Administrazio eta Zerbitzuetako Pertsonalaren egonkortasunari, lan baldintzen homologazioari eta negoziazio kolektiboari.

3.- ELAk ez du hautagai bat edo besteren aldeko iritzia plazaratuko, bere bileretan hala erabaki duelako.

EILAS

1.- Argi-ilunak ikusten ditugu Pello Salabururen agintaldian. Hasieran eta amaieran aldaketa izan dela uste dugu.

Argiez hitz egiterakoan, euskalduntze plana eta hura aurrera ateratzeko egin zen eztabaida prozesua leudeke. Adostasun osoa ez zen lortu, baina horretarako saioa egin zen. Irakasleen egonkortasunera jotzeko lehen urratsak ere egin dira.

Iluna izan da, aldiz, akordio sindikalak ez betetzea eta lehen garaiko klaustroetan ikasleekiko izan duen jarrera.

2.- Euskal Herriko unibertsitatea euskal guzartean txertatzea da dagoen erronka garrantzitsu bat. Euskal gizartean azken boladan izan diren aldaketa positiboak, bestalde, EHUra ere iritsi behar dutela uste dugu.

Euskara plana betetzea da beste erronka garrantzitsu bat. Uneotan geratuta dago irakasleen kontratazioaren arloa, baina uste dugu hori betetzea garrantzitsua dela. Gazteleraz mintzatzen direnak bezain eroso sentitu behar dute euskaldunek unibertsitatean.

Irakasle irudi berria sortzea ere beharrezko jotzen dugu. Unibertsitatearen Antolamendu Legea gainditu-ko duen irakasle irudi berria. AZPren langile taldearekin ere aurerrapausoak eman behar direla uste dugu.

3.- Guk ez dugu gure hautagairik, oso zaila delako gure ikuspegiarekin bat egingo duen katedradun bat bilatzea, baina uste dugu errektore berriak izan behar duela euskalduna eta negoziazio kultura bultzatzen duena, eta, noski, nabarmendu ditugun erronkekin bat egiten duena.

Sindikatu bezala ez daukagu aldez aurretik bozketari begira ezarritako jarrera jakin bat.

Ikasle Abertzaleak

1.- Salabururen kudeaketa negargarria izan da. Gure ustez, gainera, EHUk atzerapauso nabarmenak eman ditu bere agindupean. Espainiako Gobernutik egin den lege bati baiezkoa emanda, Madrilera bideratu du unibertsitatea.

Bestalde, ez dugu aurrerapausorik ikusi euskalduntzeari dagokionean. Bigarren normalizazio plangintzari ekin zaio Salabururen agintaldiaren amaieran, bost urteko atzerapenaz. Gogorarazi nahiko genuke, era berean, ikasle sektore jakin baten kriminalizazioa ere jasan dugula azken agintaldian.

2.- Bi erronka nagusi aurreikusten ditugu datozen urteetarako. Alde batetik, unibertsitatearen egungo esparrua gainditzea izango litzateke bata. Ezarri duten esparrutik kanpo, Euskal Herri mailako barruti baten alde egin behar dela ikusten dugu. Bestetik, bigarren erronka nagusia euskal adarraren garapen osoa izango litzateke. Unibertsitate eredu propio bat eratzea ere beharrezkotzat jotzen dugu; inguruko unibertsitateen kopia izan ordez, eredu propio bat aldarrikatzea.

3.- Hiru errektoregaietatik inork ez du aldaketa kualitatiborik planteatzen. Gure eskabideei lotu zaion bakarra Miren Zabaletaren hautagaitza sinbolikoa izan da. Beste hautagaien aldetik ez dugu borondaterik ikusten eztabaidarako, eta unibertsitatean dauden beste sentsibilitate batzuen adierazle izango den boza emango dugu.

LAB

«Gure unibertsitateak eskuduntza guztiak izan behar ditu. Horrek esan nahi du UAL gainditu behar dugula; esparru berria behar du unibertsitateak»

CCOO

«Trantsiziozko agintaldia izan da. Lan gogorra aurrekoek egin zuten, haiei egokitu zitzaien unibertsitatearen bidea egonkortzeko betebeharra»

EILAS

«Euskara plana geratuta dago irakasleen kontratazaioaren arloan, eta hori betetzea izan behar du datorren errektorearen erronkatariko bat»

ELA

«Salabururen agintaldia erabateko aportazio bakoa izan da; eztabaidarik, negoziaziorik, proposamenik edo barne egokitzerik bultzatu ez duena»

IKASLE ABERTZALEAK

«Unibertsitatearen egungo esparrua gainditzea eta euskal adarra garatzea dira errektorearen erronka nagusiak »

Info DATUAK GORDETZEKO SITEMAK

Informazio mugikorra

CD-ROMa ez da datuak gordetzeko sistema bakarra



Laurentzi Garmendia • Donostia

DUDARIK gabe, informazioa gordetzeko moduen artean disko gogorra da nagusi, baina oraingo honetan berau ez dugu oso kontuan hartuko. Segurtasun kopiak gordetzeko edota toki batetik bestera eramateko sistema egokienak aztertuko ditugu, bakoitzaren aldeko eta kontrako arrazoiak emanez.

CD-ROMa...

Hasteko, une honetako sistema nagusiari begiradatxo bat botako diogu. Egia da erabiltzaile soil gehienontzat CD-ROM grabagailua dela datuak biltzeko sistemarik egokiena, hainbat arrazoirengatik. Adibidez, gero eta merkeagoak dira (megabyte bakoitzak 0,5 pezeta baino gutxiago balio du), azkarragoak dira eta, gainera, ia edonork irakur ditzake sistema horretan egindako grabaketak.

Baina enpresa garrantzitsuetan, informazio garrantzitsua gorde behar denean, nahiago izaten dituzte bestelako sistemak, batez ere CD-ROMaren aldean segurtasun gehiago eskaintzen dutelako. Izan ere, CD-ROM baten grabaketan hutsak izaten dira batzuetan, eta diskoa erabilezin gertatzen da. Informazioa galtzeko arriskua oso txikia bada ere, berau irakurtzeko medio optikoa erabiltzen denez —laserra—, diskoak nolabaiteko markadurarik badu arazoak izan daitezke.

... eta besteak

Ezin da esan, hala ere, CD-ROMa segurua ez denik. Baina badira aurrea har diezaiokeken beste sistema batzuk; SuperDisk delakoak, adibidez. Duela pare bat urte atera zuten etxe garrantzitsu batzuek, eta disket arruntaren neurria duen beste batean 120 *mega* sar daitezke. Sistema magnetikoa da, ohiko disketean bezalakoa, eta nahi adina aldiz grabaitezke. Gainera, betiko disketa ere onartzen du; irakurri zein idazteko. Sistema merkea (15.000 pezeta, 600 libera inguru balio du) eta erabilerraza da; datu transferentzia, ordea, mantsoa da CD-ROMarekin alderatuz (0,3 Mb/seg).

Zip eta Jaz

Iomega izan da beste etxe garrantzitsu bat datuak biltzeko sistemen artean. Bi modelo ditu, ZIP eta Jaz izenekoak. Ez da nahastu behar ZIP unitatea izen bereko konprimaketa sistemarekin. Halako disko bakoitzean 100 megabyte sar daitezke, eta SuperDiska baino lau aldiz azkarragoa da. Prezio aldetik pareko dabiltza, baina hau garestixeagoa da.

Horren senide handiak Jaz izena du, eta 2 gigabyte onartzen ditu gehienez. Horrek besteek baino dexente gehiago balio du, eta, gainera, Iomegaren modeloek ez dute disket normalik onartzen. Syquestek ere antzeko —prezioan eta edukieran— bi sistema ditu: EzFlyer eta SyJet.

Fujitsuren magneto-optikoak ere oso ezagunak dira, batez ere duten sendotasunagatik. Aspaldidanik darabil Fujitsuk sistema hau, eta profesionalen artean nahiko zabaldua dago. Modelo desberdinak dauden arren, zabalduena 640 megabytekoa da, CD-ROMaren pareko tokia duelako. Hala ere, mantsoagoa da, eta garestiagoa, baina datuen segurtasuna hobeto bermatzen du, eta hori da ordaintzen dena.

Ez da ahaztu behar zintan gordetzeko aukera. Pelikuletan agertzen ziren zinta erraldoietan ere datu pila gorde daiteke, eta merke, gainera. Alde txar nagusia abiadura da, zintan datuak sekuentzialki gordetzen baitira, eta amaiera aldera dagoena irakurtzeko dexente itxaron behar da. Hala ere, datuak behin gorde eta artxiboan hautsa hartzen badaude ere, egokia izan daiteke.

CD-ROMa kenduta, datuak gordetzeko sistemetan ez dago estandarrik, etxe bakoitzak bere sistemak proposatzen baititu. Horrek konpetentziari mesede egiten badio ere, lagunen artean informazio trukaketa zailtzen du, bakoitzak sistema desberdina aukera baitezake. Hala ere, CD-ROMa da egokiena gehienontzat.

Erabiltzaile gehienontzat CD-ROM grabagailua da almazenatze sistemarik egokiena

galderak zalantzak galderak zalantzak galderak zalantzak galderak zalantzak galderak zalantzak galderak zalantzak

Nola jakin dezaket nire ordenagailua zenbateraino den azkarra? Ba al dago emaitzak konparatzerik?

Aitor Arbizu

Bada, bai. Ingelesez *benchmark* deitzen zaie, eta ordenagailuari egiten zaion azterketa moduko bat da. Funtsean programa berezi batzuk dira, ordenagailuari proba asko egiten dizkiotenak, eta bere erantzunaren arabera ordenagailuaren abiadura neurtzen dutenak. Mota askotako *benchmark*-ak daude: CPUaren abiadura soilik neurtzeko, disko gogorrarena, sistema grafikoarena eta bestelakoak. Guztia kontuan izanda abiadura neurtzen dutenen artean *Sysoft Sandra* da ezagunena. Gainera, beste sistema jakin batzuekin alderatuta, zure ordenagailua zein mailatan dagoen jakinarazten dizu bertan.

Nola sortzen dira MP3 artxiboak?

Endika Gimenez

Hasteko, horretarako programa bat behar da, baina ez dira lortzen zailak. Winamp-ek berak bertsio batzuetan badakar. Horretarako, *Preferences* barruan *Output plug-in*-etan disko irteera aukeratu behar da. Bestela, programa onena Xing Audio Catalyst da; dagoeneko 2.1 bertsioan kalean dago, baina ordaindu egin behar da programaren ezaugarri guztiak erabiltzeko. Programa honek zuzenean sor ditzake mp3 artxiboak CD batetik, eta baita WAV artxibotik ere.

ORDENAGAILUEI EDO INFORMATIKARI BURUZ DITUZUN ZALANTZAK ARGITU NAHI DITUZU?
Bidali galderak unimatika@egunkaria.com helbidera eta argituko dizkizugu.

amarauna EZTABAIDA

Manipulazioa eta parodiak

Webgune abertzaleen ordez haien aurkakoak agertzen dira Terraren bilatzailean

Jabi Zabala • Bilbo

DUELA hiru aste EAJk salatu zuen Telefonicaren Terra atarian alderdi horri egiten zaion boikota. Zehazki, haren baitan dagoen bilatzailean *PNV* bilatuz gero, ez zaigu haren helbidea agertuko. Aitzitik, alderdi horren zein abertzaletasunaren aurkako makina bat webgunerenak emango dizkigu, eta euskal webguneen parodia iraingarri diren asko ere bai.

Lehen *Ole* izena zuen bilatzailea erabiltzen du Terrak, haren baitan integratua baitago. Telefonicaren asmoa sareko hainbat zerbitzu batzea zen, Espainiako eta Latinoamerikako atari nagusia sortzeko. Horregatik, Ole erosi zuen. Egun, Telefonica eta BBVAren akordioaren ondorioz, Espainiako talderik handiena osatzen dute Interneteko komunikazioan.

Ole bilatzailea Katalunian jarri zen abian eta hango Gobernuaren laguntza jaso zuen. Bertako iturrien bidez jakin dugunez, gerora Generalitateko agintariek damu zuten laguntza eman izanaz horren jarrera espainiarzalea hartu zuen bilatzailearen egitasmoari.

Zaharrak berri

Baina Olek euskal webguneei egiten dien boikota ez da berria. 1997ko uztailean, Miguel Angel Blancoren heriotzaz geroztik, kanpaina egin zuen espainiar bilatzaileak, *mail bombing* kanpainarekin bat eginez. Beste ideia bat ere gehitu zuten Oleko kudeatzaileek haien hitzetan «ETArenak» ziren webguneei boikota egiteko. Milaka helbideetara bidalitako mezuan ziotenez, «haien bakartzea lortzeko biderik onena Ole bilatzailean beti gure sorreratik egin izan duguna da: ez ditugu terroristadun webguneen eskabideak onartzen. Olen, komunitate hispanoarentzat erreferentzia baita, ez da posible horrelako webguneak aurkitzea».

> Bitxia da abertzaleen sareko ekimenek berehalako erantzun izengabeak jasotzea

Eta halaxe da, ETAren webgunerik ez da ageri Ole bilatzailean. Are gehiago, inolaz ere terroristatzat jo ezin daitezkeen hainbat euskal webguneren alta eskabideak ez ditu onartu Olek. Bere webgunean bertan azaltzen denez, bilatzaile honetako editoreek banan-banan aztertzen dituzte eskaerak, eta ez dituzte onartzen haien iritziz egon behar ez luketenak.

Aldiz, webgune abertzaleen parodiak eta eduki iraingarriko hainbat webgune ageri dira Olen. Besteak beste, itxuraz Jarrairen edo Sabino Arana Fundazioarenak direnak edo EHren parodia, *Euskal Histerikos* webgunea. Euskal presoen aldekoaren itxura baina kontrako edukia duen beste bat ere badago.

Doako eta antzekoak

Sareak lehia politikoan hartu duen garrantzia —beste arlo askotan legez— handia da, eta horrek azaltzen du EAJren salaketa. Egileen helburuak ere argi daude, baina kezka sortu da, *libelo* horien guztien atzean nor ote dagoen. Denak doako webguneetan daude, eta estilo aldetik antzekoak dira. Nazionalismoaren kontrako *webring* edo webgune sortan daude batzuk eta bertako denak izengabeak dira, Unidad Alavesa alderdiaren webgunea izan ezik. Bitxia da sarean alderdi abertzaleen ekimenek zein euskal nortasunaren aldeko aldarrikapen guztiek berehalako erantzun izengabea izatea.

Abertzaleen aurkakoetan, eta *NAZIonalismo* hitzaren erabilera bereizgarri moduan dutela, famatuenetakoa dugu *La pluma y la Espada*. Maider Intxausti Goenaga delako batek sinatzen du eta abertzaletasunaren kontra egiteko sortua da. Antzeko kasua da *La mentira de los separatismos* webgunea. Bertan, *I love .es* webgunerako lotura dago; Kataluniako, Galiziako zein Euskal Herriko domeinuak lortzeko kanpainen aurkakoa. Bannerren bidez Espainiaren .es domeinuaren handitasuna aldarrikatzeko kanpaina bultzatzen du.

Ole bilatzailea
http://www.terra.es/
La pluma y la espada
http://www.geocities.com/SunsetStrip/Club/1726
La mentira de los separatismos
http://imaginapoder.es.fortunecity.com/burros/14/
Dominio español
http://www.geocities.com/Athens/Sparta/7469/

www.www.

WEBGUNEA

Formakuntza sarean

Arabako Zabalnet enpresak etengabeko formakuntza ikastaroak sarean jarri ditu hainbat enpresatako langileentzat. Irakaskuntza telematikoko proiektu honetan 400 ikasle baino gehiago biltzea espero dute Zabalnetekoek aurtengo ikastaroan. Horretaz gain, urtez urte ikastaroan izena ematen duten pertsonen kopuru hori emendatzea da haien helburua. Ez dute, ordea, ikastaro hutsetan geratu nahi Zabalnet enpresakoek, eta hemendik bi urtera irakaskuntza arautuan ere urratsak egitea da enpresa honen asmoa.

Zabalnet
www.zabalnet.com

WEBGUNEA

Musikabi musika eskola

Donostiako Musikabi musika eskola sarean da, bere domeinu eta guzti. Bertan, musika eskolan dauden ikastaroen gaineko azalpenak emateaz gain, haren inguruan mugitzen diren hainbat musika talderi buruzko argibideak ageri dira. Beste atal batean Euskal Herriko musika aurkibidea sortu dute talde, bakarlari, disko eta partitura askorekin. Berriak, datozen kontzertuak eta Musikabi Ganbera Orkestrak ateratako azken diskoaren berri ematen da besteren artean.

Musikabi
www.musikabi.com

120.000 artikuluko katalogo bat kontsultatu nahiko nuke, etxetik mugitu gabe erosteko eta %5eko deskontuarekin.
Zer egin behar dut?
Megadenda - www.jalgi.com
Edizioa Ikusi Joan Gogokoak Laguntza
Helbidea http://www.megadenda.com
Interneteko zure denda megadenda



EUSKAL HERRIA

Eusko Ikaskuntzaren Agustin Zumalabe ikerketa beka

MIKEL MARTINEZ

Deitzailea: Eusko Ikaskuntza. **Baldintzak:** Norbanakoek zein deialdirako berariaz eratutako taldeek jaso ahal izango dute beka. Taldeak aurkeztuz gero, ordezkari lanak egingo dituen zuzendari bat izan beharko dute. Beka Eusko Ikaskuntzako kide diren ikertzaile berriei edo agiriak aurkezteko epea amaitu aurretik Eusko Ikaskuntzan sartzea eskatu duten ikertzaileei zuzenduta dago. **Iraupena:** Urtebete gehienez. **Diru laguntza:** 750.000 pezeta (30.000 libera). **Edukia:** 2000. urteko ikerketa gaiak izango dira: Natur Zientziak, Zuzenbidea, Hezkuntza eta Hedabideak. **Epea:** 2000-02-28. **Informazioa:** Eusko Ikaskuntza. BULEGO NAGUSIA: Miramar jauregia. Mirakontxa, 48. 20007 Donostia. Telefonoa: 943 31 08 55. Posta elektronikoa: er-sev@sk.ehu.es. ARABA: San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Telefonoa: 945 23 15 52. Posta elektronikoa: eigasteiz@infonegocio.com. BIZKAIA: Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Telefonoa: 94 442 52 87. Posta elektronikoa: eibilbo@infonegocio.com. IPARRALDEA: Faculté Pluridisciplinaire 29-31, cour du comte de Cabarrus. 64100 Baiona. Telefonoa 559529299. E-maila: Eusko.Ikaskuntza@univ-pau.fr NAFARROA: Gazteluko Plaza, 43 bis 3. 31001 Iruñea. Telefonoa 948 22 21 05. E-maila: gaztelu@infonegocio.com.

EUSKAL HERRIA

Eusko Ikaskuntzaren Angel Apraiz Ikerkuntza beka

Deitzailea: Eusko Ikaskuntza.
Baldintzak: Norbanakoek zein deialdirako berariaz eratutako taldeek jaso ahal izango dute beka. Taldeen kasuan ordezkari lanak egingo dituen zuzendari bat izan beharko dute. Beka Eusko Ikaskuntzako kide diren ikertzaile berriei edo agiriak aurkezteko epea amaitu aurretik Eusko Ikaskuntzan sartzea eskatu duten ikertzaileei zuzenduta dago.
Iraupena: Urtebete.
Diru-laguntza: 750.000 pezeta (30.000 libera).
Epea: 2000-02-28.
Edukia: Ondoko gaiak hartuko dira kontuan: Hikuntza eta Literatura, Historia eta Geografia, eta Aurrehistoria eta Arkeologia.
Informazioa: Eusko Ikaskuntza. Bulego Nagusia. Miramar jauregia. Mirakontxa, 48. 20007 Donostia. Telefonoa: 943 31 08 55. E-maila: er-sev@sk.ehu.es.
Eusko Ikaskuntza. San Antonio, 41. 01005 Gasteiz. Telefono zenbakia: 945 23 15 52. E-maila: eigasteiz@infonegocio.com. **Eusko Ikaskuntza.** Maria Diaz de Haro, 11-1. 48013 Bilbo. Telefono zenbakia: 94 442 52 87. E-maila: eibilbo@infonegocio.com. **Eusko Ikaskuntza.** Faculté Pluridisciplinaire 29-31, cour du comte de Cabarrus. 64100 Baiona. Telefonoa 559529299. E-maila: Eusko.Ikaskuntza@univ-pau.fr. **Eusko Ikaskuntza.** Gazteluko Plaza, 43 bis 3. 31001 Iruñea. Telefono zenbakia 948 22 21 05. E-maila: gaztelu@infonegocio.com.

Usurbilgo gai soziokulturalei buruzko Gaztelu Bertsolaria beka

Deitzailea: Usurbilgo Udala.
Baldintzak: Norbanakoek zein taldeek aurkeztu ahal izango dute bere burua beka horretara.
Diru laguntza: 800.000 pezeta.
Edukia: Ikerketa soziokulturalei buruzko Gaztelu Bertsolaria beka. Usurbilgo gai soziokulturalei buruzko ikerketak bultzatzeko bekak dira. Lanek orijinalak izan behar dute eta inon argitaratu gabeak.
Aurkeztu beharko direnak: ikerketa proiektuaren memoria txikia, proiektuaren ardatz nagusiak eta metodologia aipatuz. Kurrikuluma eta egilearen lan egoera.
Epea: 2000-04 27.
Informazioa: Usurbilgo udaletxeko idazkaritza. Joxe Martin Sagardiarena plaza z/g. 20170 Usurbil. Telefonoa: 943 37 19 51 / 943 37 19 20 / 943 37 14 93. Faxa: 943 37 14 93.

BIZKAIA

Amorebieta-Etxanoko Udala: Santiago Onaindia ikerketa beka

Deitzailea: Amorebieta-Etxanoko Udala.
Iraupena: Urtebeteko iraupena izango du.
Diru laguntza: 1.000.000 pezeta (40.000 libera).
Aurten 250.000 pezetako beka berri bat sortu da (10.000 libera). Bigarren beka hori jaso ahal izateko Amorebieta-Etxanoko auzotarra izan beharko du hautagaiak.
Epea: Dokumentazioa aurkezteko epea 2000-02-25ean amaituko da, eguerdiko 14:00etan.
Edukia: Bekaren helburua euskal literaturaren alorrean ikerketa sustatzea da. Beka hori bi urterik behin ematen du Udalak.
Informazioa: Amorebieta-Etxanoko udaletxea. Euskara zerbitzua. Telefonoa: 94 630 00 02.

GIPUZKOA

Azkoitiko kooperatibismoaren historia eta bilakaera aztertzeko ikerkuntza beka

Deitzailea: Azkoitiko Jasokunde Kontsumo kooperatiba.
Baldintzak: Azkoitian jaioa izatea edo gaur egun bertan bizitzea eskatzen du deitzaileak.
Banakoek eta taldeek egin dezakete eskaera. Taldean eskatuz gero, arduradun bat izendatu behar da.
Iraupena: Urtebete.
Diru laguntza: 1.000.000 pezeta (40.000 libera).
Edukia: Azkoitiko eta inguruko kooperatibismo mugimenduaren historia eta bilakaerari buruzko ikerketa egitea.
Lana ezagutaraztea: Jasokunde Kooperatiba izango da onuradunak eginiko ikerketa lanaren jabe eta, egoki deritzoenan, lanaren zati bat edo lan osoa argitaratu eta zabaltzeko eskubidea bereganatuko du, betiere egilearen izena agertuz.
Epea: 2000ko otsailaren 29a baino lehen.
Informazioa: Telefono zenbakia: 943 85 32 08 (Mikelengatik galdetu).

ARABA

Okondorako administratibo lanpostu bat

Deitzailea: Okondoko Udala.
Baldintzak: LHII, Batxilergoa edo baliokideren bat izatea.
2002. urtean 2. Hizkuntz Eskakizuna betetzea.
Epea: 2000-03-05.
Informazio gehiago: Okondoko udaletxea. Zudibiarte, 2. 01409 Okondo. Telefonoa: 945 89 80 23.
Iturria: Arabako Aldizkari Ofiziala, 2000-02-04ko 15. zenbakia.

GIPUZKOA

Zegamako Ostatua alokatzeko lehiaketa

Deitzailea: Zegamako Udala.
Iraupena: 5 urte.
Alokairua: Gutxienez 100.000 pezetakoa da (gehi BEZa) jantoki eta taberna zerbitzuengatik.
Edukia: Zegamako Ostatua alokairuan uzteko lehiaketa. Ostatuak dituen atalak dira:
Beheko solairua: Taberna, sukaldea, jantokia eta komunak.
Lehenengo eta bigarren solairuak.
San Pedro aterpea.
Museoa edo erakusketa iraunkorra.
Epea: 2000-03-07.
Informazio gehiago: Zegamako udaletxea. Maiora plaza z/g. 20215 Zegama. Telefonoa: 943 80 11 15. Faxa: 943 80 00 73.
Iturria: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2000-02-10.

Ataungo kiroldegiko kirol ustiapenerako zerbitzua kontratatzeko lehiaketa

Deitzailea: Ataungo Udala.
Iraupena: Urte bi. Lau urtera luzagarria da, baina luzapen horiek urterik urtera egingo dira.
Edukia: Auzoeta Udal Kiroldegiko kirol ustiapenerako zerbitzua kontratatzeko lehiaketa.
Epea: 2000-03-06.
Informazio gehiago: Ataungo udaletxea. San Martin auzoa, z/g. 20211 Ataun. Telefonoa: 943 18 00 11. Faxa: 943 18 00 11.
Iturria: Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala. 2000-02-09. 1.652. orrialdea.

Dantza irakasle lanpostu bi betetzeko lehiketa Errenterian

Deitzailea: Errenteriko Musika Udal Patronatua.
Baldintzak: Dantza irakasle titulua izatea, Arte Dramatiko Eskolako titulua izatea edo baliokideren bat.
Derrigorrezkoa da Bigarren Hizkuntz Eskakizuna edukitzea.
Epea: Aldizkari Ofizialetan atera zain dago.
Edukia: Dantza irakasle bi egun erdiz kontratatzeko lehiaketa.
Informazioa: Errenteria Musikal, Musikako Udal Patronatua, Alfonso XI.a kalea, z/g. Niessen eraikina. 20100 Errenteria. Telefono zenbakia: 943 52 99 24. Fax zenbakia: 943 52 99 24.

Aretxabaletan kontu-hartzaile teknikari lanpostu bat betetzeko deialdia

Deitzailea: Aretxabaletako Udala.
Baldintzak: Ekonomia Zientzietako edo Enpresa Zientzietako diplomaduna izatea.
Hirugarren Hizkuntz Eskakizunaren jabe izatea.
Edukia: Lehiaketa baten bitartez kontu-hartzailetza teknikari lanpostu bat bete ahal izatea.
Epea: Zehaztu gabe; aldizkari ofizialetan atera zain dago.
Informazioa: Aretxabaletako udaletxea. Erregistro Orokorra. Otalora kalea, 1. 20550 Aretxabaleta. Telefono zenbakia: 943 79 10 00. Fax zenbakia: 943 79 80 56.
Tokia: Aretxabaleta.

Suhiltzaile lanpostuak Gipuzkoako Foru Aldundirako (19)

Deitzailea: Gipuzkoako Foru Aldundia.
Baldintzak: Eskola Graduatua, Oinarrizko Batxilergoa, LHI edo baliokideren bat izatea.
Edukia: Gipuzkoako Foru Aldundiko suhiltzaile izateko lehiaketa deialdia. Guztira 19 lanpostu izango dira.
Epea: Zehaztu gabe dago. Aldizkari Ofizialetan atera zain.

Informazioa: Gipuzkoako Foru Aldundia. Antolakuntza, Formakuntza eta Hautaketa Saila. Gipuzkoa plaza, z/g. 20004 Donostia. Telefonoak: 943 48 23 48 / 943 48 23 44.

ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOA

Auzitegiko medikuen talderako zortzi lanposturen eskaintza

Deitzailea: Espainiako Justizia Ministerioa.
Baldintzak: Medikuntzako lizentziadunak. Eskaera bakarra aurkeztu ahal izango du bakoitzak.
Edukia: Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako zortzi lanpostu.
Epea: 2000-05-27.
Informazioa: Ministerio de Justicia. C/Manzana, 28015 Madrid. Telefonoa: 91 390 21 67.
Eusko Jaurlaritza, Justizia Saila. Giza Baliabideak Antolatzeko Zuzendaritza. Donostia, 1. 01010 Gasteiz. Telefono zenbakia: 945 01 80 00.
Prezioa: Azterketa tasak: 4.000 pezeta.
Iturria: Espainiako Buletin Ofiziala, 295. zenbakia.

NAFARROA

Fisioterapeuta lanpostu bat Nafarroako Gobernuan

Deitzailea: Nafarroako Gobernua.
Baldintzak: Lanpostuotarako hautagaiei eskatuko zaie Fisioterapiako diplomadun izatea, Erizaintzako diplomadun izatea edo Sanitate Urgazle Teknikoaren edo baliokide den tituluren baten jabe izatea.
Edukia: Plazak B mailakoak dira.
Epea: 2000-03-01.
Informazioa: Nafarroako Gobernua. Carlos III.a, 2. 31002 Iruñea.
Azterketa eskubideak: 1.000 pezeta.
Iturria: Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2000-01-31.

GIPUZKOA

Mizpirualde zaharren egoitzarako zerbitzuen kontratazioa

Deitzailea: Mizpirualde zaharren egoitza. **Baldintzak:** Urtebete, kontratua sinatzen den unetik. Urtero luzatzeko aukera izango da, baina sei urte arte gehienera jota. **Edukia:** Lehiaketa publiko bidez ondorengo zerbitzuak kontratatzeko deialdia: laguntza klinikoa, garbitegia, sukaldaritza eta abar, gehienbat asteburuetan eta jaiegunetan lan egiteko. **Epea:** 2000-03-08. **Informazioa:** Mizpirualde Egoitza. 20570 Bergara. Telefonoa: 943 76 13 68. **Iturria:** Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2000-02-11.

UNI BERTSITATEA HAU ASTEA!

JOSU ETXEBARRIOSTE

UBIkoak informazio bila

Deustuko Unibertsitateak jardunaldi irekiak antolatu ditu otsailean

Iker Gomez • Bilbo

LAUGARREN urtez, Deustuko Unibertsitateak informazioa zabaltzeko jardunaldiak antolatu ditu. Bertara 2.500 gazte inguru biltzen dira urtero, ikasi nahi dituzten ikasketei buruz galderak egitera. Jardunaldion antolatzaile Juan Luis de Leonek azaldu duenez, aurtengo zerbait berezia nabaritu dute: «Aurreko urteetan ikaslea denetarik entzutera etortzen zen, hasierako ideiarik gabe. Orain, ostera, badakite zer ikasi nahi duten, eta zehaztasun bila datoz jardunaldietara».

Otsailean, guztira 14 saio antolatu dira. Bi orduko hitzaldi horiek —arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara— irakasle bati, tutore bati eta ikasketa horietako ikasle bati entzuteko aukera paregabea eskaini nahi dute. Ikaslearen ikuspuntua ere sartzen da jardunaldietan, «lizentziaturen itxuraren alde baikorra eta baita ezkorra ere adierazteko». Orokorrean, pozik ateratzen dira UBIko ikasleak informazioa jaso ondoren.

Gurasoak eta ikaslea

Gehienek hasierako asmoan aurrera jarraitzen dute. Egia da gazteek, nolabait behintzat, erabakita daukatela non eman hurrengo lauzpabost urteak. Plentziako Mikel Gizarte Hezkuntzako Diplomaturaren inguruko hitzaldia entzutera etorri da Deustura. «Argi daukat hau egin nahi dudala, baina zehaztasunen berri jakitera etorri naiz. Nire ustez, garrantzitsuena ikasketak nire gustukoak izatea da. Gurasoek, hala ere, ez dute hain gustuko nire erabakia». Hor hasten da urteroko lehia. Gurasoen gura eta ikasleona. Juan Luis de Leonek azaldu duenez, «gurasoek ingeniaritza edo enpresaritza ikasketak hautatzen dituzte seme-alabentzat. Senitartekoen presio hori oraindik handia da ikasleen gainean». Jardunaldietan galdera asko egiten dituzte gazteek; gehienak, ikasketen lan irteeren gainekoak.

Aintzane Sopelakoa da, eta zuzenbideko ikasketak egin nahi ditu. «Ez nago guztiz ziur. Askok aukeratzen dute zuzenbidea. Ez dakit gero denetzako lana izango den». Horrez gain, unibertsitatera sartzeko bete beharrekoen gainean ere izaten dira zalantzak.

Jardunaldi ireki guztiek ez dute hainbesteko arrakasta izaten entzule aldetik. Esan bezala, ingeniaritza edo Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzaren ingurukoek gazte ugari erakartzen dute. Jende gutxien letretako hitzaldietan egoten da. «Gehienak neskak izaten dira», dio De Leonek. Horrez gain, gero eta gazte gutxiago biltzen dira unibertsitatera, bai beste bide batzuk aukeratzen dituztelako, «bai gutxiago jaiotzen direlako».

Adi-adi geroa landuz. Otsailean, astelehenetik ostegunera («ostiraletan ez genuen inor espero») egunero eman ari dira lizentziatura edo diplomatura bati buruzko informazioa Deustuko Unibertsitatean. Guztira 2.500 bat ikaslek entzungo dituzte hitzaldiak. Argazkian, Gizarte Hezkuntzako Diplomaturaren inguruko zehaztasunak jaso dituzten gazteak agri dira. Amaieran, galderen txanda izaten da, zalantzak argitzeko.

«Ikasleak badaki zer ikasi, baina zehaztasun bila dator. Gurasoek oraindik pisu handia daukate azken erabakian»

UNIBERTSITATEKO AGENDA

Zinema

Zinema italiarraren zikloa Nafarroako Unibertsitatean. Gizarte Zientzien eraikineko 2. gelan, arratsaldeko 19:30etan, *Il postino* eskainiko dute bihar. Halaxe hasiko da Italiako zinemaren gaineko zikloa.

Musika

Bilbo Sax Ensemble Gasteizen. Otsailaren 28an, Bilbo Sax Ensemble taldearen emanaldia izango da EHUren Gasteizko campuseko unibertsitate pabilioian, 19:15etan.

Tam White Duo Euskalduna jauregian. Jende arruntari buruzko abestiz beteko dute Euskalduna jauregia Tam White Duokoek bihar, otsailak 24, arratsaldeko 20:30etatik aurrera.

Erakusketak

Michel de Ghelderode antzerkigilearen gaineko erakusketa. EHUren Arabako campuseko unibertsitate pabilioian, Michel de Gelderoderi buruzko erakusketa zabalduko dute gaur.

Argazki erakusketa Nafarroako Unibertsitatean. Eraikin nagusian, Alberto Etxeberzen *Un paseo por la vida* argazki erakusketa izango da ikusgai otsailaren 25a arte.

Industria arkitekturari buruzko erakusketa Gasteizen. Euskal Herriko Unibertsitateko Arabako campuseko unibertsitate pabilioian, interes historiko eta arkitektonikoa duten Euskal Herriko gune industrial zaharren berrikuntza agertzen duen erakusketa izango da otsailaren 25a arte.

Antzerkia

'Supermonstres' txotxongiloen ikuskizuna Industria Ingeniaritza Teknikoko Eskolan. EHUren Bilboko Industria Ingeniaritza Teknikoko eskolan, emanaldia izango du Jordi Beltranek bere txotxongiloekin hilaren 29an. 19:00etatik aurrera, artistak eta bere pertsonaiek munduari buruzko ikuspegi berezia eskainiko dute.